

ASTELEHENKOA

# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2012-01-16  
ASTELEHENA  
349. ZENBAKIA  
8. URTEA  
1,10 EURO  
GOIENA.NET  
TOKIKOM

## Iñurrategi gustura egindakoaz

Etxean da Vallejo eta Zabaltzarekin | 25



Aretxabaletakoa Loiun. | BASQUE TEAM

Nafarroako Erresuma aldarrikatzeko oroitarria jarri dute Atxorrotzen | 13



Bariku, zapatu eta domekan, Espaloia bete du Blakek | 31



Autismoa izanda ere, bizimodu normala egin daiteke | 2

## IKASTEKO UNEA DA

Beira birziklatzeko karpa eta zaborra gutxiago sortzeko erakusketa ireki ditu Mankomunitateak | 12



Emakume bati mehatxu egin izana salatu dute Aretxabaletan | 4

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4 |  
ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 22  
JAKINGAI 28 | KULTURA 29 | ZURE IRAGARKIAK 34  
TELEBISTA-IRRATIA 37 | ZORION AGURRAK 38 |  
JAIOTAKOAK 39 | DENBORA-PASAK 39

goienakluba<sup>®</sup>  
Abantailaz betetako kluba!

GOZATU, MEREZI DUZU!



Txartela, beti aldean

► Zoaz 21. orrialdera



dks'11  
debagoieneko  
IV. kirolsariak

Debagoieneko nork merezi du herritarren saria?

Debagoieneko kirolaren sari banaketa ekitaldia

Urtarrilak 20 ostirala  
Elgetako Espaloian | 19:00

egin zure proposamena!



www.kirolsariak.com

# Autismoa izanda ere, bizimodu normalizatua egin daiteke

- ▶ Autismoa dutenen alde lan egiten du Gautenak
- ▶ Aretxabaletan eskola dute, eta bost ume dabilta

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Autismoaren eta autismoaren antzeko gaixotasunak (Autismoaren Espektroko Gaixotasunak, TEA gaztelaniako sigle ere deituak) jendartearen begietara ezkutuan pasatzen diren horietakoak izaten dira. Ezjakintasuna eta urruntasuna sortzen da haien inguruan eta haiek dituzten pertsonen inguruan. Horri buelta emateko lan egiten du Gautenak, Gipuzkoako Autismoaren Elkarteak, etengabeko sensibilizazio lanean.

Bukatu berri den 2011. urtean, Hurbil zaitez autismora. Batzuetan, keinu batek mila hitzek baino gehiago balio du izeneko kanpaina egin du Gautenak, eta bertan esandakoak egunero balio du. Izan ere, Gautenaren esanetan, "autismoa oso hitz erabilia da, hain erabilia non benetako esanahia galtzeko arriskua baitago: jende askori bizitza normalizatua egitea eta ingurunearekin harremanak izatea galarazten dion gaitza da".

Laguntzeko modu asko dago baina, Gautenaren esanetan, "keinu nagusia autismoak jotako pertsonengana eta horien familiengana hurbiltzea da".

## Gurasoek sortu zuten

Autismoaren Espektroko Nahasmenen (AEN) eredu da autismoa eta gizarteratzeko, komunikatzeko eta ohiko jarduerak ikasteko oztipoak ipintzen dizkiete umeei. 1943an idatzi zuen autismoaren gaineko lehen artikulua Leo Kanner psikiatra austriarrak, eta gaur egun zientzialariek oraindik ez dakite ziur nondik datorren autismoa. Funtsean, arrazoi genetikoei egozten zaizkie bai autismoa, bai bere espektroko nahasmenak. Gaur egun, lehen baino sarrigo eta lehenago identifikatzen dira.

Gaur egun sendaezinak badira ere, orain dauden tratamenduek

nahasmen horiek dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dute eta, laguntzarekin, ingurune normalizatuan bizi izatea lortzen dute.

Autismoarekin eta haren espektroko gaitzekin bizi dira

milaka pertsona, gaixotasunak dituztenak eta familiak. Gautenak ia 600 pertsonari laguntzen dio eta gaixoei eta haien familiei zerbitzua ematen die. 1978an sortu zuten guraso batzuek. Jimmy Brosa presidentek *Goiena Magazine*-n esan zuen moduan, "guraso batzuek arazoa zuten, eta ez zekiten nola konpondu, gizartean ez zegoen-eta erantzunik. Elkar-tu egin ziren, eta guraso horiei esker dago orain Gautena".

## Eskolan antzeman zioten

Gipuzkoa osoan ematen du zerbitzua Gautenak, eta Debagoieneko kideak ere baditu. Horieta-ko batek, Silvia Mendizabal arrasatearrak, autismoa duen ume baten ama gisa, bere esperientzia kontatu du, umeari zelan antzeman zioten kontatuz: "Ikastolan hasi zenean, haur hezkuntzan, ikusi genuen umearen portaera ez zela normala; adibidez, ez zion bere izenari erantzuten.



**Gautena**  
Gipuzkoako Autismo Elkarteak.  
Telefonoa: 943 21 53 44 / 21 52 49  
Webgunea: [www.gautena.org](http://www.gautena.org)  
E-posta: [info@gautena.org](mailto:info@gautena.org)

## Pippi Galtzaluzeren nahasmena?

### ASPERGER

Autismoaren espektroko nahasmena da eta Gautenaren arduratzen dira horretaz. Garapenaren nahasmen bat da, eta ondorioa da informazioa modu berezian prozesatzea.

### KOMUNIKAZIO TXIKIA

Asperger duten guztiek dituzte zailtasunak jendearekin komunikatzeko, hitzeko eta bestelako komunikazio modu bereziak, interes kopuru txikia, kosta egiten zaie sentimenduak ulertzea...

### ESAMOLDEAK

Ondorioz, Asperger nahasmena dutenak ez dira gai

izaten sozietatearen eta jarduera sozialak ulertzeko. Adibidez, esamoldeak modu literalean ulertzen dituzte; edo hitz egiteko modu berezia eta xelebrea izan dezakete.

### EZAGUN ASKO

Ustez Asperger nahasmena duten edo izan duten pertsonaia ezagun asko daude: besteak beste, Bill Gates, Bob Dylan, Alfred Hitchcock, Charles Dickens, Mozart, Hans Christian Andersen...

Fikziozko pertsonaia askori ere, ustez, Asperger nahasmena antzeman diete: Pippi Galtzaluzeri, telebistako House doktoreari edo Lisa Simpsoni, besteak beste.



Lourdes Miner eta Maribel Serrato irakasleak, Gautenaren ikasgelan, Aretxabaletan. | MIRIAM

Ikastolan beste umeekiko portera desberdina zuen: leihotik begira orduak eman zitzakeen. Andereñoek hori igarri zuten eta Gautenarekin harremanetan jarri gintuzten".

Lehenengo momentu haietan "oso babestuta" egon ziren Arrasateko guraso horiek: "Ez genekien zer zen autismoa. Oso goxo azaldu ziguten. Medikuek esan ziguten umeak diskapazitate bat zeukala, baina ez zela oso larria, eta poliki-poliki aurrera joango zela. Eta umeak asko aurreratu du", kontatzen du Silviak.

## Amari kasurik ez

Silviari gertatu zitzaion bezala, gurasoek igarri dezakete umeak arazoren bat duela. Brosak laburtzen digu zerekin izaten dituzten arazoak: "Hitz egiteko zailtasunak dituzte; batzuek ez dute lortzen hitz egitea, beste askok bai, baina badute ulertzeko zailtasunak, gauzak oso literalki ulertzen dituzte. Beste bat da harremanak egiteko eta, are gehiago, haiei eusteko zailtasuna. Dena dela, uste faltsua da autismoa dutenak isolatu egiten direla. Harremanak izateko guk ditugun arauak berak ez ditu ulertzen, eta euren burua defenditzeko isolatzen dira. Eta hirugarrena: irudimen zailtasunak dituzte, kosta egiten zaie abstrakzioa egitea; errutina batzuk behar dituzte, horiek segurtasuna ematen dietelako".

Ume horien ezaugarrietako bat da, sarritan, modu agresiboan jokatzea, baita euren buruarengana ere. Sarritan errepikatzen

dituzte zenbait ekintza edo mugimendu xume: adibidez, bueltaka ibili edo gorputzarekin mugimendu erritmikoak egin. Autismoaren graduaren arabera, umeak erritual konplexuak egin ditzake ohera joan aurretik.

Beste sintoma posible batzuk haiek dira: hurkoaren sentimenduak ez ditu igartzen; ez du imitatzeko gaitasunik; ez du bestekin jolas egin nahi eta ez du irudimenik agertzen; hitz egiteko modu berezia du; objektuen inguruan larri kezkatzen da; errutina oso zehatzak jarraitu nahi ditu; interes jakin bat dauka eta asko insistitzen du horretan...

Horiek aztarnak bakarrik dira. Diagnostikoa pediatrik edo ume-psiatrik egin behar du.

## Ikasketa pertsonalizatuak

Behin Gautenarekin harremanetan ipinita eta diagnostikoa izanda, tratamendua hasten da. Silvia Mendizabal arrasatearrak kontatzen digu seme Haritzen egunerokoa zelakoa den: "Normala da: goizean jaiki, gosaria prestatu, jantzi, eta eskolara joaten da. Gurutze Gorriko eskola-garraioak etortzen dira eta eskolara eramaten dute. Han 09:00etatik 16:30era arte egoten da, eta beste ikasleekin harremanetan normal ibiltzen da, ez bakarrik bere taldearekin. Jolas-orduan ere, denekin egoten da. Izan ere, garrantzitsua da beste umeekin harremana izan dezaten".

Silviaren semea Gautenaren eskolara joaten da. Debagoienean, eskola hori Aretxabaletako Kur-



Jimmy Brosa eta Silvia Mendizabal Gautenako kideak. | AMAIA TXINTXURRETA

## ESANAK

"Autismoa dutenek ez dute euren burua nahita isolatzen, defentsa gisa baizik"

"Ume bakoitza desberdina da, eta bakoitzari bere programa antolatzen diogu"

JIMMY BROSA  
GAUTENAKO PRESIDENTEA

## ESANAK

"Autismoa zer zen ez genekien, eta oso goxo azaldu ziguten; oso babestuta sentitu ginen"

"Semearen eguneroko bizitza normala da: 09:00etan jaiki, eskolara joan..."

SILVIA MENDIZABAL  
AUTISMOA DUEN UME BATEN AMA

tzearri eskolaren egoitzan dago. Han, bailarako familiek erreferente bat dute.

Jimmy Brosak hauxe gogorazten digu: "Autismoaren barruan hainbat maila daude, eta arretak oso indibiduala izan behar du. Ume bakoitzarendako programa pertsonalizatua prestatzen dugu". Programa hori, Debagoienaren kasuan, Aretxabaletako gelan egiten dute. Hantxe daude eguneroko Maribel Serrato eta Lourdes Miner irakasleak. Aurten, 8 eta 15 urte arteko bost ikasle daude, bailara osokoak.

**Beste ikasleekin batera**

Maribel Serratok azaltzen digu zer egiten duten Gautenaren eskolan: "Ikasle bakoitzarekin bere programa egiten dugu. Denetarik egiten dugu: komunikazioa landu, idazketa, irakurketa, matematikak... denetarik". Horrez gain,

"Kurtzebarriko ekintza orokorretan parte hartzen dute: jaiak, irteerak, urtebetetzeak, musika... Ikastetxeko espazio guztiak erabiltzen ditugu", esaten du irakasleak. Integrazioa ere lantzen dute:

ikasleak dagokien gelan integrazten dira.

Aretxabaletako gelan 16 urterara arte ibiltzen dira, eta gero, Zeregin Ikasketa Gelara joaten dira. Arrasaten bi daude.

**Gurasoek ere laguntza behar dute**

Autismoa edo antzeko nahasmena duen umearen gurasoek, anai-arrebek... ere laguntza behar izaten dute. Hona hemen Catherine Maurice ikertzailearen gomendio batzuk.

**ORAINA**

Gaurko eguna eta oraina bizi, modu baikorrean. Ezin da etorkizuna kontrolatu, baina bai oraina.

**MOTIBATU**

Semea edo alaba motibatu eta bere gaitasunei probetxu ateratzen lagundu. Bere ikasteko gaitasuna errekonozitu. Batez ere, inoiz ez gutxietsi umearen ahalmenak.

**SOSTENGUA**

Bilatu sostengua eta laguntza: familiartekoengan, profesionalengan, elkarteetan.

**INGURUNEA**

Hasieratik, hazteko eta ikasteko ingurune aproposa eskaini umeari.

**GAINERAKOAK**

Nahiz eta seme-alaba batek denbora gehiago behar duen, akordatu gainerako seme-alabekin eta bikote kidearekin ere; eurek ere behar zaituzte.

**KONTZIENTZIA**

Erabakiak hartzeko orduan, kontuan izan zure kontzientzia eta, gero, umea; jendartearen aurrean ez duzu zure burua justifikatu beharrik.

**TXALOTU**

Izan zintzoa zure buruarekin eta besteekin, eta onartu hanka-sartzeak, beheraldiak, momentu txarrak eta zalantzak. Era berean, zure burua txalotu lortu duzunagatik.

**LIBURUXKA**

Gurasoendako doako esku-liburua (espainolez): [www.autismspeaks.org/family-services/tool-kits/manual-de-los-100-dias](http://www.autismspeaks.org/family-services/tool-kits/manual-de-los-100-dias).

**ARRASATEKOBASERRIKO  
PRODUKTUENAZOKA**

**09:00-14:00** Seber Altube Plaza

**HILEKO 3. ZAPATUAN**

**2012**  
**urtarrilak 21**

otsailak 18  
martxoak 17  
apirilak 21  
maiatzak 19  
ekainak 16  
uztailak 21  
irailak 15  
urriak 20  
azaroak 17

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN  
■ Enplegu eta Garapen  
Ekonomikoaren Saila

Laguntzailea:



Arrasateko baserriek eta merkatariek konfiantza, harbitasuna eta kalitatea eskaintzen dizkizute.





Etxarri Aranatzeko udaletxeko osoko bilkuren aretoa, lehengo eta oraingo protagonistekin. | ETXARRI 2012

## Iragana eta etorkizuna eskutik eta bat eginda Etxarri Aranatzeko atzo

Audientzia Nazionalaren debeku mehatxupean egin zuten ekitaldia

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Gaur 35 urte beteko dira Transizio garaiko Alkateen Mugimenduak Etxarri Aranatzeko aldarrikapenak Euskal Herri osora zabaltu zituenetik. Orduko pro-

tagonisten ordezkariak zabala Etxarri Aranatzeko bildu zen atzo. Herri baten bilakaera historikoan, ezinbestekoa dela iragana gogoan izanda aurrera egitea azpimarratu zuten. Iragana eta etorkizuna,

biak esku beretik doazela nabarmendu zuten atzoko ekitaldian. "Oso polita eta hunkigarria izan da ekitaldia", adierazi digu Kristina Elkorok, Jose Luis Elkororen alabak.

## Emakume bat labanaz mehatxatu izana salatu dute aretxabaletarrek

Bestalde, Bergarako gizon bat zigortu egin dute 2010ean bederatzi urteko alaba leihotik behera botatzea mehatxatzearen edanda zegoela

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

*Indarkeria matxistarik ez* esanaz elkartu ziren aretxabaletarrek zapatu iluntzean Herriko plazan. Egubakoitz goizaldean gizonetako batek bikotekidea labanaz mehatxatu izana salatzeke deitu zuen Udalak elkarretaratzea, eta herri-tarrek bat egin zuten.

Herrizaingo Saitetik eman zuten berria jakitera: 34 urteko gizonetako bat atxilotu zutela egubakoitz goizaldean Bergarako ertzain-etxeko agenteek, bikotekidea labanaz mehatxatzearen. Biktima komunean ezkutatu zen eta 112ra deitu ahal izan zuen.

"Horrelakoak berriz gerta ez daitezkeen eskatzeko eta aldarrikatzeko elkartu gara, eta aretxabaletarrei esateko hemen gaude eta egongo garela emakumeen aurkako indarkeria gelditu dadin exijitzeko", irakurri zuen Berdintasun Saileko zinegotzi Olaia Sagredok guztien izenean. "Hau ezin da horrela geratu; egia ezkutatu, isilik egon eta ezer pasatu ez balitz bezala", gaineratu zuen, "gertaerak salatu egin behar dire-lako eta biktimak babestu".



Herritarrek eraso salatzeke elkarretaratzean, zapatuan. | M.A.

**Zigorra bergarar bati**

Bergarako gizonetako bati, oster, 50 egunetan gizar-tearendako lan egiteko zigorra ezarri dio epaileak. Edanda zegoela emaztearekin izan zuen eztabaida sutsu batean 9 urteko alaba leihotik behera botatzea mehatxatu zuen. Emazteak diru-zorroa ezkutatu zion, kalera gehiago edatera joan ez zedin, eta gizonetako sutan jarri zuen horrek. 2010eko uztailaren 17an gertatu zen eraso.

Epaiketaren ostean, begi onez jaso zuen fiskalaren zigor-eskaera akusatua: 50 egunetan gizar-tearendako lan egitea, mozkor eginda zegoela alaba mehatxatzearen. Horrez gain, akusatua ezin izango da mehatxatu zuen alabarengana hurbildu; ez etxera, ez eskolara, ezta aisialdi lekuetara ere. Eta ezingo da beronekin harremanetan jarri, edozein dela modua, sei hilabeteko epean.

Udaletxe barruan egungo eta garai hartako alkate eta zinegotzietatik egindako harrerak eman zion ekitaldiari hasiera. Bertan izan ziren Aramaioko lehengo eta oraingo alkateak, eta Arrasateko eta Bergarako egungo alkate eta zinegotziak. Orduan, Alkateen Mugimenduak idatzi zuen manifestua gogorarazi zuten. Manifestua Iñigo Elkorok irakurri zuen, aitaren izenean. Ondoren, ikus-entzunezko baten bitartez, gertatutakoa ekarri zuten gogora.

Audientzia Nazionaletik, ordea, ekitaldia debekatzeko mehatxua jaso zuten. "Jose Luis Elkorok aipatu edo omentzen bazen, ekitaldia legez kanpo utziko zutela zioten", kontatu zigun Kristina Elkorok. Jose Luis Elkororen alabak ekitaldia bukatu bezain azkar telefonoz aitarekin hitz egiteko aukera izan zuen: "Orain dela 35 urte ere ekitaldia egitea debekatu zirela esan dit aitek. Oraindik ere orduan egin zituzten aldarrikapenak oso egungoak direla dio. Ekitaldian aipatu dena jakin gura zuen". Ekitaldia dela 35 urte bezala amaitu zuten, etorritako guztiek eskuak gora zizutuzela, *Aupa gizona, jeiki mutil, atzar emazte ta neskatil, borrokarako dei eginaz irrintzi bat dabil...* abestuz.

**Etxarri 2012 egitasmoa**

Erabakitzeke eskubidea eta memoria historikoa oinarri dituen egitasmoa abian jarri dute aurten: Etxarri 2012 egitasmoa.

## Hil egin da Altuna enpresan lan-istripua izan zuen langilea

Ezbeharrak hilaren 9an gertatu zen Oñatiko Zubillaga auzoan dagoen Altuna enpresan, 16:30ak inguruan. Esmeril harri bat askatu eta kolpeak jasan zituen buruan eta gorputzean 58 urteko gizonetako oñatiarrak. Larrialdi zerbitzuetakoak bertaratu eta larri eraman zuten Gasteizko Santiago ospitalera, han dute-eta aurpegi zauriak sendatzeko sail berezia; zainketa intentsiboan unitatera eraman zuten. Zapatuan, baina, hil egin zen oñatiarra.

## UEMAK Iparraldeko herrietara zabaltzeko asmoa azaldu du

UEMAK, urteko lehen batzarrean, 2012ko egitasmoa eta aurrekontua onartu ditu. Erronkarik handiena, lurgunea handitzea izango da. Dagoeneko, 20 udalekin izan dira harremanetan, eta hurrengo hilabeteetan udal horietako askok mankomunitatean sartzeko eskaera egitea espero dute. Bestalde, Iparraldeko herri eta erakundeekin hasitako harreman berriro abiatuko dutela ere kontatu digu Maren Belastegi UEMAKo presidente bergararrak.

## Aho batez aukeratu du EAJ alderdiak Iñigo Urkullu EBBko presidente

Zapatuan zortzi burukide aukeratu zituen EAJk; atzo Urkullu izendatu zuen presidente

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Ezuste korrik gabe, EAJk VI. Batzar Nagusian alderdiaren zuzendaritzako zortzikoa hautatu du; espero moduan, Iñigo Urkullu EBBko presidente aukeratu zuten atzo, domeka. "Aurkeztutako hautagai bakarra zen; aho batez izan da aukeratu; alderdi guztia bat dago Urkullurekin", kontatu digu Aintzane Oiarbide Bergarako EAJko kideak.

Eszenatoki politikoa berrian, Urkulluk eramango duela alderdiaren makila azaldu digu,

baina, alderdia ez dela pertsona bakar bat, ez dela alderdi presidentzialista azpimarratu gura izan du Oiarbidek: "Gure alderdiaren datorren lau urtetarako ibilbidea erabakitzerakoan jende askoren aportazioa jaso dugu, ez da pertsona bera garrantzitsuena, adostutako ibilbide hori baizik".

Urkulluren hurbilekoek osatu dute zuzendaritza talde berria: bost bizkaitarrek, bi arabarrek eta gipuzkoar batek. "Euskal Herri osoko ordezkariak daude EBBn", dio Oiarbidek.

### ESANAK

"Alderdi guztia bat dago Urkulluren aukeraketarekin"

"EBBn, Euskal Herri guztiko ordezkariak daude"



Bergarako udaletxea. | GOIENA

## ESANAK

"Dagoeneko eskatutako dokumentazioa bidali dugu epaitegira"

"Gai honekin udal denak bide beretik eta elkartuta joan behar gara"

JESUS ELORTZA | BERGARAKO ALKATEA

## Bergara eta Oñati auzitara Espainiako bandera ez jartzearen

Bi udalek abokatua eta prokuradorea izendatu dituzte epaitegian Udalak defenda ditzaten

MIRIAN BITERI | BERGARA

Bergara eta Oñatiko udaletzeko balkoian Espainiako bandera ez jartzeagatik auzitara eroango ditu Gobernu ordezkariak. Bi Udalek dagoeneko abokatua eta prokuradorea izendatu dituzte.

Abuztuan, Oñatira iritsi zen idatzian 1981eko legearen arabera, Espainiako bandera udaletxeetan ez ezik, eraikin publiko guztietan jarri behar dela gogorarazten bazen ere, ikurra udaletxean jartzea eskatzen zuten.

### Jeltzaleei aginduaren berri

Oñatin, idatzia jasotzean, zinegotzi jeltzaleei jasotako errekerimenduaren berri eman zitzaizen eta zenbait kontsulta juridiko

ere egin ziren abuztu eta iraila bitartean. Horren gaineko erabaki formalik hartu barik, ez zen inolako helegiterik aurkeztu, baina agindua ere ez zen bete, udal ordezkariak aurreratu dutenez. Azaroaren 3ko datuz, Gobernu Ordezkaritzak Donostiako auzitegiko lehen aretoan kontentzioso administratiboa jarri zuen. Handik jasotako idatziaren arabera, Oñatiko Udalak, 20 eguneko epea zuen epaitegian azaltzeko, abokatu eta prokuradore bana izendatu dituela jakinarazi zuen joan den abenduan egindako osoko bilkuran.

Bergaran ere abuztuan iritsi zen errekerimendua. Horren hari-

ra, honakoa jakinarazi du hango alkate Jesus Elortzak: "Abuztuan notifikazioa jaso genuen Espainiako bandera jartzeko, eta orain epaitegitik beste bat jaso dugu dokumentazioa eskatuz. Dagoeneko eskatutakoa bidali dugu eta abokatua eta prokuradorea ere izendatuta dauzkagu epaitegian gu defendatzeko".

### Indarrak batu

Bestalde, Arrasateko Udalean galdetuta, errekerimendurik ez dutela jaso esan aurreratu dute. Arrasaten ez, baina Euskal Herriko beste hainbat herrietara ere udaletzeko balkoian Espainiako bandera jartzeko agindua iritsi da. Horren harira, Elortzak adierazi du oraindik guztiak batera hitz egin ez badute ere, gustatu litzaiekeela denak elkartu eta indarrak batzea. "Iritzi bateratua oraindik ez daukagu, oraindik ez dugulako berbarik egin, baina nik uste dut denak bide beretik eta elkartuta joan beharko garela gai honekin", dio.

Amaitu aurretik, honakoa adierazi gura izan du Bergarako alkateak: "Auzia epaitegian dago orain, itxoiten gaude hurrengo pausua zein izango den, eta horren arabera, gu pausuk ematen joango gara".

## Larraitz Ugarteri 2.000 euro ordainduko dizkio EAJk

Hauteskundeetan Oñatiko EAJ haren alabaren argazki bat erabiltzeagatik zigortu du epaileak

E.A./M.B. | OÑATI

Bergarako epaitegiak erabaki du Larraitz Ugarte Gipuzkoako Diputazioko bozeramaileari 2.000 euro ordaindu beharko dizkiola Oñatiko EAJk, haren alabaren argazki bat erabiltzearen Udal hauteskundeetako propagandako buletinean.

Epaiketa azaroaren 29an izan zen. Ugartek 3.000 euroko kalte ordaina eta barkamen publikoa egitea eskatu zituen, eta fiskalak salaketa bertan behera uztea. Epaiketak, dena dela, aurrera egin zuen eta 2.000 euroko isuna ezarri dio Oñatiko EAJri epaileak. Epaia behin betikoa da eta EAJk adierazi du ez duela errekurrituko.

Esan bezala, joan den urteko maiatzaren 22ko Udal hauteskundeetan Oñatiko EAJren propagandan agertu zen argazki bat izan da salaketaren arrazoia. Irudi hartan ageri zen Ugarteren alaba, beste hainbat adin txikikoekin batera. Txaloka ludotekan aterata zegoen. Lehenago, Oñatiko Kontzejupe- tik udal aldizkarian argitaratu zen, beste testuinguru batean, ludotekaren berri emateko.

Epaileak argudiatu du argazkiak ez duela Ugarteren alabaren ohorea eta erreputazioa urratzen, baina bai eragiten diela haren interesei, salatua, EAJ, kasu honetan, adin txikikoaren irudiaz baliatzen delako onura bat lortzeko. Horregatik, ulertzen du epaileak, berezko interesa eta eskubidea dituela adin txikikoak, bere bizitza familiar edo pertsonalaren gaineko datuak edo irudiak erabiliak ez izateko edo argitara ez emateko.

### "Hanka-sartzea"

Lourdes Idoiagak, Oñatiko Udalean EAJren bozeramaileak eta azken Udal hauteskundeetan alkategaia izan zenak, onartu du epaia. "Hasiera-hasieratik adierazi genuen eta ulertu genuen hanka-sartzea izan genuela, intentzio barik egindako huts egitea. Eta prest izan ginen Ugarterekin akordiora heltzeko. Bagenekien egindako hanka-sartzeagatik isuna jasoko genuela eta saiatu ginen kalte-ordainak negoziatzen epaitegietara heldu aurretik. Baina beste aldeak ez zuten nahi izan", dio.

## Hilean behin batuko dute baserriko plastikoa

MONIKA BELASTEGI | ARRASATE

Gertu dago baserri inguruetan sortzen den plastikoa batzeko egutegia. Hilean behin batuko da aurten plastikoa. Honako plastiko mota, hain zuzen: siloa estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza; belar boletan erabiltzen den plastiko beltza; negutegietan eta ortuan lurra estaltzeko erabiltzen den plastiko beltza, eta negutegiko plastiko zuria.

Eskoriatzan Zarimutzeko bidegurutzean batuko dute. Aretxabaletan: Lausitan, Izurieta bidegurutzetik 100 metro-

ra; Bañuetxen, Mendiolako bide parean; eta Oroko bidegurutzean. Antzuolan Supide azpi aldeko aparkalekuan. Oñatin: Zanartun, Zuazola inguruan; Murgialdian, Asentsio ermitan; Olabarrietan, autobus geltokian; eta Eteo, atze aldean. Bergaran: Ugarrizan, granja parean; Muri-nondon, trenbide ondoan; eta San Juango eliza aurrean.

Bestalde, batze-egutegia honako hau izango da: urtar-rilak 24, otsailak 28, martxoak 27, maiatzak 22, uztaialak 24, irailak 25, azaroak 27 eta abenduak 18.

## Eroski supermerkatu berria dute Eskoriatzan

M.B. | ESKORIATZA

Supermerkatu berria dute Eskoriatzan. Eroskik frankiziatutako supermerkatua zabaldu zuen egunean Intxaurtxueta auzoan. 532 metro koadroko zabalera du Eroski/City berriak. Honako ordutegian egongo da zabalik: 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara.

### 108 establezimendu

Irekiera berri horrekin Eroskik 108 establezimendu ditu Gipuzkoa osoan; horietatik, 8 hipermerkatuak dira, 40 supermerkatuak, 31 bidala-agentziak, 4 Forum Sport kirol dendak eta 22 If lurrin-dendak. Denera, 1.530 lagunek egiten du lan horietan.



Eskoriatzarrek supermerkatu zabaldu berrian, erosketak egiten. | MIRIAN BITERI

**Txotx  
garaia  
zabalik**



**Iturrieta sagardotegia**

Arraga auzoa / Aramaio  
943 44 53 85 685 72 15 93  
[iturrietasagardotegia.blogspot.com](http://iturrietasagardotegia.blogspot.com)

Mikel Gantxegi | Mundukide fundazioko zuzendaria

# "Marrupako nekazariarentzat oso inportantea da 80 bat euroko kreditua jasotzea"

- ▶ Mozanbikerako mikro-kreditu programa dago abian
- ▶ Itzulketa-tasa oso handia da: %90 itzultzen da

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Mundukide fundazioa Mozanbikerako, Marrupako nekazariari mikro-kredituak emateko kanpaina egiten dabil. Mikel Gantxegi kidearen esanetan, "oso laguntza eragingarria da".

**Mikro-kredituen kanpaina egiten zabilzate Mundukide eta Euskadiko Kutxa. Zertan datza?**

Euskadiko Kutxako bezeroei gonbita egiten diegu mikro-kredituen programari laguntza emateko. Interesak %100ekoak dira.

Mozanbiken, Marrupan, dugun lan nagusia nekazaritza bultzatzea da. Mikro-kredituekin, nekazariari dirua ematen diegu haziak eta lanabesak erosteko, beste nekazari batzuei ordaintzeko...

**Programan, 20 eta 100 euro bitarteko kredituak proposatzen dituzue. Zenbat dirurekin lagundu daiteke?**

Libre uzten da, norbere aukera eta interesaren arabera. Hala, ekarpen puntual bat egin daiteke, edo hileroko ekarpenak egin. Zelan bizi dira Marrupako nekazariak?

Baldintza oso gogorretan. Mozanbikerako da munduko 10 herrialde

pobreenetariko bat, eta Marrupa da Mozanbikerako lurralde pobreenetariko bat. Bizi-iraupeneko nekazaritzatik bizi dira: lurretik ateratzen dutenaz, artoaz, tabakoa saltzeaz...

**Kreditu txikiarekin asko lagundu daiteke, beraz.**

Bai. Nekazariak beti gogorarazten digute, euren dirua izatea inportantea dela. Izan ere, urtean zehar eurek dirurik ia ez dute ukitzen; urtean 100 euro, batez beste. Horregatik, 80 euroko edo 150 euroko kreditua jasotzea oso inportantea da.

**Urteak daramatzazue formula honekin. Ze lortu da?**

Urtero 300-350 bat kreditu ematen ditugu, eta urtean bueltatzekoak dira. Gero eta kreditu gehiago ematen ditugu, nahiz eta neka-

zari kopurua antzekoa izan. Iaz, 27.000 euro eman ziren, eta batez besteko kreditua 85 eurokoa izan zen.

Itzulketa-tasa oso handia da, %90ekoa. Testuinguru honetan, emaitza oso-oso onak dira horiek. Konpromisoa bi aldeena da: nekazariak itzuli egiten dute jasotzen duten laguntza.

**Krisi ekonomikoa dela eta, jendeak gutxiago parte hartzen du mugimendu solidarioetan. Zuek ere igarri duzue hori?**

Ez, asko ez. Alde batetik, norbanakoen laguntza gure aurrekontu osoaren %5a da, eta jendeak eutsi egin dio konpromisoari.

Kooperatibetatik jasotzen dugun babesa oso garrantzitsua da. Krisi aurreko urteekiko jaitsi egin zen laguntza krisia hasi zenean; baina, orain, proportzioan aurrekoa baino handiagoa da. Hortaz, pozik gaude.

**Abantaila fiskalak daude: PFEZen %20-%30 arteko kenkaria.**

Bai, eta gomendatzen dugu Euskadiko Kutxako bulegora jo eta hango esku-orrian datu guztiak betetzea: hori oso garrantzitsua

guztien parean ipintzen dira. Kopuru horren azpitik ezin izango da deskonturik egin, hala nola dirutan ez den beste modu batera ordaintzeko edo norbere mantenu eta alojamendu gisa. Ordainketa edo konpentsazio horiek ezin izango dira soldata osoaren %30 baino handiagoak izan.

**Beste izozketa bat**

Askotariko Errenta Adierazle Publikoa (IPREM, gaztelaniako sigletan) ere izoztu egin du Gobernuak: 17,75 euro eguneko, 532,51 hileko eta 6.390,13 urteko. Lan arlotik kanpo, askotan erabiltzen da erreferentzia gisa: adibidez, bekak edo etxebizitzarako laguntzak eskatzeko.

DATUA

532,51

EURO HILERO

IPREM, Askotariko Errenta Adierazle Publikoa 532,51 eurotan izoztu du Espainiako Gobernuak. Lanetik kanpoko erreferentzia da.

DATUA

1.300

EURO HILERO

Frantzia eta Herbehereetan, hileko 1.300 euro da LGS; Espainian, konparazioa egiteko, hileko 748,30 euro da.



Mikel Gantxegi, kanpainaren esku-orria erakusten. | LEIRE KORTABARRIA

da gero kenkaria jasotzeko. Azpimarratu nahi dut ere oso laguntza eragingarria dela: dirua mikro-kreditu programarako doalako, eta itzultzen dena bertan inbertitzen delako. Merezi du laguntza hau ematea.

**"Urtero 300 kreditu ematen ditugu, eta iaz 27.000 euro banatu genituen"**

**Bestalde, Mundukidek ze erronka ditu aurtengo?**

Gure proiektuak, oro har, erritmo onean hazten dabilza, eta erakunde gisa ere, Mundukide asko sendotzen dabil. Aipatzekoa da lantaldea; kooperante talde profesional oso ona dugu, urte asko eta jarraitzeko espektatibekin; eta boluntarioen parte-hartzea, kooperatiben babes instituzionala... oinarri sendoa ditugu. Erronka dugu finantzaketarekin; ez gaude krisitik at, eta erakunde publikoen dirulaguntzetan eragiten digu horrek.

## Lehenengo aldiz izoztu egin dute gutxieneko soldata: hileroko 641,40 euro da

Aurten hasita ere, etxeko langileek gutxienez soldata hori kobratuko dute dirutan

L.K. | ARRASATE

Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata (LGS) eguneko 21,38 eurotan finkatu du Espainiako Gobernuak; hileroko 641,40 euro, alegia, eta urteko 8.979,60 (14 ordainketa). Beste herrialde batzuenarekin konparatzeko, hileroko 748,30 euro da (12 ordainketa).

LGS izoztea erabaki du exekutibo berriak, eta beraz sortu zenez, 1980tik, lehenengo aldiz gertatzen da hori. Exekutiboak bere zehurtasun neurrien artean hartu du hori. Horrenbestez, Euroguneko txikienetarikoaren artean dago Espainiako LGS: esaterako, Irlandan, 1.653 eurokoa da; Belgikan, 1.389; eta Herbehereetan eta Frantzia, 1.300 eurotik gorakoa.

**Dena, dirutan**

Berritasunak daude: aurten hasita, etxeko langileek gutxienez LGS kobratuko dute dirutan, lantalde horren lan-harremanen gaineko arauari jarraituz. Horrenbestez, besteren konturako beste langile

## SHS enpresa sortu da, osasun etxeendako

L.K. | ARRASATE

Mondragon Healthek enpresa berri bat eratu du, Smart Health Services (SHS), osasun etxeentarako erosketa eta horniduren logistikarako zerbitzu integratuak gestionatzeko. Osasun etxeentara bideratuta dauden hainbat zerbitzu elkartzen dituen negozio berri bat da, eta Korporazioko hainbat erakunderen gaitasunak batu eta bultzatuko dituen motorra izatea nahi da.

Bere helburu soziala da osasun materiala erosteko eta horniduren logistikarako aholkularitza zerbitzuak ematea. Premia hauei erantzun nahi die: erosketen logistikari, kontratazio elektronikoa, katalogoen arrazionalizazioari, eta abarri.

## Banku-produktu "toxikoen" gaineko guneak ditu ADICAEk

L.K. | ARRASATE

Lehentasunezko partaidetzek kaltetutako aurreztaileak batezko plataforma sortu du ADICAE banketxe, kutxa eta aseguruaren erabiltzaileen elkarrekin. "Azken asteotan, aurrezpen-produktu toxikoen-lehentasunezko partaidetzak, hipoteka-zedulak, bonoak, zor-agiriak... gaineko milaka kontsulta jaso" izanagatik hartu du erabaki hori. Interneten, *Colectivos.adicae.net* saila sortu du "informazio zehatza eta gaurkotua" emateko.

Gainera, aurreztaile txikiarekin zuzenean komunikatzeko bi webgune sortu berri ditu: *Defiendetuahorro.com* izeneko webgunea eta *Ahorro con derechos* Facebook-eko taldea.

Iñaki Gartzia | Mondragon Unibertsitateko ikerlaria

# "Umeengan hizkuntza garapen goiztiarra neurtu eta atzerapenak ekidin daitezke"

- Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda izeneko tresna garatu dute horretarako
- MUko ikerlariek parte hartu dute, besteak beste, proiektuan; tartean, Iñaki Gartzia

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Kontseiluak antolatuta, Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda izeneko tresna aurkeztu zuten joan den abenduan Mondragon Unibertsitateko (MU), Salamancako Unibertsitateko eta EHUko hainbat ikertzailek; tartean, Eskoriatzako Huheziko irakasle Iñaki Gartzia dago. Haur txikien euskara garapena neurtu dute horretan. Azterketak emandakoaz egin digu berba.

**Nondik sortu zen ikerketa hori egiteko ideia?**

2001. urtean elkartu ginen MU, EHU eta Salamancako ikertzaileak; hortaz, hamar bat urte daramatzagu haur euskaldunen komunikazio garapenaren bueltan ikertzen. MacArthur Fundazioak ingelesez sortutako Communicate Development Inventories (CDI) izeneko tresna euskarara egokitzeko lan egin dugu proiektu horretan. AEBetan orain dela 15 urte inguru sortutako tresna da hori.

**Ze asmorekin jarri zenuten abian?**


Euskal Herriko eskoletan askotan aipatzen da euskara hizkuntza gutxitua dela, eta beste hizkuntzekin alderatuta, baldintzak kaskarragoak direla. Espainian beste hiru talde CDI tresnak katalan, galego eta gaztelera egokitzen ari zirela jakin genuenean, euskararekin ere egitea erabaki genuen; Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda (KGNZ) deitzen da egokitzapena. Denera, 60tik gora hizkuntzatarra egokitu dira.

**Nolako izan da neurketa?**

Galdetegiak erabili ditugu; gurasoek horietan erantzundako informazioan daude oinarrituta neurtetako. Datu-bilketa egiteko Euskal Herri osoko haurtzaindegi eta haur eskoletan harremana daukagu. Galdegegia pasatzeko baimena eskatzen diegu, eta, eskolen laguntzarekin, gurasoengana iristen gara. Seme-alaben datuak betetzen dituzte galdetegi horietan, eta gero guk egiten duguna da hori estatistikoki aztertu. Helburua da hizkuntzaren garapen goiztiarra neurtzea, umeen hizkuntza-garapenean izan litezkeen atzerapenak aurreikus-teko, eta, neurri egokiak hartuta, atzerapenak ekar ditzaketan kalteak ekiditeko.

**Nolakoak dira gurasoek bete behar dituzten galdetegiak?**

Umeen adinaren arabera dira. Hiru tarte ditugu: lehenen-



Iñaki Gartzia irakaslea, egubakoitzean, Eskoriatzako unibertsitatean, aurkeztu berri duten tresna eskuetan. | MIRIAN BITERI

goa, 8 eta 15 urte bitarteko haurrei zuzendutakoa eta *Hitzak eta Keinuak* izena duena; bigarrena, 16 eta 30 artekoena, *Hitzak eta Esaldiak* delakoa; eta hirugarrena, 30 eta 50 hilabete artekoa.

Lehenengo tarte KGNZ 1 da. Oso haur txikiak dira, eta horien kasuan ekoizpen lexikoa neurtzen dugu, adin horietan oso urria bada ere; baita ulermena ere. Horretarako hitz zerrenda zabalak eskaintzen dugu (397 hitz) 19 eremu semantikoetan banatuta. Horretaz gainera, ahozkoa ez den komunikazioaren garapena ere aztertzen dugu. Azken hori neurtzeko keinuen bidezko komunikazioaz baliatzen gara.

Bigarren tartean, KGNZ 2 delakoa, haurrak helduagoak dira, eta tarte horretan ekoizpena hainbat alderditan neurtzen dugu: lexikoa; hain justu ere, hiztegia; morfologikoa; eta sintaktikoa, aditz jokatuaren erabilera eta bi hitz baino gehiago lotzea. Azkenengo zatian, KGNZ 3, bigarrenean landutako alder-

di berak sakonago aztertzen ditugu. Hirugarren urtearen inguruan komunikazio garapenean oso aldaketa interesgarriak geratzen dira.

**Orain arte zenbat umek parte hartu izan dute?**

Jaso ditugu 3.000 bat neska-mutikoren datuak. Esan bezala, Euskal Herri osoan banatuta dauden umeen datuak dira. Horren harira, hasieran, gure taldean

**"CDI izeneko tresna euskarara egokitzeko lan egin dugu"**

**"Dagoeneko diagnostiko tresna moduan erabiltzen da eskoletan"**

Sehaskako hainbat irakasle izan ziren eta Ipar Euskal Herrikoen datu bilketa erraztu ziguten. Jasotako datuak aztertu eta Estatuko hizkuntzekin eta Europa mailan hainbat konparaketa egin dugu.

**Alderik igarri duzue horren harira?**

Ez. Emaitzak antzekoak dira. Espainian galegoaren eta katalanaren garapenarekin alderatu ditugu eta antzekoak dira.

**Komunikazio garapenaz gain, garapen horretan hainbat aldagairen eragina aztertu duzue, ezta?**

Hala da: sexua, amaren hizkuntza maila eta euskararen maiztasun maila. Betidanik entzun izan ditugu mitoak. Esaterako, neskatok arinago garatzen dutela komunikazio garapena. Gure emaitzetan ez dugu ikusi. Sexuaren arabera nesken aldeak egon arren, ez dira esanguratsuenak. Beste bi aldagaietako aldeak, ordea, esanguratsua dira. Horren harira, kontuan izan behar dugu Euskal Herriko

umeak errealitate elebiduneari bizi direla eta horrek eragina duela. Hiru talde bereizten dira horren harira: euskara nagusi dutenak, orekatua eta nagusiki gaztelera dutenak. Talde horiek alderatuta euskararen komunikazioaren garapenean alde handiak daudela ikusi da.

**Hemendik aurrera zer?**

Udako Euskal Unibertsitatearen (UEU) bidez, KGNZ 1 eta KGNZ 2 delakoen eskuliburuak argitaratu genuen; dagoeneko eskoletan erabiltzen den diagnostiko tresna bat da hori. Horren harira, esan beharra dago bi eskuliburu horiek salgai daudela UEUren webgunean; eta horien bertsio laburra debalde dago Uztaroren webgunean. Orain, KGNZ 3 egokitzapenarekin gabilta. Galdetegia diseinatuta dugu eta orain tresna horren fidagarritasuna eta baliagarritasuna neurtzen gabilta. Bestalde, diagnostiko tresna izateaz gain, ikerketarako tresna ere bada, eta horretan segituko dugu.

## ZABALIK

**DIEGO MARTIARTU**  
http://goiena.net/iritzia/



## Zapaten egia

**E**gia esan, ez nekien nondik zetorkidan goizero-goizero ohetik jaiki eta zapatak janterakoan sentitzen nuen ezinegona. Baina etorri zen egun bat onddo baten barruan iratzartu nintzena. Amets psikodeliko eta haluzinagarriak izan nituen sukarr mikologikoari esker, eta onddoaren barrutik zapatei begiratu nienean, orduantxe entzun nituen oinetakoen oihi lazgarriak, onddotik kanpoko bizimodu arruntean entzun ez baina sumatu sumatzen nituenak.

Zapata bati telefonoari bezala belarriari josirik eutsiz gero, ez dituzu itsasoko olatuak entzungo; bai ordea zeuri zuzendutako hamaika garrasi isil.

Kontua da arreta jartzea, begiak ixtea eta zapata zuloaren eztarri sakonari aditza. Bai handia zapaten eramana! Bai itzela jasan behar duten zama! Gure zapatak dira gizakia bere atzeko oinen gainean eta beste animalia guztien gainetik zutitu izana beren larruan etengabe ordaintzen ari direnak. Bai, harrokeria hori guztia ezkututzen da egunero berritzen dugun ekintza ustez ezdeus honetan: zapatak jantzi eta sokaz lotzea, eta haien ahoa bortxaz ixtea, berez ez dago-kigun hankabiko jarrera hartzeko.

Zutikako jarrera horretan tematzeak badauka hainbat kalte: giza-oinen kirats betierekoa, kailuak, barizeak eta, ai!, nire juanteak.

Badira ondorio okerragoak ere: bateko, lau oinen gainean bizi ginen garaian ahal genuena baino askoz aurrerago begiratu ahal izatea eta horrek berekin dakartzen era guztietako antsietate eta neurosiak; besteko, lau oinen gaineko garaian ahal genuena baino askoz atzerago begiratu ahal izatea eta horren ondoriozko saminak, egindakoengatik zein egin bakoengatik minak, nostalgiak eta tristurak: etorkizun denaren bizimina, iraganaren oroimena eta, atzen finean, oraina bizi ezina.

Bihar goizean erreparatu egiezu ondo zure zapatei eta Munch-en oihiaren irudi bana ikusiko duzu ezker-eskuma.

**"Bai handia zapaten eramana! Bai itzela jasan behar duten zama"**

## USTEAK USTE

**MIRARI ALTUBE** | aretxabaleta@goiena.com

## Etxean (herrian) ezin pasatu

**G**ure etxean lau patinete daude. Ikastetxera joan-etorriak bizkorrago eta erosoago egiteko dituzte umeek. Baina etxera iritsitakoan dagokien lekuan eta behar bezala utzi beharrean logelako atean botata utziz gero, zer? Ikastetxera bizkorrago joan, eta etxean ezin pasatu.

Gure herrietan etxe gehienetan daude automobilak, eta askotan bat baino gehiago. Auto horiek bizkorrago eta erosoago joateko erabili izan ditugu, baita herrian bertan ere: musika eskolara, futbol zelaira, kiroldegira... Eta toki horietan edozein modutan aparkatuta uzten baditugu, zer? Autoan eroso eta bizkor joan, eta gero oinez ezin pasatu?

## KALE INKESTA

Sagardo denboraldia hasi da. Joango zara sagardotegira?



**ISABEL KIRZE**  
ARRASATE

"Ez daukat asmorik sagardotegira joateko, baina ikusiko da, beharbada Aramaioa joango gara, hurbilago dago-eta".



**NEREA AGIRRE**  
OÑATI

"Bai, badugu urtean behin Hernanira joateko ohitura. Sagardoa ez zait bereziki gustatzen baina sagardotegian egoten den giroa gustuko dut".



**JUANITO LIZARRALDE**  
ARRASATE

"Sasoi baten urteror joaten ginen Jose Antonio Zelaia sagardotegira, Astigarragara. Aurten ez gara joango".



**XABIER ITURBE**  
ARRASATE

"Ez daukat ohiturarik sagardotegira joateko, orain hiru bat urte joan ginen arren. Gainera ez naiz sagardozalea, ez zait gustatzen".

## HANDIK ETA HEMENDIK

## Oinarrizko kultura, prestakuntza eta ezaguera

**Luis Aranberri 'Amatiño'**  
http://eibar.org/blogak/amatiño/

Geroztik beti pentsatu izan dut Madrilgo nerabea ezjakintasunaren morroi baino ez zela, ni neu oinarrizko kulturaren lekuko, Juanan Larrañaga prestakuntza fisikoaren adierazgarri eta alemaniarra, berriz, ezagueraren jabe. Aurten beteko dira 25 urte Real Sociedad donostiarrak Futbol Errege Kopa irabazi zuela. Garai hartan Juanan Larrañaga, Musti Mujika eta Luis Fernando Dadie jokalariekin topo egin nuen, oporretan, Lanzaroteko hotel berean. Artean ni gazte samarra nintzen eta eurak dezente gehiago. Eginhalak eginagatik ere, ezin izan nion *Larrari* squashean irabazi. Kopako txapeldun, gorputzaldirik onenean zegoen, sekula izan den Realik onenaren baitan. Ostaturko igerileku ondoan lasai asko zertxobait irakurtzen ari nintzela, nerabe madrildarra hurreratu zitzaidan, erraketa parea eskutan zuela, ea squashean elkarrekin egingo ote

genuen galdezka. Baietz erantzun eta bizpahiru partida jokatu genuen buruz buru. Denak irabazi nizkion. Gazteak zahartzat jo ninduen arren, ez zekien gizajoak Baztango pilota-txapelketetan zuriz aritutakoaren aurka ari zenik.

Hartan ari ginela, *Larra* azpeitiarra agertu zen: "Joño, zer egiten dek hik hemen? Eta hik? Jokatu al diagu?" Eta jokatu egin genuen. Tira, hobeto esan, berak jokatu zuen. Nik tarteka-marteka baino ez nion tantorik egiten eta berak, ostera, matxinsaltotzat hartu ninduen, bazterrik bazter, adurra zeridala, lehortu behararen beharrez. Ondotik etorri zen, ordea, alemaniar handikote, garagardo-edale, tripontzi eta itxurabakoa, eta keinu egin zion Urolako semeari jokatzeko jarraitu nahi ote zuen. Kopako txapeldun lirain eta gihartsuak baietz erantzun eta hantxe ekin zioten elkarri mokoka. Ez zuen, ordea, norgehiagokak larregirik iraun; teutoi garaua jarri zen, bai, kantxa erdi-erdian eta ez zuen aurrerantzean handik atera beharrik izan. Eskumutur hutsez jo alde batera, jo bestera, zapla batetik, dsanba bestetik, gure *Larrak*, izerdi-bitsetan, mortalak eta bi egin behar izan zituen hutsaren hurrengo lortzeko. [...]

## Misterioak

**Anjel Lertxundi Esnal**  
http://berria.info/blogak/lertxundi/

Euskal mundu sinbolikoaren biltzaile eta ikerlariak (Barandiaran, Azkue, Webster, Aita Donostia, Cerquand...) zazpi probintzietako bazter batetik bestera zebiltzanean ahozko tradizioa jasotzen, *topos* berdin asko topatzen zuten han eta hemen, labe berdinetik edo berdintsutik irtendako gozopilak aurkitzen zituzten Zuberoako puntetan eta Urbasako bordetan. Nola egiten zuten transmisioa, nolako zen kantuen, ipuinen, jolasen joan-etorrien sarea? Merkatuei esker ote zen, Tolosatik Iruñara edo Iruñatik Sangotzara erre-erre mandako zebiltzan saltzaile, buhame, morroi eta perratzaileen ahotik? Nola, bestela? Ez dakigu, baina misterioak bete da transmititu zigutenaren barne-koherentzia eta, aldi berean, ugaritasun koloretsua. Ez zuten eskola-sistematik, ez zuten telebistatik, ez zuten internetetik. Aukerez beteriko beste mundu batek bizi gaitu. Ezin eutsi, ordea, mendeen lanbroetatik iritsi zitzaigun mirariari.

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea  
E05 Basabe Poligonoa,  
20550 ARETXABALETA  
**Lehendakaria** Estepan Plazaola  
**Zuzendari nagusia** Inazio Aregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate  
**Erredaktore burua** Monika Belastegi  
**Sailkatu arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Inaki Iturbe (Disenaua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Asteburuko edizio arduraduna** Goiatz Arana.  
**Maketazioa** Kepa Martelo, Imanol Soriano.  
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zortza Martin, Itsaso Berezibar, Imanol Elortza.  
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate  
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA**  
ARRASATE 20500:  
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa  
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00  
arrasate@goiena.com

**ORDEZKARITZA**  
ARETXABALETA 20550: Durana 11  
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54  
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05  
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com  
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550  
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50  
harpidetza@goiena.com  
**Legu Gordailua:** SS-0088/04  
**ISSN:** 2173-707X  
**Tirada:** 5.000 ale.  
**Difusioa:** 4.383 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.



**Eusko Jaurilaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



# GOIENAKO e-postak

## HERRIAK

- Antzuola:** antzuola@goiena.com  
**Aramaio:** aramaio@goiena.com  
**Aretxabaleta:** aretxabaleta@goiena.com  
**Arrasate:** arrasate@goiena.com  
**Bergara:** bergara@goiena.com  
**Elgeta:** elgeta@goiena.com  
**Eskoriatza:** eskoriatza@goiena.com  
**Oñati:** oinati@goiena.com

## GAIK

- Berriak:** berriak@goiena.com  
**Kirolak:** kirola@goiena.com  
**Kultura:** kultura@goiena.com

## SAILAK

- Papera:** papera@goiena.com  
**Telebista:** telebista@goiena.com  
**Internet:** webmaster@goiena.com  
**Irratia:** irratia@goiena.com  
**Publizitatea:** publi@goiena.com  
**Harpidetza:** harpidetza@goiena.com  
**Goiena Kluba:** kluba@goiena.com

Hartu kontuan!

## UDAL ORDEZKARI IZANDAKOAK

**Luis Abajo** | EAJko zinegotzia Bergaran (1987-1999 eta 2003-2007)

- ▶ Hamasei urte egin zituen Udalean, horietako asko Kultura batzordeko buru
- ▶ Independente gisa joan zen aurrena alderdiaren zerrendan; gero, afiliatu egin zen
- ▶ Musika du zaletasun handia, eta gogoan ditu arlo horretan Udalean egindakoak

## "Gauza ona da jakitea beste batzuk pozik egon zirela nirekin; ni ere hala egon nintzen eurekin"

JULEN IRIONDO | BERGARA

Udaletxe atarian egin dugu hitzordua Luis Abajorekin. Kanpoan hotz, eta barrura sartu gara elkarriketa egitera. Pasilloan jardun dugu, aurrera eta atzera zebiltzan hainbat lagunen agur eta agur artean.

**Hona sartzea etxeansartzea moduan izango da zuretzat, hainbeste urte udaletxean eginda...**

Bai, oraindik ere egundoko harremana dut hemengo jendearekin, lagun asko ditut. Gauza ona da jakitea beste batzuk pozik egon zirela nirekin; ni ere hala egon nintzen eurekin.

**Hamasei urte, urte asko dira.**

Bai, asko da, batez ere familia-erendako. Ez nuen erabat alde batera utzita, baina pazientzia handia izan dute eurek ere. Baina ni pozik nenbilen, eta esaten zidaten: 'Zu pozik bazabiltz, segi aurrera'.

**Eta zerk bultzatuta ibili zara hainbeste urte? Politikagatik ala herriagatik?**

Herriagatik. Ni beti politikan sartzearen kontrakoa izan naiz. EAJn afiliatu nintzen Udalean sartu nintzelako, baina lehen agintaldian independente gisa sartu nintzen. Gaur egun berdin pentsatzen dut; inoiz esan didatenean EAJn arduraren bat hartzea-edo, nik beti...

**Kultura arloan ibili zara. Aurrez ere bazenuen ibilbiderik kultura arloan?**

Bergaran egon zen gazteen mugimendu bat; *Verdury hall* deitzen genuen hartan Parrokiako Gazteen Elkarteko zuzendari izan nintzen; lokal bat utzi zigun Elizak eta gauzak antolatzen hasi ginen, musika kontuak-eta.



Luis Abajo, udaletxeko arkupeetan. | J.I.

**Kultura eskaini zizuten, eta onartu zenuen hortaz.**

Bai, Bandarekin, Orkestrarekin... ibili naiz. Musika asko gustatzen zait, eta horregatik sartu nintzen,

**"Ez nuen erabat alboratu familia, baina pazientzia handia izan zuten"**

**"Herriagatik ibili naiz Udalean; politikan sartzearen kontrakoa izan naiz"**

batez ere, Udalean.

**Eta zer egin da Bergaran musika arloan denbora honetan?**

Gauza asko. Lehenengo agintaldian, Jose Luis Elkoro alkate zela, Anaje Narbaiza zen Kulturako buru. Oso ondo moldatzen nintzen harekin, eta hark ezin bazuen nik eramaten nituen kultura kontuak. Bandarekin eta Orkestrarekin leku askotan egon ginen, Huelvan adibidez. Alfredo Gonzalezek egin zituen *La Mision* filmako doinuen partituren konponketak, eta Huelvako musika bandako zuzendariak entzun eta hara gonbidatu gintuen. Aste Santu baten egon ginen Huelvan; bederatzi kontzertu egin genituen hango herrietan, eta arrakasta handia izan genuen. Oroitzapen hori dut.

**Beste irteera batzuk ere egin zenuen...**

Bai. Bartzelonan egon ginen Aritzetairekin, hango abesbatza batekin trukea eginda. Orduan gehia-

**"Bandarekin eta Orkestrarekin leku askotan egon ginen, Huelvan adibidez"**

**"Auditorioak aurrera egin ez izana pena da; frontoia izan da Bergaran auditorio"**

go egiten ziren trukeak, orain ez da halakorik egiten. Italian ere egon ginen Orfeoiarekin, eta trukean hango banda etorri zen Bergarara.

**Orkestra berezia da zuretzat.**

Bai. Orkestra musika eskolan zegoen gure garaian, baina musika eskola asko hazi zen eta Orkestra-eta eramateko diru eta gauza asko behar ziren. Udaletxetik esan genion Orkestrari lagunduko genuela, eta horri esker dugu oraindik orkestra, besteak beste, udaletxearen laguntza hari esker.

**Eta zu Kulturako buru izan zarela gauzatutako beste proiekturen bat?**

Bada, Aroztegi erakusketa aretoa ere jarri genuen martxan. Kutxarena zen lokala, eta udaletxeak erosi egin zion. Beno, diru oso gutxiren truke, ia eman egin zuen lokala Kutxak. Beste proiektu bat ere izan genuen azken agintaldian, Seminarioan auditorioa egiteko.

**Hori egin gabe utzitakoetan bat. Baduzu pena?**

Bai, badut pena hori. Nik uste frontoia izan dela Bergarako auditorioa. Zabalotegi ere oso txikia zen, nahiz eta orain ondo dagoen zinerako.


**Zinea diozula, izan zen zalaparta horrekin ere.**

Novedades partikular batek eramaten zuen, baina udaletxeak diru asko sartzen zuen. Partikular hark ezin zuela eramanez, eta udaletxeak ere beste gauza askotarako behar zuen dirua. Lokala ere partikularra zen, eta horregatik ez zen gehiago egin. Ez ginen konpondu eta itxi egin zen zine aretoa.

## IKURRINAREN LEGEZTATZEA

GOIENA TELEBISTA | ERREPORTAJEA

MARTITZENA, 20:48



# HERRIAK

ARAMAIO

## Otsail erdialderako bukatuko dituzte hiltegi zaharreko lanak

- ▶ Baranda, suteen kontrako babes, hezetasun-kengailua eta elektro-osmosia falta dira
- ▶ Bi solairu eta komun publikoa izango ditu; lehenengo solairuan artxiboa kokatuko dute

MIREIA BIKUÑA | ARAMAIO

Aramaioko hiltegi zaharra eraberritzeko lanak otsail erdialderako bukatuko dituzte. 2011ko urtarril bukaeran hasi ziren lanak, eta atzerapenez bukatuko dute. "Iazko ekainerako bukatu behar zuten eraberritzea, baina hasierako proiektuan hainbat aldaketa egin zituzten. Obren zuzendaritza eroan duen arkitektoak hainbat aldaketa egin zituen. Gainera, ekainean gobernura heldu ginenean, ikusi genuen aurrekontua gehiegizkoa zela, eta hainbat murrizketa egitea erabaki genuen. Dena den, lanak ondo-bidean badoaz, otsail erdirako bukatuta egongo da hiltegi zaharra", esan digu Andoni Solupek, Hirigintza zinegotziak.

Hiltegi zaharra eraberritzen bukatzeko geratzen zaizkien lanak hauek dira: lehenengo solairura igotzeko eskailerako baranda, suteen aurkako babes sistema, hezetasun-kengailua eta elektro-osmosia ipintzea.



Hiltegi zaharrak betiko itxura dauka kanpotik, baina egurrezko elementuak ipini dizkiote apaintzeko. | JOKIN BEREZIARTUA

### Balkoirik ez

Egin dituzten murrizketen artean erabaki dute balkoirik ez ipintzea. Eraikinak egun ez dauka balkoirik, eta berria ipintzeak asko garestituko luke aurrekontua. "Hasierako proiektuan ez zen balkoirik aurreikusten, baina ipintzeko aukerak aztertu genituen. Balkoi berria ipintzea oso garestia da, eta, oraingoan, hala utziko dugu. Akaso, urteekin, 2011ko likidazioarekin dirua badaukagu...", dio Solupek.

### Kreditu aldaketa

Abenduaren 2an egindako osokoan, hiltegi zaharraren eraberritze lanak ordaintzen bukatzeko kreditu aldaketa eskatzea adostu zuten. "3.000 euro bakarrik genituen, eta lanak ordaintzen bukatzeko 25.000 euroko kreditua eskatzea erabaki genuen. Hori horrela, aurrekontua 340.000 euro inguru izango da", diote Aramaioko udal ordezkariak.

Hiltegi zaharra eraberritzeko hasierako aurrekontua 316.000 euro zen. Horietatik, Erein eta Arabarri elkarteek 140.000 euro eman zuten.

**DATUA**

**340.000**

EURO

Hori da hiltegi zaharra eraberritzeko erabiliko duten aurrekontua.

### Lehen solairuan artxiboa

Artzamendi Construcciones SA enpresak dihardu lanok egiten. Hiltegi zaharrak kanpotik itxura berbera izango du, baina egurra erabili dute estetikoki apaintzeko. Bi solairu ditu, eta banaketa zehaztuta dute: beheko solairuan askotariko ekintzak antolatzen gela txukundu dute eta goiko solairuan artxiboa kokatuko dute. "Udaletxean dago Aramaioko artxiboa. Lekua txiki geratu da, katalogazioa ez da egokiena, eta, gainera, erreka ondotik pasatzen da. Hori horrela, hezetasun handia dago", esan digu Solupek.

Oraindik zehaztu ez dutena da noiz aldatuko duten artxiboa lekuz: "Lan nekeza izango da,



Lehen solairura igotzeko baranda datozen egunetan ipiniko dute. | J. BEREZIARTUA

ESANAK

**"Proiektua aldatu dugu aurrekontua murrizteko"**

**"Lehen solairuan artxiboa kokatuko dugu"**

**"Hiltegi zaharrak komun publiko bat izango du"**

ANDONI SOLUPE | HIRIGINTZA ZINEGOTZIA

dokumentu asko daudelako. Ondo antolatu beharko dugu, baina ez daukagu datarik. Aurrerago egingo dugu".

### Komun publikoa

Beheko solairuan Aramaio Base-ri Berriko (ABB) kideek euren produktuak saltzeko eta trukatzeko lekua izango dute. Oraingoan, eurek erabiliko dute, baina aurrerago beste erabilizailerik batzuzko izango ditu. "Oraindik ez dugu zehaztu ze erabilera izango duen. Erakusketa gela izan daiteke edo beste ekintzaren bat antolatzen gunea ere bai", esan digu Hirigintza zinegotziak.

Hiltegi zaharrak izango duen beste erabilera –ABBkoendako eta artxiboarendako leku izateaz gain– komun publikoarena izango da. Eraikinean egokitu duten komun publikoa izango da. "Edonork erabili ahal izango du, eraikin barruan ekintzaren batean egon, edo kalean paseatzen egon. Zerbitzu hori ere emango du hiltegi zaharrak", diote. Komun bakarra dauka eraikinak, eta etxean ditugun komun antzekoa da, baina ate zabala goarekin.



Bergarar askok neurtu gura izan zuten birziklatzeari buruz duten ezagutza. | JULIO CALLEJA



Emakumezko bat Oñatiko erakusketako ikus-entzunezkoa jarraitzen. | J.C.

## BERGARA ETA OÑATI

# Zuzen birziklatzera ailegatzeko bidea geratzen da oraindik

Hala erakutsi du Bergaran jarritako karpak; Oñatin, bestalde, zaborra gutxiago nola sortu ikasi daiteke



**PILI AZKARATEAZKAZUA**  
OÑATI

"Oso interesgarriak dira gisa honetako ekimenak. Zaborra gutxiago sortzeko eta birziklatzeko borondatea izanda ere, zalantzak sortzen dira askotan eta horrelako egitasmoen bitartez beti ikasten da zerbait".



**JOSEBA PRAT**  
BERGARA

"Nik badut birziklatzeko ohitura; ez dit aparteko endredorik suposatzen. Baina kale-garbitzailea naiz eta egiteko horretan ikusten dudanarengatik esango nuke kontzientzia gehiago izan beharko genukeela".



**LEIRE GABILONDO**  
BERGARA

"Beira birziklatzeko karpak jarritako jolasean parte hartu dugu eta, egia esan, izan ditugu zalantza batzuk; ingurugiro-hezitzaileak azaldu digu kontua eta lehen baino gehiago dakigu orain. Etxean denok birziklatzen dugu".

## GOIATZ ARANA | ARRASATE

Hondakinekin dugun arazoa ez da nolanhikoa eta, herritarrak gero eta kontzienteago diren arren, oraindik asko geratzen da ikasi eta egiteko. Zeregin horretan, debagoiendarrek bidelagun dute Mankomunitatea; azken astean, esaterako, bi ekimen abiarazi ditu.

"Nora bota behar da edalontzi bat? Eta edukiontzi horira ontziak bakarrik?..." Hamaika galdera daude airean, nahiz eta askok pentsatu gaia ondo menderatzen dutela. "Ondo birziklatzen dakie la esanez gerturatzen zaigu jende asko, baina ezagutza neurtzeko prestatu dugun jokoan parte hartzerakoan konturatzen dira zalantza asko dituztela", azaldu digu

beira birziklatzeko karparekin Bergarara etorri den ingurugiro-hezitzaile batek. Dio jendeak borondate ona duela, birziklatzearen garrantzia barneratuta duela eta animatuta hurbiltzen dela gisa horretako guneetara, baina oraindik ere badugula zer ikasi. Ikasten jarraitzera animatu ditu interesatuak, baina mezu bat argi utzita, beti ere: "Hobe da nora bota ez dakigun hori zakarrontzira eramatea beste edukiontziren batera beharrean, ez dagokion tokira botatzen dugunak asko zailtzen duelako tratamendu prozesua", esan digu.

Zapatuan Bergaran izan zen karpak Arrasaten egingo du geldialdia bariku arratsaldean, eta Aretxabaletan zapatu goizean.

**Erakusketak Oñatin**

Astean zehar Oñatiko kultura etxera hurbiltzen denak, bestalde, hondakinen sorreraren prebentzioari buruzkoak ezagutuko ditu; panel eta ikus-entzunezko bidez, informazio zabala eskaintzen da bertan. Oñatiko epealdia agortutakoan, Bergarara tokialdatuko dute erakusketa.

## ESKORIATZA

## Eskoriatzako herrixa ere dantzan da!

Patxi Monteroren eskutik, *Herrixa dantzan* ekimena izan zen atzo Eskoriatzan eta sekulako arrakasta izan zuen: ia Debagoiena osoko 70 lagun batu ziren dantzarako. Eskoriatzako lehen saioa izan zen atzokoa eta unibertsitateko kaperan egin zuten, baina hurrengo hitzordura jende gehiago azaltzen bada, leku handiago bat aurkitu beharko dute denak sartu ahal izateko. Hileko hirugarren domekan egingo dituzte saioak.



## ESKORIATZA

# Atxorrotzen jarritako oroitarriarekin hasi dituzte Nafarroako Erresuma aldarrikatzeko ekitaldiak

MIRARI ALTUBE | ESKORIATZA

Debagoieneko 1512-2012 Nafarroa Bizirik lantaldeak zapatuan hasi zituen Nafarroako Erresuma eza-gutzera eman eta aldarrikatzeko lehen ekitaldiak. Atxorrotzera ibilaldia egin eta oroitarria jarri zuten bertan goiz partean, 200 bat lagunek.

## Oroitarria Atxorrotzen

Nafarroako Erresuma lege propioak eta estatus juridikoa izan zituen herria izan zela gogor-razi gura dute 1512-2012 Nafarroa Bizirik taldeko kideek; izan ere, guztiz ahaztuta geratu da euskaldunon oroimenean. Eta erresuma horretako gotorleku izan zen Atxorrotz mendian hasi zituzten ekitaldiok. Banderak bizkarrean hartuta, jende talde-txoa joan zen zapatu goizean mendira; gehienak debagoien-darrak ziren baina Nafarroatik etorritakoak ere bazeuden. Atxorrotzen izandako gazteluaren historia jasotzen duen oroitarria jarri zuten bertan, Pedro Lasagabaster alkate ohiak hain zuzen; eta Ino Galparsoro, Eusebio Villar eta Anjel Bergaretxe ere -Arrasate, Leintz Gatzaga eta Aretxabaletako alkate ohiak- han izan ziren. Musika, bertso eta dantzekin borobildu zuten ekitaldi hunkigarria.

Arratsaldean, oster, mahai ingurua izan zen Ibarraundi museoa, Atxorrotzeko indusketen ardura duen Iñaki Sagredo adituarekin eta Joseba Asiron historialari eta irakaslearekin. Eta gauean, Nafar Jaia ospatu zuten Inkernu tabernan, hainbat musikari lagun; tartean, Petti eta Joseba Irazoki.



Herritarrak Atxorrotzen zapatu eguerdian, 1512-2012 Nafarroa Bizirik taldeak antolatutako ekitaldia hasteko gertu. | IMANOL SORIANO



**IÑAKI SAGREDO**  
IKERLARIA

"Independentzia zuen herri batendako trauma historikoa izan zen orain dela 500 urte gertatua. Atxorrotzeko historia berreskuratuta, Nafarroako Erresumaren berri eman gura dugu".



**JUAN LUIS ZUBIZARRETA**  
ANTOLATZAILEA

"Ekitaldi hau hasiera da eta urtean zehar asko egongo dira, tartean Nafarroa Bizirik-ek egingo duen ekitaldi nazionala, ekainean; hala, gure aldarrikapena zabalduko dugu".



**EUKENE MONDRAGON**  
ARRASATEARRA

"Orain dela 500 urte gertatutakoa gogoratu gura dugu. Gure historia inoiz ez digute erakutsi eta asmoa da berreskuratzea, gure ondorengoek gutxienez jakin dezaten".



**ANJEL BERGARETXE**  
ARETXABALETARRA

"Historia gogoratzea komeni da, bestela errepikatzen kondanatura gaude. Kontzientzia hartzen hasi eta urte askoan ezkatutakoa ikasten hasteko ordua da".



**JOSE ANGEL PETRALANDA**  
ESKORIATZAKO ZINEGOTZIA

"Nafarroako Erresumaren burujabetza aldarrikatzeko ordua da eta hor gabilta lanean. Atxorrotzeko aztarnak garrantzitsuak dira eta indusketekin jarraitzeko asmoa dugu".



ARETXABALETA

MIRARI ALTUBE

## UDAREN webgunea abian da

Egubakoitzean aurkeztu zuen Aretxabaleta kirol elkarteak webgunea -[www.udaretxabaleta.com](http://www.udaretxabaleta.com)-, ekitaldia eginda udaletxe zaharrean. Zuzendaritza batzordeko hainbat kide elkartu ziren eta herritarrak ere bai. UDAREN asmoa da aste bukaeretakotako futbol partiduen jarraipena egitea eta elkarteko beste sail batzuetako informazioa jasotzea. Argazkiekin eta bideoekin osatuko dute, gainera, webgune berria.



ARETXABALETA

JULIO CALLEJA

## Ludoteka, gaztetxoek topalekua domeketan

Atzo, urtarrilak 15, zabaldu zuten ludoteka 8 eta 12 urte arteko gaztetxoendako, eta martxoaren 25a bitartean domeka arratsalde guztietan (17:00-19:00) izango dute aukera toki epelean eta lagun giroan egoteko. Atzo merienda eskaini zieten hezitzaileek eta elkar ezagutzeko jolasak egin zituzten. Gaztetxoek gustuko ekintzak antolatzea da asmoa eta beste barik berriketan egoteko topalekua ere izango da.

# Etxe hutsak aztergai, kopurua zehazteko

Arrasaten hutsik dauden etxeen ahalik eta argazkirik zehatzena atera gura du Udalak, 2012an zehar

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

2012rako aurrekontuetako partida bat Arrasaten hutsik dauden etxebizitzaren gaineko ikerketa bat egiteko bideratuko du Udalak. Hau da, etxe hutsen kopurua eguneratu gura du Hirigintza Sailak. Omer Arregi zinegotziaren arabera "ezinbestekoa" da azterketa hori egitea aurrera eramango duten etxebizitza-politika zehazteko. Etxe hutsen kasuistikaren zerrenda luzea da oso, izan ere, erregularizatu barik dauden etxeetan jendea bizi da. Kasu horiek erregularizatzea ere aztertuko da.

## Azkena duela hamar bat urte

Arrasaten halako azken azterketa orain hamar urte inguru egin zen. Bada, Udalak baloratu du orain une egokia dela berri bat egiteko: "Orduetik hona hainbat aldaketa eman dira eta orduko argazkia gaizki fokatua egongo da seguruenik egungo errealitatearekin". Kontuan izan behar da orduetik hona hainbat etxe berri eraiki direla eta gizarte mailan aldaketa asko eman direla: immigrazioa dela, lan mundua, unibertsitateko ikasleek eragiten duten mugimendua...

Beraz, Udalak egungo etxe hutsen egoeraren ahalik eta argazkirik zehatzena atera gura du.

## Udalak gidatu, laguntzarekin

Aurrekontuetan partida bat onartu da aurreikusten delako ikerketa gauzatzeko zerbitzu bat kontratatu beharko dela. Laguntza tekniko osagarriaren baterako zerbitzua kontratatzea litzateke. Horrek ez du esan nahi, Arregiren arabera, azterketa osotasunean kanpoko enpresa batek egingo duenik: "Bertako baliabideekin ekingo zaio azterketari, Udalak egun dituen datuak aintzat hartuz. Izan ere, gu izan behar gara lan hori gidatu behar



Etxe hutsak ondo kontabilizatu gura ditu Hirigintza Sailak. | JOKIN BEREZIARTUA

## ESANAK

**"Orduko etxe hutsen argazkia gaizki fokatua egongo da"**

OMER ARREGI | HIRIGINTZA ZINEGOTZIA

dugunak, lanaren zatirik handiena egin behar dugunak. Argi dagoena da halako ikerketa garrantzitsu bat ez dugula osotasunean kanpoko enpresa baten eskuetan utziko".

## Etxebizitza politika zehazten

Esandako moduan, etxe hutsen kopuru zehatza jakin gura du Udalak gauzatu duen etxebizitza politika zehazteko. Hala, aurten egingo duen azterketa horretako —epe zehatzik ez dute eman— emaitzak baliagarriak izango dira, besteak beste, honako erabaki hauek hartzeko: alokairua sustatzen jarraitzea, zerga gehiago jartzea etxebizitza hutsik daukaten jabeek, etxeen zaharberriak bultzatzea...

Udalak argi duena da etxe hutsak izatea etxebizitzaren arazoaren parte garrantzitsua direla eta iraunkortasunaren aurka doazela.



Arantza Otaduy Arrasate Irratian, Oihana Elortza esatariarekin. | J.B.

Arantza Otaduy | Arrasate Zientzia Elkarteko zuzendaritzako kidea

## "Arrasatek ondarearen alde lan egingo duen elkarte bat merezi du"

Arriskuan dauden kasuekin ari dira lanean: Barrenatxo errota eta Axerikua zubia, esaterako

J.B. | ARRASATE

20 urteren ostean bueltan da Arrasate Zientzia elkarte, Arrasateko ondarea eguneratu eta mantentzeko. Arantza Otaduy zuzendaritza taldeko kidea Arrasate Irratian izan da elkarteaz eta ondarearen garrantziaz berbetan, besteak beste.

### Zergatik berpiztu da elkarte 20 urte lozorroan egon ostean?

Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berritzeko fasean denez, uste dugu Arrasatek merezi duela herriko ondareaz arduratuko den elkarte bat izatea. Horretarako elkarte gara herritar talde bat.

### Herriko ondarea eguneratu eta mantentzea ei da elkartearen helburua. Nola egiten da hori?

Gure helburuak dira ondarea ezagutu eta finkatzea eta herritarrei ondare horren berri ematea. Era berean, ondarea identifikatzeko ordu asko sartu behar dira, ikertzen eta artxiboetara bisitak egiten, besteak beste. Berreskuratzea edo mantentzea behar duen kasuren bat ikusiz gero zer egin erabakitzeke dugu oraindik, elkarte sortu berria delako. Momentuz bazkideei jakinarazten diegu aurkikuntza eta gero erabakiko dugu zein proposamenekin joan politikariengana. Baina hori etorkizuneko lana da.

### Eta orain, zertan diharduzue?

Premia larriena daukaten kasuekin ari gara lanean buru belarri. Hau da, Barrenatxo errota, Axerikua zubia eta plan orokorrarekin. Beranduago hasiko gara elkartearen lan ildoak zehazten. Premia larriena duten kasuen etorkizuna argitu ostean jarriko gara lanean herritarrei jakinarazteko Arrasatek duen ondare natural eta kulturala zein aberatsa den.

### 1990 eta 1993 artean elkarte baxkide izan zirenak eta baxkide berriak batera zaudete elkarte. Hala ere, atek zabalik dituzue edonorendako, ezta?

Hala da. Oraingoz ez gara bazkide larregi eta herriko ondarearen aldeko lan egiteko gertu dagoen edonor gonbidatzen dugu gurekin bat egitera. Ez daukagu egoitza fisikorik; bulegoa birtuala da gurea, oraingoz. Harremanetan jartzeko modurik errazena da [arrasatezientziaelkartea@gmail.com](mailto:arrasatezientziaelkartea@gmail.com) helbidera mezua bidaltzeko. Ekarpen oro ongi etorria izango da.

## "Kasu larrienen etorkizuna argitu ostean zehaztuko ditugu lan ildoak"



JOSE LUIS ELEXPURU

**Arrasate 360 gradutan, Jose Luis Elexpururen begietatik ikusita**

Jose Luis Elexpuru argazkilariak Arrasateko txoko adierazgarrien irudi panoramiko ederrak utzi dizkigu. Besteak beste, Herriko plaza, Arbolapeta, San Frantzisko eliza eta Biteri plaza erakusten ditu interneten. Herri osoa erakusten

duen argazkiak era badaude. Horren adibide da Ferixalekuko igogailuetatik ateratako argazkia. Argazki horiek eta Elexpururen bestelako argazkiak ikusteko sartu honako webgunean: <http://www.360cities.net/profile/aramaiona>.

## Lanbide Heziketako ikasleak, HAPOren aurrerapena bisitatzen

Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) aurrerapena ezagutzeko Lanbide Heziketako Eraikuntza zikloko ikasleak Kulturaten ikusgai dagoen erakusketara joango dira hilaren 19an (11:30). Hirigintza Saileko teknikari buru Juan Antonio Urdangarinek plana azalduko die, bertatik bertara.



Jokin Zaitegi gelan egitekoa zen Martinezen lehen hitzaldia areto nagusira pasa zuten, eta lepo bete zen. | JOKIN BEREZIARTUA

# Osasuna eta elikaduraren gaineko bigarrena, bihar

Lehen saioko arrakastaren ostean, osteoporosiaren gainean arituko da Martinez Kulturaten (19:00)

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Elikadura osteoporosia ekiditeko tresna moduan aurkeztuko du Dorleta Martinezek elikadura eta osasunaren gaineko hitzaldi zikloaren barruan bihar emango duen saioan. Osteoporosia saihestu eta hezurak bizitza osoan zehar indartsu edukitzeko dieta egokien gainean arituko da Martinezek.

Esnearen kontsumoaren gainean ere egin zuen berba lehen hitzaldian: "Medikuntza ofizialean ginekologoen egunean litro bat esne edatea gomendatzen dute. Bada, egun kontsumitzen den esnea ez da egokia ez osteoporosia ekiditeko eta ezta orokorrean ere. Horren aurrean, kaltzio-itu-

rri ezberdinak azalduko ditugu, asko daude-eta", aurreratu du Martinezek.

Lau hitzaldien artean bigarrena izango da biharkoa, eta hasieran hitzaldi guztiak Jokin Zaitegi aretoan egitea pentsatu

**ESANAK**

**"Oso pozik nago lehenak piztu zuen ikusminagatik"**

DORLETA MARTINEZ | HIZLARIA

bazen ere, Kulturateko areto nagusian izango dira (19:00), lehenak izan zuen harrera ikusita.

## Herritarrak galdezka

Izan ere, lehen hitzaldia arrakasta borobila izan zen: "Oso pozik nago lehen hitzaldiak herritarren artean piztu zuen ikusminagatik", adierazi du Martinezek.

Hitzaldiak parte hartzaileak izatea gustatzen zaio 20 urtez Donostiako ospitalean mediku izan denari: "Amaieran batez ere etorri zitzaidan jendea hainbat kontuz galdezka eta gustura egon zirela esanez. Gainera, hitzaldia amaitu arte geratu ziren ia guztiak, 20:30ak arte. Poztekoa da hori".

# Gramones: begiak itxi ezkerro, Ramones

Gasteiztik datoz: 1997an hasi ziren punk talde mitikoaren 'It's alive' diskoa zuzenean jotzen

J.B. | ARRASATE

Punka gustuko dutenendako hutsik egin ezin daitekeen kontzertua antolatu du *Kooltur Ostegunak* ekimenak eguenerako. 1997an sortutako Gramones taldea dator, Euskal Herriko zenbait punk-rock musika talde beteranoetako kideek osatua -Obligaciones eta Sumision city blues taldeko *Pela* buru dela-, eta Ramones taldeak 1976an zuzenean grabatutako *It's alive* diskoa osorik eta berdin-berdin interpretatzen dutena. Izan ere,

gasteiztarren kontzertu bat ikusi duenak berretsi dezake: begiak itxi ezkerro punkaren erreferente diren New Yorkeko Queens auzoko laukotearen zuzeneko bat dirudi.

## Zuzeneko larregi ez

Gramones ez da kontzertu asko ematen dituen talde horietako bat. Horrek are erakargarriagoa egiten du hilaren 19ko kontzertua. Ordua eta sarreraren prezioa betikoa: 22:00etan hasita, bost euroren truke.



Gramones taldearen zuzeneko bat. | KOOLTUR EKIMENA

## Mendi eski irteera antolatu du Besaidek aste bukaerarako

Urtarrilerako ekintzen barruan, hilaren 21 eta 22rako Anayet eta Aspera mendi eski irteera antolatu du Besaide mendizale elkarteak. Izena eman behar da gaur edo bihar, 19:00etatik 20:00etara, Garibai kaleko Besaide elkartearen egoitzan.

## Angula kiloa eta bisigu bi, Arrasate Pilota taldearen eskutik

Arrasate Pilota taldeak eta Eguren arraindegiaren urtero zozketa martxan da. Angula kiloa eta bisigu bi zozketatuko dituzte aurten ere. Otsailaren 5ean, Santa Ageda egunean, egingo da zozketa. Antolatzaileek txartelak erosteko deia egin dute.



Asteburuan hasi ziren 3D pelikula ematen. Hurrengo bihar, goiko irudian: *Pina* izeneko filma. | GOIENA

# Hasi dira pelikulak hiru dimentsiotan, herriko zinema eskaintza osatuz

J.B. | ARRASATE


Urte berriarekin Udaleko Kultura Sailak hilero kaleratzen duen kultura gida berritasun garrantzitsu batekin etorri da urtarrilean. Zinema eskaintzan dago nobedadea. Izan ere, zenbait pelikula hiru dimentsiotan ikusteko aukera dago.

Atzean utzi berri dugun asteburuan estreinatu da proiektore digital berria eta aurrerantzean, hala datozen kasuetan behintzat, filmak hiru dimentsiotan ikusteko aukera egongo da. Modu

horretan ikusteko filmen sarrerak euro bat garestiagoak izango dira eta betaurreko bereziak emaldiaren hasieran jaso eta bukaeran bueltatu beharko dira.

## Urtarrilean beste bi

Hiru dimentsiotan ikusi ahaliko den hurrengo filma *Pina* musika izango da. Wim Wenders zuzendariak dantza, musika eta antzerkia irudi ikusgarriekin tartekatzen ditu. Modu horretan ikusi ahaliko den beste filma animatua da: *Happy Feet*.



Iban Nikolai didgeridooa jotzen. Australia aldeko aborigenen instrumentua da.

## Datozen asteotan doaneko ikastaroak gaztetxean

EDU MENDIBIL | BERGARA

Bergarako gaztetxeak hainbat ikastaro iragarri ditu datozen asteotarako.

Ikastaro guztiak doanekoak dira eta euskaraz izango dira; edozeinek dauka parte hartzeko aukera eta horretarako bete beha-

rreko orriak gaztetxean bertan daude eskuragarri.

### Egitarau zabala

Gaztetxeko arduradunen hitzetan, "eskaintza kulturalaz gozatzeko, jaiak ospatzeko edota ondo pasatzeko tokia da gaztetxea baina

hori baino askoz gehiago ere bada. Horregatik, urtean zehar tailer ezberdinak egitea erabaki dugu". Programa zabala osatu dute eta taila ikastaroa etzi bertan (urtarrilaren 18an) hasiko da. Hilabeteko iraupena izango du ikastaroak; egurra lantzeko

### AUKERA EZBERDINAK

#### Taila

Urtarrilaren 18tik apirilaren 18ra.  
Eguaztenetan, 18:00etan.

#### Didgeridoo

Urtarrilaren 21ean.  
Zapatuan, 17:30etik 19:30era.

#### Bertso eskola

Otsailetik aurrera.  
Egubakoitzetan.

#### Euskal dantzak

Otsailaren 4an.  
10:00etan.

#### Salsa

Otsailaren 11n.  
10:00etan.

oinarrizko teknikak ikasi eta euskal taila klasikoa deritzona jorratuko dute. Plaza mugatuak dira eta gehienez 12 lagunek parte hartu ahal izango dute.

### Zapatuan, Iban Nikolai

Hilaren 21ean Iban Nikolai oiartzuar ezaguna izango da gaztetxean. Urteak darama australiar aborigenen didgeridoo musika instrumentua jotzen eta Bergaran bi orduko ikastaroa eskainiko du zapatuan. Izenematea, hilaren 17ra arte dago zabalik.

## Txirrinduzaleek martxoaren 4an hasiko dute denboraldia

E.M. | BERGARA

Lokatza Ziklismo Eskolako Zikloturista sailak kaleratu du dagoeneko 2012ko egutegia. Aspaldiko ohiturari eutsita, Dorletara egiten duten irteerarekin hasiko dute denboraldia. Martxoaren 4an izango da lehenbiziko irteera. Tradizioari jarraituta, lore sorta eskaintza egingo diote Amabirjinari haren babesari izateko errepidean.

Egutegiak ez dauka aparteko nobedaderik azken urteotako irteerekin alderatuta. Abuztuko oporren ostean, irailaren 2an itzuliko dira errepidera eta urriaren 28an egingo dute azken irteera, Dorletara itzuliz. Bien bitartean, 32 domeketan aterako dira herriko txirrinduzaleak.

### Udan kilometro gehiago

Irteerarik luzeenak uda aldekoak izaten dira, ordurako kilometro dezente eginak dituztelako. Quebrantahuesos proba ospetsua ekainean da eta aurten ere ez da faltako herriko ordezkariarik. Era berean, urteroko bidaia San Fermin egunerako aurreikusi dute aurten.



Dantza eskolak eguaztenetan izango dira. | GOIENA

## Euskal dantzak eta Hika, Jardun elkartearekin

Bi ikastaroak otsailen hasiko dira

E.M. | BERGARA

Euskal dantzen ikastaroa antolatu du Jardun euskara elkarteak. Arin arina, fandangoa, trikitia, porrusalda eta aureskua bezalako dantzak ikasteko aukera egongo da eguaztenetan, Zabalotegin, 19:30etik 21:00etara.

Irakasle lanetan Abarka dantza taldeko Juantxo Urbietak, Janire Urbietak eta Jon Arrillagak jardungo dute. Ikastarorako izenematea Jardunen egin daiteke: 70 euro Jarduneko bazkideendako eta 80 euro besteendako. Otsailen hasiko da ikastaroa.

### Hika, Elexpurrekin

Bestalde, Hika ikastaroa ere iragarri dute. Juan Martin Elexpurrekin emango du; otsailaren 13tik 23ra bitartean bi orduko zortzi saioa izango dira astelehenetik eguenera, 18:30etik 20:30era kultura etxean. Berbetan ziurtasuna hartzea da ikastaroaren helburua. Hika da trataera normalena eta atseginena lagunarte giroan. Eten barik erabiltzen du jende askok, baina ez eskolan eta ez beste inon erakusten ez denez, forma okerrak geroago eta gehiago entzuten dira.

## OHARRAK

### BEDELKARREKO ZOZKETA

Bergarako dendarien elkartearen Gabonetako zozketan, 1.000 euroko saria 63.310 zorbakidun txartelarendako izan da: era berean, 250 euroko lau sari banatu dituzte eta hauek izan dira saritutako zorbakiak: 9.843, 26.834, 41.656 eta 54.026. Saritutako txartelen jabeek 616 72 75 92 (Beatriz) telefono zenbakian jaso ditzakete argibideak.

### TAILAKOEN BATZARRA

Taila eskolako kideek batzar orokorra egingo dute egubakoitzetan, hilaren 20an, Zabalotegiko lokalean, 18:30ean hasitako.

### HERRIBUSAK, ASTEKO EGUN GUZTIETAN

Gabonak ezkerre, egunero dabil herribus zerbitzua. Ibilbide bakoitzeko txartelak 1,10 euro balio du, baina, kargatzeko txartelak erabiliz gero, 0,60 euro ordainduko du herritarrak ibilbide bakoitzeko. Argibideak: [www.herribusa.com](http://www.herribusa.com) webgunean edo 943 76 59 42 telefono zenbakian.

### EQUO-REN HITZALDIA EGUENEAN

Equo alderdiak antolatuta, Junkal Arrutiren eskutik *Desazkundera* gaia jorratuko dute eguenean, hilaren 19an, kultura etxean, 19:30ean.

### 1956AN JAIOTAKOEN AFARIA HILAREN 28AN

1956. urtean jaiotako afaria urtarrilaren 28an Tartufon. Joan-etorria egiteko autobusa izango da. Afari egunean Bule tabernan elkartuko dira, 19:00etan. Izenematea Tarufo jatetxean (943 76 35 51) edo 630 62 61 30 telefono zenbakian.

### INTERNET IKASTAROAK

Internet ikastaroak antolatu dituzte Irizar jauregiko KZgunean urtarrilaren 16tik 27ra; astelehenetik egubakoitzera: goizez (09:00etatik 11:00etara) eta arratsaldean (16:00etatik 18:00etara) egin ahal izango da ikastaroa; doan, gainera. Argibideak 943 76 38 65 telefono zenbakian edo [tutor.bergara@kzgunea.net](mailto:tutor.bergara@kzgunea.net) helbide elektronikoan.

### IDAZLE ESKOLA: SAIOA ETA LAGUNTZAK

Hilean behin, idazle edo kultura-sortzaile baten hitzaldia izaten da UNEDeko Idazle Eskolan; urtarrilaren 21ean Julen Arriolabengoa idazleak *Jaun Zuriaren askazia* bere liburua jirari jardungo du. UNEDeko Idazle Eskolak antolatzen dituen modulu eta hitzaldietan parte hartzeko laguntzak emango ditu Udalak 2012an. Argibide gehiago Bergarako Udaleko webgunean edo Euskara Zerbitzuan, udaletxean.

## LEHENBIZIKO IRTEERAK

### Martxoak 4

Bergara-Dorleta-Bergara.  
50 km.

### Martxoak 11

Bergara-Itziar-Bergara.  
70 km.

### Martxoak 18

Ber-Udana-Aizpurutxo-Ber.  
65 km.

### Martxoak 25

Ber-Ondarroa-Markina-Ixua-Ber.  
85 km.

### Apirilak 1

Ber-Arlaban-Zalduendo-Ber.  
000 km.

### Apirilak 8

Ber-Kanpazar-Zorn.-Duran.-Ber.  
100 km.

### Apirilak 15

Ber-Gasteiz-Legutio-Ber.  
100 km.

### Apirilak 22

Ber-Gerrikaitz-Iurreta-Kanp.-Ber.  
82 km.

### Apirilak 29

Ber-Arlaban-Otxandio-Arlab.-Ber.  
80 km.



Nerea Mendizabal psikopedagogo. | GOIENA

## Nerea Mendizabalen hitzaldia eguenean, gurasoei zuzenduta

Udaleko Prebentzio Zerbitzuak antolatuta, lau hitzaldi izango dira datozen lau egunen kultur etxean, 18:00etan; izen-ematea udaletxean egin daiteke

EDU MENDIBIL | BERGARA

Udaleko Prebentzio Zerbitzuaren eskutik, Nerea Mendizabal psikopedagogoak hitzaldia egingo du eguenean, hilaren 19an, kultura etxean, 18:00etan. *Haurtzaroko oinarri sendoak* gaia jorratuko du Mendizabalek. Prebentzio Zerbitzuak gurasoei zuzendutako lau hitzaldi antolatu ditu urtarilerako eta otsailerako, eta egunekoa da lehenbiziko hitzordua. Nerea Mendizabalen hitzetan, "gauza batzuk edo segurtasun afektu bat garra-sika eskatzen dituzte haurrek

zenbaitetan. Gurasoak heziketa ahalik eta ondoen aurrera eramaten saiatzen dira, asmoa haurrei etorkizun egokia ematea delako. Nik ez ditut erruduntzat jotzen ez guraso, ez familia, ez inor ere; baina heziketaren aurrean dugun erantzukizuna kontuan hartu behar dugu. Heziketan zenbat eta gogotsuago ibili, orduan eta fruitu hobek jasoko ditugu".

Nerea Mendizabalen hitzaldiaren ondoren, hilaren 25ean, ordu eta toki berean, AGIPASE elkarte kide baten txanda izan-

go da. *Dibortzio osasuntsu baterantz* izango da gaia, gaztelaniaz.

### Izen-ematea, bihar arte

Hitzaldira joan ahal izateko umeak zaintzeko zerbitzua beharko luke ten gurasoendako zaintza zerbitzua jartzeko gertu dago Udala. Hala ere, minimo batzuk betetzea beharrezkoa da zerbitzua jartzeko. Edozelan ere, hitzaldi batera edo guztietara joateko interesa dutenek izena eman behar dute 943 77 91 26 zenbakian hilaren 17a baino lehen.

## Baimendutako instalatzaile txartela lortzeko ikastaroa

E.M. | BERGARA

Baimendutako instalatzaile txartela ateratzeko ikastaroa hasiko da urtarilaren 30ean Miguel Altuna ikastetxean. Langile eta langabeei zuzendutako ikastaroa da, %100 diruz lagundutakoa. Orduetgia honako hau izango da: astelehenetik eguenera, 18:00etatik 21:00etara. Martxo amaiera aldera bukatuko da ikastaroa.

Helburua zera da: 2006-2007 ikasturtea baino lehenago titulazioa lortu zutenek baimendutako instalatzaile txartela lortzeko aukera izatea, bai oinarriko kategorian eta baita espezialitate ezberdinetan ere. Aipatutako ikasturtearen ondoren titulaturakoei dagokienez, ikastaroan parte hartzeko ekipo eta instalazio elektroteknikoetan teknikaria edo goi mailako teknikaria izatea beharrezkoa da.

### Azterketa Bergaran

Miguel Altuna Jaurlaritzako Industria Sailak homologaturiko ikastetxea izanik, azterketa teoriko-praktikoa institutuko instalazioetan egingo ahal izango dute ikastaroan parte hartzen dutenek. Edozein argibide-tarako Miguel Altuna ikastetxera edo 943 76 93 94 telefono zenbakira deitu dezakete interesatuek. Plaza mugatuak dira eta izena ematea lehenbailehen egitea eskatu dute. Esandako moduan, baimendutako instalatzaile txartela ateratzeko ikastaroa doanekoa da, diruz lagunduta baitago.

## Gurasoei zuzendutako hitzaldia eguenean kultura etxean

*Haurtzaroko oinarri sendoak* izenburuko hitzaldia antolatu du Udaleko Prebentzio Zerbitzuak. Hitzaldia kultura etxean izango da eguenean, hilaren 19an, 18:00etan. Hitzaldia Nerea Mendizabalek egingo du, euskaraz. Hitzaldira joan nahi dutenendako umeak zaintzeko zerbitzua antolatzeko gertu dago Udala, gutxienezko baldintzak betetzen badira. Informazioa eta argibideak: 943 77 91 26.

## TAOren pegatina autoetan jarrita derrigorrez gaurtik

Udaltzaingoa aditza eman duenez, autoan bistan jartzeko TAOren pegatina jaso duten herritarrek gaurko, hilaren 16rako, izan beharko dute 2012ko pegatina ikusgai. Gaurtik aurrera, pegatina aldatu ez duten gidariek isuna jartzeko arriskua izango dutela jakinarazi dute.

## Odol ateratzea urtarilaren 25ean anbulatorioan

Odol ateratzea egingo dute eguaztenean, urtarilaren 25ean, anbulatorioan, 18:00etatik 20:30era. Lokal berriaren zain, herriko odol emaleek ez dute lehen egiten zuten moduan telefonozko deirik egiten emaleak abisatzeko, eta, beraz, herritarrei dei egiten diete hilaren 25ean anbulatoriora joateko.

## Lokatza eta Bergarako Kirol Elkartearen Gabonetako zozketak

Lokatza Ziklismo Eskolaren zozketan, lehen saria 8.268 zenbakari egokitu zaio eta bigarrena 3.404 zenbakidun txartelari. Bergara KEren zozketan, berriz, honako zenbaki hauek izan dira sarituak: 43.554 (lehen saria, Gaobonetako saskia), 40.086 (bi lagunendako asteburuko egonaldia hotel baten) eta 50.310 (Multipticasen opari sorta). Urtarilaren amaieran bukatzen da sariak jasotzeko epea.

## Herribus berrietan txartel bidez ordaintzeko aukera

Gabonak ezker egunerok dabil herribus zerbitzua. Ibilbide bakoitzeko txartelak 1,10 euro balio du, baina, kargatzeko txartelak erabiliz gero, 0,60 euro ordainduko du herritarrek ibilbide bakoitzeko. Argibideak [www.herribus.com](http://www.herribus.com) webgunean edo 943 76 59 42 telefono zenbakian jaso ditzaitezue.

## Bulego Judizial Berria Bergarara ere iritsi da

Gizarteari zerbitzu publiko azkarra eta eraginkorra emateko helburua du Jaurlaritzaren eraberritzeak

E.M. | BERGARA

Jaurlaritzak dagoeneko bukatu du Bulego Judizial Berria EAEko barruti judizial txiki guztietara hedatzeko prozesua, eta, Bergarako epaitegiari dagokionez, azaroa ezker dago abian. Aurten, berriz, Gasteizen, Barakaldon eta Donostian ezartzeko asmoa daukate.

### Antolamendu eredu berria

Bulego Judizial Berriak antolamendu eredu berria eta teknologia berrien ezarpena ekarriko du. "Horiek osatzen dute XXI. mendeko justiziaren abiadura handiko tren, eta Euskadik garaiz hartu du tren hori, herri baten oinarriko zerbitzu publikoekin ez baitago

jolas egiterik", adierazi du Idoia Mendiak, Justizia eta Herri Administrazioaren sailburua.

Erreformarekin hiru dira helburuak: batetik, epaitzeko eta epaitutakoa gauzarazteko jurisdikziozeregina erraztea; bestetik, idazkari judizialei erantzukizun berriak ezartzea; eta, hirugarrenik, organo judizialei, profesionalei, alderdiei eta herritarrei erantzuteko zerbitzu prozesal berriak sortzea. EAEko barruti judizialean justizia administrazioaren jarduerak homogeneizatzea da beste helburuetako bat. Barruti judizial txikiei dagokionez, Bergararen ostean, Tolosa eta Durangora iritsi da erreforma.



Justizia administrazioaren jarduerak homogeneizatzea da helburua. | GOIENA



Gaztelekuko bilerara joandako herritarrak taldetan banatu zituzten lan egiteko. | MIREIA BIKUÑA

## Gaztelekuarekin zer egin zehazteko lehen batzarra

40 bat herritar bildu ziren Gaztedia Sailak deitutako batzarrean

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

Hilaren 11n abiarazi zuen Gaztedia Sailak *Gaztedia herrijorran* egitasmoa. Helburu nagusia gaztelekuari eman beharreko prozesu parte-hartzailea abian ipintzea zen. Herritarrek ondo baino hobeto erantzun zuten eta 40 bat lagun elkartu ziren. Udal arduradunek balorazio positiboa egiten dute. "Herritarrek, eta batez ere gazteek, erakutsi dute gaztelekuan zerbait egin gura dutela. Gainera, jarrera ona ikusi dugu eurengan, eta eskatutako guztia egin dute", esan zigun bukaeran Xabi Picok, Gaztedia zinegotziak.

### Proposamenak postaz

Batzarrean egon ziren gazteei azaldu zieten zein zen helburua,

eta, taldeka banatuta, lanean hasi ziren. Gaztelekuaren funtzionamenduz zer zekiten, gaztelekua zertarako erabiliko zuket, zer nolako kudeaketa gura duten... Horiek guztiak erantzun zituzten, eta hausnarketa egiteko denbora izan zuten. "Eraikina ederra da, eta askotariko ekintzak antolatze-ko aukera ematen du. Gure erron-

ka izango da eredu egokiena aukeratu eta erabilera onena ematea", dio Picok.

Hain zuzen ere, horixe izango da hurrengo pausua. Beste herri batzuetan dauden gazteleku, gazetxe eta bestelako lokaletako kudeaketak eta funtzionamenduak aztertuko.

Behin eredu bat aukeratuta, lan gogorra geratuko zaie: eredu Oñatira egokitu. "Lehen harria ipini dugu, baina zailena geratzen zaigu. Herritarren inplikazioa ezinbestekoa izango da egitasmoa azkarrago edo beranduago bukatzeko", esan digu Picok.

Gaineratu zuten, otsail erdialdean edo, beste bilera bat egingo dutela. Bitartean, proposamenak [gaztedia@herrijorran.info](mailto:gaztedia@herrijorran.info) helbidera bidal daitezke.

### ESANAK

**"Gure erronka gaztelekurako eredu egokia topatzea da"**

XABI PICO | GAZTEDIA ZINEGOTZIA

### Aloña Mendik hamar mendi irteera egingo ditu 2012an

Aloña Mendi elkarteko mendi sailak gertu dauka 2012rako mendi irteeren egutegia. Lehena hilaren 22an egingo dute, Bizkai aldera: Bakio-Bermeo-Mundaka. Ibilaldiaren bukaeran bazkaria egingo dute. Interesatuak izena eman behar dute Aloña tabernan. Ondoren, irailean izan ezik, hileko mendi ibilaldia egingo dute: otsailean Bernedo inguruko mendietara; martxoan San Adrian aldera; apirillean Aralarra; maiatzean Urepel aldera; ekainean Camerosera; uztailean Asturiase- ra; urrian Belaguara; azaroan Pico de las Nievesera; eta abenduan Ermura. Bestalde, mendiko eski irteera bat egingo dute otsailean eta beste bat apirillean.

### Euskal Herriko egoera politikoaren gaineko mahai-ingurua

Oñatiko Udalak *Euskal Herria herrijorran* ekimenaren barruan mahai-ingurua egingo du hilaren 18an Zuazola institutuan, 19:00etan. Rafael Olaizolak, Ainhoa Sagarribaik, Mikel Zubimendik, Lore Martinezek, Xabier Gabilondok eta Josu Aztiriak parte hartuko dute. Euskal Herriaren gaur egungo egoera politikoa, gatazkaren sorburu eta ondorioak, lurraldetasuna, eta beste landuko dituzte.

Partaidetza, Komunikazio eta Barne Antolamendu batzordeak hilero gai bat lantzeko asmoa dauka. Bada, Euskal Herria eta haren egoera politikoa izango dute hizpide.

### Hondakinen sorreraren prebentzioaren gaineko erakusketa

Debagoieneko Mankomunitateak hondakinen sorreraren prebentzioaren gaineko erakusketa ibiltaria antolatu du, eta egunotan Oñatin dago, kultura etxean (hilaren 22ra arte, 18:00-20:00).

Zazpi ataletan banatu dute, eta bakoitzean prebentzioaren eta berrerabilpenaren alderdi bat lantzen da. Herritar guztiendako dago zabalik.

Bestalde, Mankomunitateak bisita gidatuak egingo ditu DBHko bigarren mailako ikasleendako: bihar, martitzena, eta eguenean joango dira erakusketa ikustera. Prebentzioaren gaineko azalpenak jasoko dituzte.

## "Arrakastaz" bukatu da Ulmako elkartasun kanpaina

M.B. | OÑATI

Ulmak Gabonetan egin duen elkartasun kanpaina "arrakastatsua" izan da. Hilabete eta erdian eskolako materialak eta umeen arropak, jostailuak, helduen arropa eta zapatak eta material elektronikoa jaso dituzte Ulmaren zerbitzu zentraletan. Batutako materiala Hermansoloña GKEk jaso eta banatuko du Argentinako hainbat lekutan.

### Hainbat proiektu

Hermansoloñak hainbat proiektu ditu esku artean eta horietan banatuko du materiala; hain zuzen ere, Jose C. Pazko Rallito de Luz, Estrella Roja, Juan XXIII eta Bichito de Luz proiektuetan; Jujuy probintziako



Argentinarako materiala. | A. BASTERRA

Lurralde Indigenak eta Luis Arregi proiektuetan; eta Salta probintziako Obra Social-en.

### OHARRAK

#### PLASTIKO BILKETA

Hilaren 24an egingo dute base-rietan sortutako plastikoen urteko lehen bilketa. Oñatin lau lekutan utz daitezke plastikozko zuriak eta beltzak: Zañartun Zuazola inguruan, ETEO atzealdean, Murgiako Asentzio ermitaren ondoren eta Olabarrietako autobus geltokiaren parean.

#### HITZALDIA

Bi hitzaldi antolatu ditu Txantxiku Ikastolak aste honetarako: alde batetik, *Mugak haurtzaroan* delako hitzaldia egingo du Nerea Mendizabal pedagogoa hilaren 17an; eta beste alde batetik, ipuinak nola kontatu erakutsiko du Yolanda

Arrieta idazleak, hilaren 19an. Biak ala biak, ikastolako aretoan, 18:30ean.

#### HITZALDIA

Batxilergoaren ondorengo ikasketen gainean egingo du berba Susana Arabaolatzak Txantxiku Ikastolan, hilaren 17an eta 18an, 18:30ean.

#### HITZALDIA

Deustuko Unibertsitatearen gaineko informazioa emango dute Zuazola Institutuan, hilaren 24an, 18:00etan.

Bestalde, hilaren 23an Irati Jimenez idazleak berbaldia egingo die Batxilergoko lehenengo eta bigarren mailako ikasleei.

### 'Ekonomia zertan den' azalduko du Joseba Barandiaranek

Gipuzku Buru Batzarrak (GBB) antolatuta ekonomiaren gaineko berbaldia egingo du Joseba Barandiaranek bihar, martitzena, 19:30ean. Hitzaldia irekia da, eta herritar guztiak daude gonbidatuta.

Barandiaranek euskarazko komunikabideetan ekonomia gaiez jarduten du aspalditik: EITB, *Argia*, *Berria*, *Zuzen*... Gainera, beste heda-bide batzuetan kolaborazioak egin ditu.

GBBk 2012rako abian jarri dituen ekintzen barruan dago Oñatiko hitzaldia. Dagoeneko zenbait hitzaldi eta jardunaldi antolatu ditu egitasmo horren bidetik.

### Urteko batzarra egingo du Hermansoloñak etzi

Hermansoloña GKEk urteko ohiko batzarra egingo du etzi, eguaztena, kultura etxean, 19:00etan.

Deialdiak bi helburu ditu: estatutuak agintzen duen moduan, urteko ohiko batzarra egitea; eta 2011n GKEk egindako proiektuen eta ekintzen berri ematea: Argentinarako material bilketa, Aratusteetako eta Gabonetako ekitaldiak, beste proiektu batzuetarako diru-bilketak, Ulmak egindako kanpaina...

Deialdia Hermansoloñako lagunen eta bazkideen artean egin dute, baina elkarte eza-gutu gura dutenak ere gonbidatu dituzte.

## ARETXABALETAKO

# 'Euskeraren espektakulua' saioa ikusteko sarrerak eskuragarri

Herritarrek egindako esketxak aurkeztuko ditu Oihan Vegak hilaren 28an

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETAKO

Urtarrilaren 28an, zapatua, eskainiko du Loramendi Elkarrean *Euskeraren espektakulua* ikuski-zuna, Arkupeko Zeraia aretoan. Hiru saio eskainiko ditu: 17:00etan, 18:30ean eta 20:00etan. Eta debalde izan arren, sarrerak aurrez eskuratu beharko dituzte herritarrek; gaur hasi eta domekara bitartean jaso ahal izango dira Arkupe kultura etxeko harrean –pertsone bakoitzeko gehiezin bi sarrera–.

## Umorea lagun, hausnarketa

Aretxabaletarrok euskararekiko dugun jarreraren gainean hausnartzeko gertatu du Loramendik *Euskeraren espektakulua*. Kepa Errastik zuzenduta egoera ezberdinak jasotzen dituzten hainbat esketx grabatu dituzte herritarrek: "Geure buruari barre egiteko egoerak izango dira, umore handiarekin kontatuak", diote Loramendiko kideek.

Eta horiek aurkezteko eta saioa bideratzeko Oihan Vega irrati esatari eta musikari beragarra izango da Arkupen hilaren 28an. Helduendako ikuski-zuna dela aurreratu dute antolatzailak, ordubate ingurukoa.



Esketx batean jaso duten egoera: herritar bi kafea hartzen terrazan. | LORAMENDI

## 'Leteaz kantuberbetan' Sarasuarekin

Egubakoitz honetan, hilak 20, ostera, Xabier Lete protagonista izango duen saioa eskainiko du Jon Sarasuak Arkupen (18:30). *Leteaz kantuberbetan*. Xabierri buruzko interpretaziño bat kantaldi-solasaldia hamar bat kantuk osatuko dute, Sarasuak berak aukeratutakoak. Horiei sarreratxo bat egingo die lehenengo, eta ondoren, gitarra eta pianoa lagun, abestu egingo ditu. Abenduan, Leteren heriotzaren urteurrenaren bueltan, Loramendik egin gura zuen ekitaldia da.

## Ikastaro berriak KZgunean; tartean, "informazioa lainoan" gordetzeko

M.A. | ARETXABALETAKO

Urte berriarekin ikastaro berriak dituzte Markole auzoko KZgunean. Goizetan dago zabalik urtarrilean (09:00-13:00), eta, ikastaroez gain, metaposta dokumentu gordailua eta Izenpe txartela zer diren ezagutzeko aukera eskaintzen dute, eta IT txartela eskuratzeko azterketak egin ere bai. Hona datak:

egunean, hilak 19; urtarrilaren 24an eta 26an. Hirurak dira 09:00etan eta aurrez deitu behar da hitzordua egiteko.

### Openideiak plataforma

"Informatika lainoan" zer den erakutsiko dute eta zelan erabili urtarrilaren 25ean, eguaztena (09:00-11:00). Informazioa "lainoan"

gordetzeak dituen abantailak jakinaraziko dituzte, eta Dropbox, Yousendit eta Scribden programak erabiltzen irakatsi.

Openideiak plataforma zer den ere erakutsiko dute; sarean lan egiten ikasi eta esperientziak trukatzeko lekua. Eta Internet bidez produktuak saltzen dituzten euskal enpresen berri eman eta horien zerbitzu eta ezaugarriak zeintzuk diren ere jakinaraziko dute. Argibideetarako, KZgunera jo -943 25 23 51 edo [tutor.aretxabaleta@kzgunea.net](mailto:tutor.aretxabaleta@kzgunea.net).

## OHARRAK

### ESKOLA AGENDA 21: BILERA

Kurtzebarri eskolako ikasleen ordezkariak udal ordezkariarekin elkartuko dira bihar (11:30), udaletxean, hainbat gairen gainean jarduteko.

### BIODANTZA: ATE IREKIAK

Biodantza ikastaroa hasiko du egunean, hilak 19, Jaiki elkarrean kuartel zaharrean (19:30), eta ate irekiak antolatuko dituzte egun horretarako.

### ARATUSTEETAKO KARTEL LEHIAKETA

Kultura Sailak Aratusteak iragartzeko kartel lehiaketa deitu du eta aurkezteko epea bihar bukatuko da (Arkupe kultura etxean). Kartelaren neurria izan-

go da 50x70 zentimetro, eta, digitaal ekarritz gero, DIN-A3. Derrigorrez testu hau izan beharko du: *Aratusteak Aretxabaleta 2012*. Irabazleak 300 euro jasoko ditu.

### LORAMENDI ELKARTEAN LAN EGITEKO DEIA

Loramendik dinamizatzaile postua bete gura du herrian euskararen erabilera sustatzeko ekimenak dinamizatzeke. Eskatzen dute: euskalgintza ezagutzea eta antolatzeke, dinamizatzeke eta komunikatzeko gaitasuna izatea. Egun erdiko lana da, arratsalde. Curriculumak aurkezteko azken eguna hilaren 20a da: udaletxe zaharrera eroan –Durana, 11– edo posta elektronikoz bidali –[loramendielkarrea@gmail.com](mailto:loramendielkarrea@gmail.com).

## Danborradak egunean eta egubakoitzean

M.A. | ARETXABALETAKO

San Sebastian eguna gogoan dutela danborradak astinduko dituzte herriko umeez astean. Arizmendi ikastolako Basabeazpi gunean egunean, hilak 19, egingo dute danborrada (16:30); eguraldi onarekin kanpoan eta bestela, barruan. Pausoka haur eskolakoek egubakoitzean (10:30) eskolako patioan egingo dute; eta Kurtzebarri eskolakoek ere egubakoitzean (15:45); eguraldi onarekin plazan eta txarrarekin, pilotalekuan.

## ESKORIATZAKO

# Bertso-afari musikatua zapatuan Apotzagan

Einginkek antolatu du, eta lau bertsolari eta bi musikari elkartuko dira hango elkarte

M.A. | ESKORIATZAKO

Einginke elkarteak aparteko bertso-afaria antolatu du zapatu-rako, hilak 21. Izan ere, lau bertsolari gazte eta bi musikari elkartuko ditu Apotzaga auzoko gastronomia elkarte (21:30). Bertso-afari horretarako txartelak salgai dituzte oraindik Inkernu eta Aldatz tabernetan, 15 euroren truke.

### Lau bertsolari, bi musikari

Lau bertsolari gazte etorriko dira: Alaia Martin (Oizartun, 1987), Oihana Bartra (Bilbo, 1984), Uxue Alberdi (Elgoibar, 1984) eta Beñat Iguaran (Villabona-Amasa). Gazteak bai, bai-

na eskarmentudunak guztiak, eta txapelketa askotan jardundakoak; Martinek, esaterako, abenduan jokaturako Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan hirugarren postua eskuratu zuen. Gai jartzaile lanetan, ostera, Egoitz Aizpuru oñatiarrak jardungo du.

Bertsolariak, baina, ez dira bakarrizko mahaiaren bueltan, musikari bi izango dituzte lagun: Imanol Urbietak eta Gari Otamendi. Ibilbide luze eta oparoa duten musikariak dira biak, hortaz, ikuskizun dotorea izango dute Apotzagan afaltzera elkartutako eskoriatzarrek.



Zapatuko bertso-afaria iragartzeko egindako kartela. | EINGINKE

## Iazko azken hiruhilabeteari dagozkion ur eta estolderia zerbitzuak ordaintzeko epea zabalik dago

Zabalik dago 2011ko laugarren hiruhilabeteari dagokion estolderia eta ur hornikuntza tasa ordaintzeko epea. Otsailaren 15a baino lehen ordaindu behar dute eskoriatzarrek ohiko aurrezki kutxa edo banketxeen bidez. Udaletik gogorarazi dute aipatutako epean zorrak ordaindu ezean, prozedura exekutibotik eskatuko direla eta horiei premiamenduzko errekargua, berandutze interesak eta sor daitezkeen kostuak gehituko dizkietela.



ARETXABALETAKO

## Ibaiko zuhaitzak moztu dituzte

Deba ibai bazterrean dauden hainbat zuhaitzen adarrak moztzen dabilta Makai lorezaintza enpresako kideak egunotan; Errekararren kale ostean, hain zuzen. Haizeak zuhaitz bat baino gehiago bota zituen orain dela hilabete batzuk, eta, halakorik berriro gerta ez dadin, adarrak luzeenak moztu dizkiete. Loramendi kalean dauden beste hainbat ere moztu dituzte arrazoi berberagatik.

Nagore Aranburuk, Egoitz Lasak eta Mikel Pagadiak *Bodologuak* antzezlan egingo dute otsailaren 10ean. | TXINTXETA**ELGETA**

## Martxora bitarteko programazioa iragarri du Espaloia kafe antzokiak

Antzokiaren etorkizuna dela-eta, gauzak bide onetik doazela esan dute arduradunek, eta urtarrilean azken hilabeteetako zerbitzu bera emango dela

**LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA**

Bide Ertzean taldearen eta Anthony Blake mentalistaren emanaldiekin eman dio hasiera Espaloia urte berriari.

Elgetako antzokiaren etorkizunaren inguruan arduradunek aurreratu dute abenduan hainbat elkarrizketa egin dituztela ziklo berriari hasiera emateko. "Bide onean gabiltzala esango nuke", adierazi du Iban Arantzabalek, "eta urtarrila agiriak egiteko eta funtzionamendu berriak adosteko beharko dugu". Urtarrilean Espaloia zabalik jarraituko duela ziurtatu du, eta azken hilabeteetako zerbitzu bera emango dela. "Mamitsua izaten ari da ziklo berrirako prestaketa. Sukaldea, taberna... dena dago mahai gainean, eta ezta baidagai. Pausoz pauso, baina otsailean bertan ikusiko dira aldaketaren batzuk", esan du.

**Programazioa**

Bien bitartean, Espaloiko kultura batzordeak martxora arteko programazioa kaleratu du. Urtarrileko azken barikuan, hilak 27, Zanguango taldeak *Aquí va a pasar algo* antzezlan estreinatuko du Espaloian. Aurretik, hilaren 20an, Debagoieneko Kirol Sarien gala egingo da kafe antzokian.

Eta otsailean, *Wazemank* telebista saioak ezagutzera eman zituen Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburu izango dira Espaloian. *Bodologuak* antzezlan umoretsua taularatuko dute otsailaren 10ean, 22:30ean. Inauteri gauerako, eta Udalak antolatuta, otsailaren 17an, barikua, kafe antzokian izango da Jorginho orkestra. Hurrengo astean, otsailaren 24an, Markos Untzetak egingo du emanaldia Elgetako antzokian.

Martxoa ere antzerkiarekin abiaraziko dute Espaloian. Martxoaren 2an, Pez en Raya taldeak *Llorar por llorar* antzezlan aurkeztuko du, eta hilaren 15ean, Josu Guerra pasaitarrak Spirit of Anuk belaontzian egindako abentura ekarriko du ikus-entzunezko batean. Hondarribitik abiatuta Cabo Verderea arteko bidea egin zuen Guerrak Atlantikoa belaontziz zeharkatuz eta bizi izandako nondik norakoak azaltzera etorriko da Elgetara. Aspaldiko partez, beraz, abenturarekin lotutako ikus-entzunezkoa egongo da Espaloian.

**'Herrixa dantzan'**

Aurrera egingo dute 2012an ere Patxi Monterok gidatzen dituen dantza saioak. Ohi bezala, hilero, azken domekan, egingo ditu 19:00etan hasita.

**LEINTZ GATZAGA**

## Aldaketak egin dituzte ordenantza fiskaletan, eta hobariak sartu

Hobari edo murrizketa horiek eraikuntza eta obren gaineko zerga batzuek izango dituzte

**MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA**

2012an sartzearrekin batera indarrean daude urrian onartutako ordenantza fiskalak; hau da, Udalak ezarritako zergak eta tasak. Udaltzat onartu du %3ko igotza izatea zerga eta tasa gehienek; baina beste aldaketa batzuk ere jaso dituzte; tartean, murrizketak egitea zerga batzuei.

Hobari edo murrizketa horiek eraikuntza eta obren gaineko zergei egingo diete, eta %90eko beherapena izango dute, esaterako, irisgarritasuna hobetzeko obrek -igogailua jartzea, adibidez-; etxeen fatxaden obrek; eta nekazaritza, abeltzaintza eta baso ustiatetarako erabilitako instalazioetan egindako obrek.

**Egurra ateratzeko epea**

Bestalde, zigorrak ere sartu dituzte ordenantzetan. Hala, etxeko erabilpenetarako egurraren aprobetxamendurako ezarrita dagoen araudi barruan zera gehitu dute: batetik, egur loteari uko egin ahal izango dela eskatzeko epe barruan; eta bestetik, egur lote hori menditik ateratzeko ezarritako epea ez betetzea zigortu egingo dutela -gehiengo epea urte betekoa izango da-, hurrengo hiru zozketetan parte hartzeko eskubidea kenduta.

Ordenantzan zehaztutako gutziaren berri Udalaren webgunean jarri dute herritarrek ikusteko: [www.leintzgatza.com](http://www.leintzgatza.com).

**ARAMAIO**

## Aurrera doa Aramailur taldea, produktu berriak saskiratze gertu

Urte amaierako deialdian bi kide berri sartu ziren kontsumo taldean; orain 11 lagun dira

**JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO**

Urte amaite aurretik Aramailur kontsumo taldeak deialdi berezia egin zuen herritarrek erakartzeko. Bi kide berri egin zuten bat deialdiarekin eta egun 11 dira guztira. Taldea aurrera doa, beraz.

Orain, gainera, saskia berri guran dabilta. Honela azaldu digu Mikel Oveja taldeko presidentek: "Beste produktu batzuetara zabaltea aztertzen gabiltza. Barazkiez gain, Aramaioko arrautza eta eztiaren zain gaude eta asmoa dugu etorkizun hurbilean kanpoko produktu ekologikoetara zabalteko". Asmoa da, oraindik ez dutelako erabakia hartu: "Gure kontsumo taldearen printzipioak

ahaztu barik, hau da, ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko tratua zuzena bultzatuz eta beti ere produktu ekologikoak kontsumituz, gure beharrik asetzen dituzten produktu berriak saskiratzea pentsatzen gabiltza", dio Ovejak. Halako gaiak jorratu eta egon daitezkeen arazoez berba egiteko astero bilera bat egin dute.

**Ateak zabalik daude**

Ez dago baldintza aipagarrikerik kontsumo taldeko kide egiteko. Egokiena da martitzenero 19:00etan udaletxeko arkupera saskiak betetzeko egiten duten hitzordura joan eta funtzionamenduen berri bertatik bertara izatea.



Martitzenero udaletxe azpian elkartzen dira, 19:00etan. | J.B.

**ANTZUOLA**

## Mundua ezagutzen, herritarren bidaiei esker

'Antzuolarrak munduan zehar' ekimenaren barruan, Danimarkako bidaia kontatu zuten

**USOA AGIRRE | ANTZUOLA**

20 bat lagun bildu ziren joan den egunean *Antzuolarrak munduan zehar* izeneko zikloko urtarrileko hitzaldian. Danimarkara egindako bidaia azaldu zuten Eneko Iturbek eta Erkuden Igleziasek. Bizikletarekin joan ziren Danimarkara eta herrialdea ezagutu zuten hainbat etapatan. Herrialdea lau izanik, bizikletan lehen bidaia egiteko egokia iruditu zitzaion, eta, horrez gain, ondo prestatuta dago bizikletan ibiltzeko. Bidaia gainera xehe-tasunak eman ostean (Danimarkaren ezaugarriak, bidaia-aren prestaketa, ...), han pasatako egunak laburtzeko bideo bat erakutsi zieten bertaratutakoiei. Egun batzuetan eguraldi txarra izan bazuten ere, esperientzia ona izan zela



Eguneko saioa. | USOA AGIRRE

azaldu zuten Iturbek eta Igleziasek.

Oraingoan, ez dago hitzaldi-zikloko besterik aurreikusita. Antzuolarrak batek bere bidaia kontatu nahi badu, harremanetan jar daiteke Udaleko Kultura Sailarekin, [kultura@antzuola.net](http://kultura@antzuola.net)-era idatzita.

## URTARRILEKO SARIAK

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05  
e-postaz: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)  
SMS bidez.

Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.  
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com)

### DONOSTIA 2016 KAMISETAK

Bidali KLUBA KAMISETAK  
[Bazkidearen zenbakia]  
215800 zenbakira.

 DONOSTIA 2016  
SAN SEBASTIAN



### IPUINAK UMEENTZAT

Bidali KLUBA IPUINAK  
[Bazkidearen zenbakia]  
215800 zenbakira.

 PAMIELA  
argelaketa



### ERREMEIXUEN DVD-A

Bidali KLUBA DVD  
[Bazkidearen zenbakia]  
215800 zenbakira.

 kutxa  goiena  
Gegarako Udala



### LIBURUAK

Bidali KLUBA LIBURUAK  
[Bazkidearen zenbakia]  
215800 zenbakira.

 PAMIELA  
argelaketa



## 2012an atera etekina txartelari



Esko Sport

### ESKO SPORT KIROL DENDA

Eskoriatza, 943 71 52 96

■ -%10 produktu eta zerbitzu guztietan

### ETA HAUETAN ERE BAI



## ANTZERKIRAKO SARRERAK

Ron Lala taldearen 'TIME AL TIEMPO'  
antzerkia ikusteko 2 sarrera.  
Arrasateko Amaia antzokian,  
urtarrilak 22an, 19:30etan

Eskuratzeko deitu asteartetik aurrera:  
943 25 05 05



goienakluba 2012

Tel.: 943 25 05 05 | e-posta: [kluba@goiena.com](mailto:kluba@goiena.com) | [goienakluba.com](http://goienakluba.com)  
Urteko kuota: 50 €.

goienakluba  
Abantailaz betetako kluba!



# KIROLA

OHOREZKO ERREGIONALA

## Partiduaren jabetza izan zuen Aloñak baina gola egitea kostatzen zitzaion

Behobia aurretik jarri zen markagailuan; Juaristik berdindu zuen lehia

EMAITZA

ALOÑA MENDI

1-1

BEHOBIA

## FITXA TEKNIKOAK

**Aloña Mendi:** Aginagalde, Mendoza (Uribeetxeberria, 10. min.), Ruiz, Agirre, Idigoras, Garmendia, Palacios, Bikuña, Urkia (Moreno, 70. min.), Zubia (Juaristi, 55. min.) eta Olalde.

**Behobia:** Chamorro, Gonzalez, Dominguez, Granada, Jimenez, Josu, Etxabe, Gartzia (Josu, 65. min.), Iza, Mazuela eta Iker.

**Beste:** Epailera Casanova eta laguntzaileak Urrutia eta Palenzuela. Azkoagainera joandako zaleek hainbat erabaki ez zituzten gustuko izan.

ARANTZAZU EZKIBEL | OÑATI

Merezitako berdinketa lortu zuen atzo Aloñak Azkoagainen, baina berdinketa baino zertxobait gehiago ere merezi izan zuten Azkargortaren mutilek. Partiduaren jabe izan ziren etxeok baina irabazteko baloia sareetan sartu egin behar da eta atzokoan behin bakarrik asmatu zuten.

Partidua hasi eta minutu gutxira Ander Mendozak min



Mikel Palacios baloia kontrolatu guran, aurkaria begira duela. | JULIO CALLEJA

hartuta utzi behar izan zuen zelaia. Haren ordez Unai Uribeetxebarria irten zen zelaira. Minutuak aurrera joan ahala etxeok jokalariek neurria hartu zioten partiduari. Baloien jabetza izan zuten baina aukera garbiegirik ez zuten egin. Korner baten ondoren izan zuen Aloñak gola egiteko aukera garbiena: ia sareetan zegoela atera zuten Behobiako atzelariek baloia.

Zelai erdian egindako falta baten ondoren sartu zuen Behobiak partiduko lehenengo gola. Zoritxarreko jokaldia izan zen;

izan ere, atezainak gaizki neurtu zuen distantzia eta ondorioz gola egin zioten.

**Bigarrenen, golaren bila**

Bigarren zatian Aloña golaren bila irten zen. "Jokoa egin dugu eta baita gol aukerak sortu ere", azaldu zuen amaieran Andoni Azkargorta entrenatzaileak.


Hainbat aukera izan zituzten etxeok, tartean Roberto Idigoras buruarekin gola egiteko izan zuena. Azkenean, egindako lanak bere emaitza izan zuen: Josu Juaristik falta jaurtiketa

baten ondoren egin zuen berdinketaren gola.

**Partidua irabazteko aukerak**

Behin berdinketa eskuetan zutela garaipenaren gola egiteko aukera ere izan zuten, baina baloia ez zen sareetan sartu. Azkenean, puntu bakarra geratu zen etxean, Azkargortaren ustez, "sari handiagoa" ere merezi zuten.

Atzokoarekin lehenengo itzulia amaitutzat eman dute. Datorren astean berriro ere jokatu du Aloñak Azkoagainen, oraingoan Rotetaren aurka.

IKER OLALDE  
JOKALARIA

"Bigarren zatian buru belarri irten gara golaren bila"

Aloñako jokalariek balioarritzat jo du lortutako puntua. **Kostata baina merezitako berdinketa lortu duzue.**

Kostatutako berdinketa izan da. Bigarren zatian golaren bila irten gara buru belarri. Berandu etorri da, baina azkenean partidua irabazteko ere borroka egin dugu.

**Zertan oinarritu da zuen jokoa?**

Gure ideia bigarren baloia hartu eta hortik jokoa egitea zen. Bagenekien eurak aurretik jarri gero zaila izango zela. Gogorak dira, gol asko egin duen taldea da. Gure lana baloia jaitsi eta gola egiteko beharrez zoratzea izan da.

**Kanpoan irabazteko zatote. Puntuak balizkoak izateko etxean ere irabazi egin behar da.**

Bai, bi partidu jarraian ditugu etxean eta interesgarria zen biak irabaztea. Berdin egin dugu baina uste dut ez dela emaitza txarra izan.

OHOREZKO ERREGIONALA

## Asko sufrituta irabazi zuen Aretxabaletak Trintxerperen aurka

Juanan Cruz entrenatzailea gustura zegoen taldeak egindako lanarekin

EMAITZA

ARETXABALETA

4-3

TRINTXERPE

ondo merezitakoa, gainera. Etxeko taldea ondo kokatuta irten zen zelaira. Aurkariak baino gehiago izan ziren, baina, hala ere, hasierako minutuetan ez zuten aukera garbirik sortu.

Atsedendira Igor Ojanguren sartutako golak emandako abantailarekin joan ziren -1-0-. Bigarren zatiko 10. minutuan Iker Sanchezek kontra batean egin zuen gola. Partidua irabazita zegoela zirudien, baina estrategia jokaldi batean Trintxerpek

2-1koa egin zuen. Beste kontra batean, berriro ere Iker Sanchez hirugarrena lortu zuen.

**Berdintzea lortu zuten**

UDako jokalarien akats baten ondoren 3-2 hurbildu ziren Trintxerpekoak eta ondoren berdinketaren gola egin zuten, jokaldi polit batean.

Zelai erditik atera, eta hiru pase egin ostean UDak laugarrena egin zuen. Aitor Perez izan zen golegilea.



Julen Eraña Trintxerpeko kapitainarekin lehian. | JULIO CALLEJA

A.E. | ARETXABALETA

Gol asko ikusi zituzten Ibarra joandako zaleek atzo, baina sufritu ere asko egin zuten. Aretxabaletak garaipena lortu zuen,

## OHOREZKO ERREGIONALA

# Bergara puntu barik itzuli da eta Mondra bakarrarekin

Irabazten hasi ziren arrasatearrak, baina 'Delpa' kaleratutakoan ezin izan zieten eutsi hiru puntuei

MIRARI ALTUBE | ARRASATE

Ez Mondrak, ez Bergarak ez zituzten hiru puntuak eskuratu zapatuan. Mondrakoek, bat ekarri zuten Zumarragatik Urolari hortzak erakutsi ostean (Urola 1-Mondra 1), baina hori baino gehiago behar dute azken postutik ateratzeko. Bergarak, ostera, punturik ez, (Real Union 2 - Bergara 1) baina partidu ona jokatuakotsentazioarekin itzuli ziren Neka Galanen mutilak.

## Bergara ezin berdindu

Espero bezalako partidua izan zen Real Union eta Bergararen artekoa, gogorra; izan ere, sailkapenean oso parekatuta dabilta bi taldeak.

Lehenengo zatian iritsi zen etxeoen gola; falta bat atera ondoren urruntzen asmatu ez, eta gola. Halaxe joan ziren atsedendaldira eta bigarren zatia hasi orduko Real Unionen bigarren gola etorri zen, bosgarren minutuan hain zuzen. Horren ostean lasaitu egin ziren etxeoak eta

orduan Bergara izan zen zelaian jaun eta jabe. Halaxe iritsi zen Anderren gola. "Jokoa aldatu dugu eta mendean hartu ditugu.

Arean sartuta egon gara bigarren zati ia denean, baina azkenean ez da iritsi berdinketaren gola", zioen penaz Neka Galan entrenatzaileak bukaeran.

### ESANAK

**"Jarrera aldatuta jokatu dugu eta gustura geratu gara"**

MIKEL GARCIA  
MONDRAKO ATEZAINA

**"Partidu ona egin dugu eta berdinketa merezi genuela uste dut"**

NEKA GALAN  
BERGARAKO ENTRENATZAILEA

### Lehenengo gola Mondrarena

Mondrakoek puntuak behar dituzte zulotik atera eta aurrera egiteko, eta hirurak eskuratzekotan ere izan ziren zapatuan, Zumarragan. Izan ere, jarrera aldatuta eta gogotsu zelairatu zirela jakinarazi du Mikel Garcia atezainak eta hori igarri egin zela jokoan. Hala, lehenengo zati polita jokatu zuten, Urolakoei hortzak erakutsita, baina ez zen golik iritsi.

Bigarren zatiaren hasieran etorri zen hain zuzen gola; Andoni Aizpuruak egin zuen. Baina ondorengo jokaldian, 55. minutuan, *Delpa* kaleratu zuen epaileak bigarren txartel horia erakutsita, eta horrek aldatu egin zuen partidua. Larri ibili ziren Mondrakoak ordutik, eta hiru puntuei eusten ahalegindu arren 78. minutuan Urolakoek berdindu egin zuten.



EMAKUMEAK BIGARREN MAILA

JULIO CALLEJA

## Bina berdindu du Mondrak

Irabazten jarraitu gura zuten Mondrako neskek azken bi partiduetan legez, eta San Inazio taldea horretarako aproposa izan arren —sailkapeneko zuloan dagoelako—, ezustekoak ematen badakitela erakutsi zuten bizkaitarrek, eta bi gol egin arrasatearrei. Hala, berdinketarekin (2-2) konformatu behar izan zuten etxeoek.

### PREFERENTEA

## Hiru gol eginda gailendu zaio Antzuola sailkapeneko azkenari

Itxura batean partidu samurra izan behar zuen sailkapeneko zuloan dagoen Intxurreren aurkakoak, eta Garairen mutilek ez zuten hutsik egin. Hiru gol egin zizkioten (3-0) eta bigarren postuan zergatik dagoen erakutsi. Zapatuan lehenengo dagoen Lagun Onak taldearen etxera joango dira hortzak erakustera.

### EUSKAL LIGA GAZTEAK

## Irabazi egin dio Aretxabaletak Beasaini bi gol sartuta

Etxean irabaztera ohitu da Aretxabaleta eta atzo ere ez zuen hutsik egin. Partidu zaila zuen aurrez aurre UDAK, indarrak parekatuta dabilzailako bi taldeak, baina bi gol egin Beasaini (2-0) eta hiru puntuak eskuratu zituen; jaitziera postuetatik urrundu eta sailkapenean gora egiteko ezinbesteko puntuak.



**dks '11**  
debagoieneko  
IV. kirolsariak

## Debagoieneko kirolaren sari banaketa ekitaldia

Urtarrilak 20 ostirala  
Elgetako Espaloian | 19:00

Debagoieneko nork merezi du herritarren saria?

**egin zure proposamena!**

[www.kirolsariak.com](http://www.kirolsariak.com)

ANTOLATZAILEA

**goiena**  
KOMUNIKAZIO TALDEA

KOORDINATZAILEA

**arteman**  
KOMUNIKAZIOA

BABESLEAK

**Kanpazar obate**  
— harrobiak —

**mn**  
MONDRAGON  
UNIBERTSITATEA

**la Caixa**



Ford Mugarriko jokalarri Josu Herrero jaurtiketa egiteko gertu. | JULIO CALLEJA

KEPA ISASMENDI  
JOKALARIA

**"Entrenamendu gogorak egin ditugu opor egunetan eta hori nabaritu egin dugu"**

Pozik zeuden jokalariek taldeak egin-dako lanarekin. Iazko txapeldunak mendean hartu izanak taldea indartu egiten duela nabarmendu zigun Isasmendik.

**Hasieratik hartu duzue aurre markagailuan.**

Bagenekien partidua zaila izango zela, iaz txapeldunak izan ziren eta horrek aparteko indarra ematen du. Motibazio horrekin irten gara irabaztera eta azkenean bi puntuak etxean geratu dira.

**Nola jokatu duzue?**

Lehenengo zatian arazoak izan ditugu, baloia alde batetik bestera mugituz gero batez ere, ondo defendatu digutelako. Gero saiatu gara baloia azkar mugitzen eta faltak ez egiten. Hala, zuloak sortu dira atzealdean eta horiek aprobetxatu ditugu.

**Opor egunetan gogor lan egin duzue.**

Gabonetan entrenamendu gogorak egin ditugu eta hori nabaritu dugu. Defentsan gogor ibiltzek eragiten du eraso eta kontraerasoak azkarrago egitea, eta gainera eraso umore hobearrekin joatea. Hori nabaritzen da gola egiterako orduan.

**Aurrera begira, zer?**

Lanean jarraituko dugu asteen zehar eta partiduz partidua joango gara.

## EUSKADIKO TXAPELKETA

# Defentsa indartsua eginda irabazi zuen Ford Mugarrik

- Iaz txapeldun izan zen Corazonistas taldea hartu zuen menpean
- Ligan lehenengo postuan dago Ane Herreroen taldea

## EMAITZA

FORD MUGARRI ARRASATE

# 32-27

CORAZONISTAS

## ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Gabonetako oporretan lana ondo egin dute arrasatearrek. Defentsa lana ondo landu dute eta zapatuan, hori nabaritu egin zen Iturripen. Intensitate handiarekin jokatu zuten arrasatearrek eta iaz txapeldun izan zen Corazonistas taldea samur hartu zuten menpean.

Hasieratik sartu ziren partiduan Ane Herreroen mutilak. Defentsan intentsitatearekin jokatu zuten eta eraso irteterako orduan laguntza asko eman zuten. "Baloia ongi mugitu dugu eta horrek ekarri du zulo asko topatzea", azaldu zuen amaieran Herrero entrenatzaileak. Gainera, Valle atezainak egindako lana nabarmendu zuen entrenatzaileak.

Atsedendira zazpi goleko aldearekin iritsi ziren etxeok: 18-11. Bigarren zatian alde hori mantentzea izan zen etxeo jokalarien

helburua. Horretarako, baina, gogor egin behar izan zuten lan.

**Defentsa mistoa izan zuten**

Bigarren zatian Corazonistas taldeak defentsa mistoa egin zuen: 4 eta 2. Horrelako defentsarekin eraso zaildu egiten zaio Arrasateko taldeari, baina zapatuan ondo hartu zioten neurria eta aurkarien defentsan ondo tapatu zituzten zuloak.

Hala ere, azken 10 minutuetan erlaxatu egin ziren etxeo jokalariek eta partidua irabazitzat jo zuten. Herrero azaldu zuen ezin dutela horrelakorik onartu: par-

tiduko 60 minutuetan egon behar dutela jokoan zentratuta. Hori horrela, entrenatzailea ez zen gustura geratu azkeneko 10 minutuetan taldeak izan zuen jarrearekin.

**Ligan, lehenengo postuan**

Arrasateko taldea ligan lehenengo postuan dago, bigarrenarengandik zazpi puntura. Partiduz partidua ondo egitea da euren helburua, izan ere, badakite oraindik liga asko geratzen dela (11 partidua). Neurketak momentu oro ondo irakurtzen jakin behar dutela nabarmendu du Ane Herrero entrenatzaileak.

## LEHENENGO TERRITORIALA

## Gol festa izan zuten atzo Zubikoan: 42-31 nagusitu zen Aloña

Aloña Mendik samur irabazi zuen Donibaneren aurkako lehia. Oñatiarrak hasieratik jarri ziren aurretik markagailuan: atsedendian, 19-15 zihozten irabazten. Etxeko jokalariek lasai jokatu zuten lehenengo zatian eta bigarrenaren erritmoa aldatu zuten. Intensitate gehiagorekin jokatu zuten eta ondorioz markagailuko alde asko igo zuten: 42-31. Oñatiarrak ateratako alde nabarmena den arren, esan behar da defentsan ez zirela fin ibili; ondorioz, 31 gol jaso zituzten. Oñatiarrak zortzigarren postuan daude sailkapen orokorrean.

## EUSKADIKO TXAPELKETA

## Aloña Mendiko neskek 21-26 nagusitu ziren Ereintzaren kantxan

Idurre Elortzak zuzentzen duen taldeak 21-26 irabazi zuen zapatuan. Partidu nahiko parekatua izan zen, eta horren erakusle da atsedendian gol bakarreko alde zuela talde oñatiarrak. Joko aldetik ondo ibili ziren Aloña-koak; "betiko moduan" jokatu zutela azaldu du Elortza entrenatzaileak, baina taldeak izandako jarrera nabarmendu du, bereziki: "Jarrera ona izan dute jokalariek partiduan". Bigarren zatian, markagailuko alde handitzen joan ziren heinean, Ereintzak behera egin zuen. Hala, bi puntuak etxera ekarri zituzten.

## EUSKADIKO TXAPELKETA

## Beharrezko garaipena mahoneroendako

Soraluce B.K.E. taldeak 29-25 irabazi zion Urdulizi. Muniategiren taldeak agudo hartu zuen aurre markagailuan -4-0 hirugarren minutuan-, baina partiduko azkeneko minutuetan sufritu egin behar izan zuen. "Baloia asko galdu ditugu", azaldu zuen Josetxo Muniategik. Beharrezkoa zuten garaipena mahoneroek.



JULIO CALLEJA

# Helburu guztiak bete ez arren gustura itzuli dira Hego Polotik Iñurrategi, Vallejo eta Zabaltza

Atzo goizean iritsi ziren Loiuco aireportura Txiletik bueltan 30 orduko bidaia egin eta gero

MIRARI ALTUBE | ARETXABAETA

Bi hilabeteko espedizioaren ondoren etxean dira Alberto Iñurrategi, Juan Vallejo eta Mikel Zabaltza. Txiletik bueltan eta 30 orduko bidaia egin ondoren Loiuco aireportura iritsi ziren atzo goizean "nekatuta baina gustura eginda-koarekin".

## Oso gogorra psikologikoki

Loiuco aireportuan esan zituzten lehen berbak hiru mendizaleek haien abenturen berri izateko gogoz zeudenak asetzeko: "Eguneroko lanera itzultzeko ordua da orain. Helburua bete dugu, neure ustean, eta gustura gaude", esan zuen Iñurrategi aretxabaletarrak. Eta espedizioaren gogortasunaren zertzelada batzuk eman zituen: "Eguneroko tentsioa izan da gogorra, proiektua zapuztu zezaketen eragile asko zeudelako, hotzaz gain: kometekin genbiltzala pasatako

beldurra lurzoruaren egoera txar-rragatik; lurrean zeuden gorabehera zorrotzak zeharkaldi guztian; hanketan sentsibilitate galera... Baina egunek aurrera egin ahala, geu ere aurrera gindoazen eta hotza ere jaisten joan zen".

Helburu guztiak ez dituztela bete onartu zuen Vallejok "Maud erreginaren lurretan ezin izan dugulako eskalatu", hala ere gustura zeuden hirurak: "Poloetako espedizioetan adituak ez gara eta badakigu guk egindakoa ez zela izango poloetan egin daitekeen zailenetakoa. Kometak erabiltzen eskarmentu askoz handiagoa dutenak badaude, baina gu gustura gaude egindakoarekin", zioen Iñurrategik.

Eta Zabaltzak gaineratu zuen halako espedizioak ezin direla sarri errepikatu: "Fisikoki oso gogorak direlako, baina psikologikoki oraindik ere gogoragoak".



Zabaltza, Vallejo eta Iñurrategi atzo goizean, Loiuco aireportuan sartzen. | BASQUE TEAM

## Zeharkaldia egindakoen artean

Azaroaren 16an atera ziren errusiarren Antartikako basetik 170 kiloko lerekin, eta abenduaren 29an iritsi ziren Hego Polora, 2.200 kilometro egin ondoren. Zeharkaldi benetan gogorra izan zen: haizea sarritan aurka, lurzoru arriskutsua eta 45 gradu zeroz azpiko tenperaturak. Urtarrilaren 9an, 11 egunetan 1.200 kilometro egin eta gero, Hercules badian ziren, Antartika zeharkatzeko ibilbidea zabaldua. Izotzezko desertu hori zeharkatu dutenen artean daude orain hirurak.

## ESANAK

"Eguneroko tentsioa izan da gogorra, proiektua zapuztu zezaketen eragile asko zeudelako"

"Poloetako espedizioetan adituak ez gara, eta eskarmentu gehiagokoak badira, baina ni gustura nago"

ALBERTO IÑURRATEGI | ALPINISTA



Eskoriatzako jokalaria jaurtiketa egin nahian. | JULIO CALLEJA

# Eskoriatzak ezin izan zuen liderra menderatu (42-51)

Partidu borrokaturia izan zen, baina zarauztarrek hasieratik lortu zuten markagailuan aurre hartzea

ANDER MONEDERO | ESKORIATZA

Hasieratik zekiten Inma Muriilloren neskek zapatu arratsaldeko partidua oso gogorra izango zela, eta hala izan zen. Intentsitate handiko neurketa izan zen, eta estrategiak garrantzia handia izan zuen. Murkil Zast taldeko entrenatzaileak agerian utzi zuen ondo baino hobeto ezagutzen dituela eskoriatzarren mugimenduak eta hasieratik etxeko taldea blokeatzea lortu zuen.

Eskoriatzarentzat garrantzitsua zen zapatuan garaipena lortzea, liderrarekin eta Cafes Aitona taldearekin puntuetan berdintzeko aukera baitzuen.

Talde zarauztarrek abiadura handiko partidua egin zuen. Etxeko taldeak ez zuen erasoan zorte handirik izan, eta defentsan ere ez zuen ohiko maila erakutsi.

Bigarren zatian, defentsa zona aldatzea erabaki zuen Inma Muriillo entrenatzaileak eta kanpoko

taldeak ezin izan zuen egin lehen zatian bezainbeste min. Zarauztarrek badakite nola jokatu duen etxeko taldeak eta defentsan bikain aritu ziren.

Azken laurdenean, Murilloren neskek lau puntura hurbildu ziren, baina partidu osoan egindako lanarengatik zuten nekearengatik, behera etorri ziren. Azkenean, zarauztarrek bedertzi puntuko aldea lortu zuten.

## 2. itzulia bukatzeko bi partidu

Bigarren itzulia bukatzeko bi partidu baino ez dira geratzen: lehenengoa, etxean, Cafes Aitona B, sailkapeneko azkenaren aurka; eta bigarrena, Donostian Cafes Aitonaren aurka. Bi partiduak irabazi ezker lider izateko aukera dute Murilloren neskek.

## SASKIBALOIA

### Natra Aloña Mendi esku hutsik bueltatu zen Zornotzatik (79-62)

Aloña Mendik ezin izan zuen Zornotzan hainbeste behar duen garaipena lortu eta sailkapeneko azkenengo postuan jarraitzen du. Oñatiarrek azkenengo tokian bukatuko dute ligaren lehenengo itzulia. Sailkapena oso estu dago eta bigarren itzulia dute egoerari aurre egiteko.

## SASKIBALOIA

### MUk garaipen garrantzitsua lortu zuen Ceniceron (71-96)

La Alcoholeraren aurka garaipena lortu ostean, sailkapenaren erdialdera begira dago MU. Partiduaren hasieratik nagusitu ziren eta lehenengo zatia 19 puntuko aldearekin bukatu zuten. Ildo beretik joan zen bigarren zatia ere eta bukaera lasaia izan zuten.



ARETO FUTBOLA

JULIO CALLEJA

## 3-5, puntuak Gasteizera

Eskoriatzak ezin izan zuen EHUn aurka garaipena lortu. Lehenengo zatian, etxeko taldea izan zen nagusi eta 2-1 joan ziren atsedenaldira. Bigarren zatian, EHUK estutu egin zuen eta partiduari buelta ematea lortu. Etxekoek hirugarren golarekin berdindu zuten, baina azken minutuetan, EHukoek etxekoek baino punteria hobea izan zuten.

MENDIKO ESKIA

# Elurraz gozatzeko eskaintza zabala Debagoieneko kirol taldeen eskutik

Eski irteera ezberdinetan izena emateko aukera zabalik dago gaurtik

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Kirol zuriaren txanda iritsi da ibarrera; elurraz gozatzeko aukera zabala dago Debagoieneko kirol taldeen eskutik.

Bergarako Pol-Polek mendi eski irteera antolatu du urtarri-

laren 21 eta 22ko astebururako; Zurizara joango dira. Irteera honetan izena emateko azken eguna bihar, martitzena, da. Intereza dutenak bihar bertan Pol-Poleko bulegoan egingo duten batzarrera joatea gomendatzen

dute. Guztira, baina, lau mendi irteera egingo dituzte aurten. Derrigorrezkoak dira federatuta egotea, eskiatzen jakitea eta material egokia eramatea.

Oñatiko Aloña Mendiko eski sailak, aldiz, urtarrietik martxora, hiru irteera egingo ditu Baqueirara: bi eskiatzera, eta hirugarrena zeharkaldiko eskia egitera. Izena Aloña Mendiko tabernan eman daiteke, astelehenean. Lehen irteera hilaren 27tik 29ra egingo dute. Bestalde, Aloña Mendiko mendi sailak Pirinioetara eski irteera antolatu du otsailak 25 eta 26rako.

Besaidek ere eski eskaintza zabalarekin hasiko du denboraldia. Hala, lehen irteera Anayet-Aspera egingo du. Joan nahi dutenek gaur edo bihar eman beharko dute izena Besaideko egoitzan, 19:00etatik 20:00etara.

Honetaz gain, eski alpinoa egiteko aukera ere eskainiko du Besaidek: Formigalera zenbait irteera egingo dituzte; lehena, urtarrilaren 21 eta 22an. Gainera, GMF-k antolatutako izotz eskalada ikastaroa eta mendi eski ikastaroa ere eskainiko dituzte. Egutegia, prezioak eta informazio guztia [www.besaide.org](http://www.besaide.org) webgunean daude ikusgai.



Lagun koadrila eski zeharkaldia egiten. | POL-POL

SNOWBOARD

# Hasiera bikaina izan du Manex Azula 'rider'-ak Joko Olinpiarretan

MAIDER ARREGI | BERGARA

Manex Azula snowboard *rider* bergararrak estreinaldi ona izan du Austriako Joko Olinpiarretan. Izan ere, ia-ia finalera sailkatzea lortu du aste bukaeran egindako half-pipe izeneko proban. "Semea pozik eta lasai aurkitu dut. Pena izan da, egin duen lehen proba honetan batengatik ez baita finalerako sailkatu", kontatu digu Josu Azula aitak.

Baina Manex Azula espezialista da sloop-style izeneko proban eta modalitate honetan,

hain zuzen ere, egunean izango da bere txanda. Dena ondo bidean, finala barikuan jokatuko luke. "Bere burua oso ondo ikusi duela esan dit; esperantzak ditu eguneko probarako eta helburu nagusia barikuan egingo den finalerako txartela eskuratzeko du", gaineratu digu aitak. "Orain astea jo eta su entrenatzen igaroko du hilaren 19an sailkapen proban emaitzarik onena eskuratzeko".

Manex Azula datorren astelehenean itzuliko da Bergarako bere etxera.



Manex Azula snow 'rider'-a. | GOIENA

## FUTBOLA

**OHOREZKO ERREGIONAL MAILA**

**EMAITZAK**

Pasaia-Roteta	2-0
Aloña Mendi-Behobia	1-1
Anaitasuna-Diartzun	0-1
Berio-Elgoibar	2-0
Real Union-Bergara	2-1
Tolosa-Hondarribia	1-0
Aretxabaleta-Trintxerpe	4-3
Urola-Mondra	1-1
Aurrera-Beti Gazte	3-0

**SAILKAPENA**

TALDEA	P	J
1 Anaitasuna	35	17
2 Berio	35	17
3 Tolosa	32	17
4 Diartzun	30	17
5 Aretxabaleta	30	17
6 Pasaia	29	17
7 Beti Gazte	26	17
8 Real Union	25	17
9 Aloña Mendia	24	17
10 Urola	23	17
11 Bergara	23	17
12 Elgoibar	21	17
13 Aurrera	19	17
14 Hondarribia	19	17
15 Trintxerpe	17	17
16 Behobia	13	17
17 Roteta	12	17
18 Mondra	12	17

**HURRENGO JARDUNALDIA**

Pasaia-Aurrera
Mondra-Beti Gazte
Urola-Trintxerpe
Aretxabaleta-Hondarribia
Tolosa-Bergara
Real Union-Elgoibar
Berio-Diartzun
Anaitasuna-Behobia
Aloña Mendi-Roteta

**EUSKAL LIGA, GAZTEAK**

Aretxabaleta-Beasain 2-0

**ERREGIONAL PREFERENTEA**

Eibartarrak-Aretxabaleta B 1-2  
Antzuola-Intxurre 3-0

**1. ERREGIONALA, IGOERA FASEA**

Hondarribia B-Mondra B 1-2

**1. ERREGIONALA, KOPA**

Eibartarrak B-Aretxabaleta C 0-1

**OHOREZKO GAZTEAK**

Lagun Onak-Aloña Mendi 2-0  
Elgoibar-Bergara 2-1  
Mondra-Aurrera 3-4

**GAZTEAK 1. MAILA, KOPA**

Bergara B-Aretxabaleta B 1-1  
Eibartarrak-Aloña Mendi B 2-0  
Arizmendi-Eibartarrak B 3-2

**OHOREZKO KADETEAK**

Bergara-Beasain 3-3  
Aretxabaleta-Zarautz 1-0  
Aloña Mendi-Anaitasuna 5-1

**KADETEAK 1. MAILA, IGOERA**

Oiartzun-Arrasate 2-1

**KADETEAK 1. MAILA, KOPA**

Antzuola-Soraluze 0-1  
Bergara B-Arizmendi 5-1  
Aretxabaleta B-Arrasate B 1-2  
Aloña Mendi B-Eibartarrak 0-10

**OHOREZKO INFANTILAK, KOPA**

Ilintxa-Bergara 2-2  
Arrasate-Zarautz 1-0  
Urola-Aretxabaleta 3-2  
Aloña Mendi-Tolosa 0-1

**EMAKUMEZKOAK 2. MAILA**

Mondra-San Inazio 2-2

**EMAKUMEZKOAK, IGOERA FASEA**

Arizmendi-Beasain 2-3

## ESKUBALDIA

**EUSKADIKO TXAPEL GIZON.**

Soraluze BKE-Urduliz 29-25

Ford Mugarri-Corazonistas 32-27

**1. LURRALDEKO TXAPELKETA**

Izarraitz tb. Aloña-Donibane 42-31

**2. LURRALDEKO TXAPELKETA**

Arrasate-Usturil 23-26

**GAZTE MAILA, GIZONEZKOAK**

T. Chapime Arrasate Atsedena

Aloña Mendi-Eibar 32-24

Bergara-Beristain Elgoibar 19-33

**KADETEAK, GIZONEZKOAK**

La Salle-T. Chapime Arrasate 28-34

Express Irun-Berezo Aloña Mendi 23-24

**EUSKADI TXAP. EMAKUMEAK**

Aloña Mendi-Ereitza 21-26

**GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK**

Aloña Mendi-Ereitza 20-20

**KADETEAK, EMAKUMEZKOAK**

Aloña Mendi B Atsedena

Aloña Mendi A-Ereitza 22-13

## SASKIBALDIA

**EBA MAILA**

Natra Aloña-Zornotza 79-62

**LEHEN NAZIONAL MAILA**

La Alcoholera-MU 71-96

**3. MAILA GIZONEZKOAK**

MU Atsedena

**LEHEN SENIOR GIZONEZKOAK**

Bosteko-MU 63-31

Easo Zahar-Soraluze Bergara 53-50

**GAZTEAK, GIZONEZKOAK**

Aloña Mendi-Easo 38-43

Soraluze Bergara-Santo Tomas 64-44

**KADETEAK, GIZONEZKOAK**

BKL-MU 30-57

**SENIOR, EMAKUMEZKOAK**

Eskoriatza-Murkil Zast 42-51

**GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK**

Eskoriatza-Krafft 57-56

## ARETO FUTBOLA

**EUSKAL LIGA**

Eskoriatza-UPV/EHU Araba 3-5

**GIPUZKOA, BIGARREN MAILA**

Aretxabaleta-Bilkoin 3-2

# GU RE KI RO LA

GOIENA TELEBISTA  
HARMAILATIK  
ASTELEHENERO,  
20:45, 22:30



goiena™

## FUTBOLA

Melani Concepcion | Futbol jokalaria

# "Orain arte bezala entrenatzen eta jokatzen segituko dut, aurrera egiteko asmoarekin"

- ▶ Abenduaren 19tik 22ra Badajozen izan zen 16 urtez azpikoen Euskadiko selekzioarekin
- ▶ Mondrako jokalaria ere bada, eta taldeak maila berriari neurria ondo hartu diola uste du

ARANTZAZU EZKIBEL | ARRASATE

Bergaran eta Gasteiz Cup taldeetan ibili ondoren, etxeko taldera, Mondrara itzuli da aurten Melani Concepcion gaztea. Maila ona du jokalaria eta horren erakusle da Euskadi selekzioari Jose Manuel Ocio hautatzaileak deitu izana. Etorkez polita du arrasatearrak futboleant.

**Euskadiko selekzioarekin jokatu zenuen abenduan. Nolako esperientzia izan zen?**

Abenduaren 19tik 22ra izan ginen Badajozen. Bi partidu jokatu genituen, eta gurekin batera 18 urtez azpikoak ere egon ziren, eta haiek ere bi partidu jokatu zituzten. Espainiako txapelketako lehenengo fasea jokatu genuen, eta taldeko lehenengo moduan sailkatu gara bigarren fasea jokatzeke. Oso esperientzia polita izan da selekzioarekin jokatzea, eta berriro ere errepikatzeke gogoz nago.

**Noren aurka lehiatu zineten?**

Extremaduraren eta Kanariaren aurka jokatu genuen. Lehen lehia 1-0 irabazi genuen eta bigarrenean 1-1 egin genuen.

**Noiz jokatuko duzue bigarren fasea?**

Otsail inguruan izango da bigarren fasea, eta, hori gaindituz gero, finala jokatuko genuke. Uda inguruan izango da finala.

**Noiz hasi zinen Euskadiko selekzioarekin jokatzen?**

Lehenengo aldiz 14 urte nituenean deitu zidaten, baina min hartuta nengoen eta ezin izan nuen jokatu Sevillan. Aurten berriro deitu didate eta oso gustura egon naiz.

**Taldean, nongo jokalariai zaude?**

Batez ere, Bilboko jokalariai daude Euskadiko selekzioan; baita Añorga eta Gasteizkoak ere. Hemengo jokalariai bakarra naiz.

**Espainiako txapelketako sailkapena izan da orain jokatu duzuen. Baina bestelako partidurik jokatzen duzue selekzioarekin?**

Bai, lagunartekoak jokatzen ditugu, baina entrenamendu modukoak izaten dira, gertatzeko. Entrenatzaileak deialdia egiten duenean, bi entrenamendu eta bi partidu egiten ditugu, normalean. Azken deialdia egiten du ondoren, eta aukeratutako jokalariai joaten dira txapelketara. Entrenamenduak Gasteizen, Bilbon eta Donostian izaten dira.

**Hegalean jokatzen duzu, baina baita erdialdean ere.**

Edozein tokitan jartzen naute. Normalean, hegalean jokatzen



Melani Concepcion, Mojategin, harmailetan. | ARANTZAZU EZKIBEL

du, baina erdialdean ere jartzen naute.

**Jokalaria moduan, zein da zure indargunea?**

Nire ustez, jaurtiketa da daukadan onena. Teknika ona dudala esaten didate, baina jaurtiketa nabarmenduko nuke nik. Abiadura aldetik, adibidez, ez naiz oso azkarra.

**Nolako harrera izaten dute Euskadiko selekzioaren partiduek?**

Nahiko harrera ona izaten dute, ikusle asko batzen da lehia ikusateko. Badajozen, esaterako, iku-

**"Esperientzia polita izan da selekzioarekin jokatzea"**

**"Jaurtiketa da daukadan onena, eta teknika ona dudala esaten dute"**

rrina asko ikusten ziren, hangoak baino gehiago. Alde horretatik, babes handia izan dugu jarraitzaileen aldetik.

**Azaro inguruan, mutilen aurka jokatzen zenuen partidu bat Bergaran. Ohikoak izaten dira horrelako lehiak?**

Horrelako lehiak egiten ditugu entrenamendu moduan, mutilak gu baino indartsuagoak direlako fisikoki. Fisikoaz gain, taktika ere entrenatzen dugu. Esan behar da entrenamendu modukoak izan arren guk benetako

partidu moduan hartzen ditugula horrelako lehiak. Normalean, galdu egiten dugu; Bergarakoen aurka, adibidez, 12-1.

**Federazioaren aldetik nolako laguntza izaten duzue?**

Erabateko laguntza ematen digute. Guk ez dugu ezer ordaintzen; alde horretatik, mutilen tratua bera izaten dugu.

**Mondrako jokalaria zara gaur egun. Aurrez, Bergaran eta Gasteizen jokatu izan duzu. Zer dela eta?**

Txikitik, 4 urterekin hasi nintzen futboleant jokatzen Arrasaten. 6 urte bete arte hemen ibili nintzen eta gero Bergaratik deitu zidaten, eta hara joan nintzen. Orain dela hiru urte Gasteizera joan nintzen. Lehen nazional mailan zegoen Gasteiz Cup, baina iaz kategoria galdu genuen. Territorialean jokatzeke Gasteizera joaten ibili beharrean, nahiago izan dut hemen geratu. Eibarrek ere deitu zidan, baina nahiago izan dut hemen geratu.

**Maila berria estreinatu duzue aurten. Nola doa denboraldia?**

Nik esango nuke ondo doala. Zazpigarren postuan gaude; hala ere, azkeneko partiduak ez dira oso onak izan. Maila berria izateko ondo gabilta, nik uste nuen okerrago ibiliko ginela, baina taldea aurpegia ematen dabil.

**Nolakoak dira zuen aurkariak?**

Athletic dago, haien aurka jokatu genuen lehenengo lehia (3-1 galdu). Bilboko taldeak inguruko jokalariai onak hartzen ditu, esan daiteke Bizkaiko selekzioa dela. Onenak dira.

**Zein da zuen helburua kategoria honetan?**

Mailari eustea da gure helburua. Liga nahiko nahasia da eta nik uste dut ez dugula arazorik izango mailari eusteko.

**Oraindik oso gazte zara. Nora iritsi gurako zenuke futboleant?**

Ahal den lekuraino. Nik orain arte bezala segituko dut, entrenatzen eta jokatzen. Euskal selekzioan egoteak atak irekitzen ditu; adibidez, Espainiako txapelketetan Espainia selekzioari entrenatzaileak egoten dira. Gainera, Mondraren bigarren mailan jokatzeak ere atak irekitzen ditu.

**Baduzu jarraitzen duzun talde eta jokalaririk?**

Talde onena Bartzelona da. Beti Athleticekoa izan naiz, baina talde moduan onena Bartzelona da, dudu barik. Jokalariai moduan, adibidez, Xabi gustatzen zait asko.

# KULTURA

## Asko egiteko dagoen arren, "justizia apur bat" egitea lortu da jaialdian

- ▶ Zauriak ixteko justizia ezinbestekoa dela nabarmendu du Intxorta 1937 elkarteak
- ▶ Memoria historikoari errespetua adierazi zioten 'Noiz arte justiziarik gabe?' jaialdian

MAIDER ARREGI | ARRASATE

Justizia aldarrikatzeko jaialdian fusilatu, zigortu, errepresaliatu, eta ahaztuei omenaldi xume eta hunkigarria egin zieten egubakoitzean. Amaia antzokian, adin ezberdinetako jendea elkartu zen; gazte zein heldu, guztiak bat egin da, gertatutakoa ez ahazteko. Julia Mongek, Intxorta 1937 elkarte kideak berretsi zuenez, "justizia, egia eta errekonozimendua beharrezkoak dira zauriak ixten laguntzeko eta etorkizuna indartzeko".

"Ahaztu ezin dena, oraingo gazteei transmititzea behar beharrezkoa dena", horixe izan zen behin eta berriro azpimarratu zutena askok *Noiz arte justiziarik gabe?* jaialdiaren bukaeran. Gazte zein helduei, denei barrua mugiarazi zien gerran oinarritutako musika eta dantza ikuskizunak. "Hunkigarria izan da berriro gogoratzea gertatu zena", nabarmendu ziguten Osintxuko Musiraka dantza taldekoek.

### Gertatutakoari errespetua

Intxorta 1937 elkarteak antolatutako jaialdian, musika izan zen protagonista. Garai batean gure herriak bizitakoa oinarri duen emanaldiak begiak busti zizkion bati baino gehiagori.

Memoria historikoari errespetua adierazi zioten ekitaldian. "Asko egiteko dagoen arren, justizia zatitxo bat egitea lortu dugu jaialdi honetan", gaineratu zigun Julia Mongek.



Musiraka dantza taldeko kideak, jaialdirako propio egindako ikuskizunean. | JULIO CALLEJA

Xarma taldeak propio egindako *Isiltasun hautsiak* kantua-rekin egindako ikus-entzunezkoak eman zion hasiera jaialdiari: *Apirilaren 23an sartu ziren Erorrietik... zenbat malko eta zenbat odol isuri zen... haien lekukotasuna daukagu gertatutakoa inoiz ez ahazteko... bihotza uzkuratzen duten hitz eta irudi hunkigarriekin, txalo zaparradak etorri ziren, hasiera hasieratik.*

Mozarten *Requiem* melodia esanguratsuak pisua hartu zuen antzokian. Eszenatokian, ikurriña eta errepublikako banderak esku



Angerrekoko Arkaitz Biain Gose taldeko Ines Osinagarekin. | JULIO CALLEJA

artean zituztela, Osintxuko Musiraka dantza taldeko kideak, Domentx Uzin, Juan Fernandez eta Eider Varela musikariekin batera. Musirakak jaialdirako propio egindako dantza ikuskizuna taularatu zuen.

Ondoren etorri ziren zuzeneko gehiago: Ain\_1; Petti, Eñaut eta Andoni; Gose; eta Anger.

Ain\_1 taldeko neskek, *Musika kaxa* ireki eta gerraosteko istorioak azaleratu zituzten. Hala, *Amantalen ahotsa* taldeko kide batek esandako hitzak ere ekarri gura izan zituzten: "Umeak garai gogorren aurrean, egunero dutxatu gabe, kuleroak astean behin aldatuta, baina zoriontsu ziren". Silvio Rodriguez musikari eta poetaren euskarazko bertsio txukuna ere aurkeztu ziguten.

Petti, Andoni eta Eñaut hiru-koak Amaiurko gaztelu beltzaren gaineko gertaera azaleratu zuten. Eta ondoren, Goseko Ines Osinagaren laguntzarekin, Eneko Barberenak idatzitako *Surik bai?* abestiaz gozatzeko aukera izan zen. Ondoren etorri ziren Gose eta Anger talde arrasatearrak, jaialdiari bukaera borobila emateko. Goseko Ines Osinagak "ea inoiz gehiago ez garen batu behar justizia eskatzeko", esan zuen. Angerrekoko Arkaitz Biainek, aldiz, "askatasun kolektiboaren alde lan egiten dutenak" nabarmendu gura izan zituen.

Oraindik egiteko asko dagoen arren, justizia zatitxo bat egitea lortu zuten denen artean.



**JOXE ETA MERTXE**  
ARRASATE

"Nire ama baserrikoa zen eta oso gertutik bizi izan dugu gertatutako guztia. Etxean makina bat gerrako istorio entzunda ditut. Frankoren garaian denak ginen gaiztoak; nazionalista guztiak kartzelan bukatzen zuten. Gertatu zena ezin da ahaztu. Ikuskizuna oso polita izan da; agian, bukaerako musika guretzako gogorregia, baina orokorrean gustatu zaigu gazteek egin duten jaialdia".



**ONINTZE ETA AITOR**  
ARRASATE

"Derrigorrezkoa eta beharrezkoa da horrelako ekimen bat egitea gertatu zena ez ahazteko eta belaunaldi belaunaldi transmititzeko. Politza izan da, eskertzen da herriko musika talde ezberdinekin horrelako ikuskizuna egitea. Gertatutakoa ozen entzun behar da, zabaldu".



**GARAZI ETA IRIA**  
OSINTXU

"Gure adineko jendeak ez du bizi izan gertatutakoa. Horregatik gazteei jakinarazteko eta guztiok presente izan dezagun beharrezkoak dira horrelako ekimenak. Musiraka dantza taldeko kideak gara eta jaialdirako propio egindako dantza ikuskizuna ekarri dugu".



**JULIA MONGE**  
ARRASATE

"Belaunaldi gazteak erakartzea izan da helburua; gazteen ikuspegitik, nahi izan dutena taularatu dute. Bakoitzak berea jarri behar du justizia lortzeko. Guk liburu-CD formatua aurkeztea pentsatu genuen gazteendako".



Eskaintzeko dute daukatena: irribarra, beti; eta besterik bada, hori ere bai. | JULIO CALLEJA

# Irribarrea Bergarako Aspacetik Aroztegira

Nekane Lazkano argazkilariak garun-paralisia dutenen erretratuak zintzilikatu ditu aretoan

GOIATZ ARANA | BERGARA

Haritz, Lucia, Maria Luisa, Kontxita, Miren, Irantzu... denak daude Aroztegira doazen bisitariari begira, aretoko paretetatik; hausnartzen, jaten, otarrak egi-

ten... baina irribarre batekin, beti. Nekane Lazkano argazkilari bergararrak jaso ditu erretratuak; aukeraketa egin eta erakusketa osatu du. Barikuan ireki zuen Aroztegin.

Hamasei urte zituenean Bergarako Aspacen egin zuen lan eurekin eta urte batzuk geroago itzuli egin da; argazki kamera eskuetan, oraingoan. Hilabetez joan da, ia egunero.

NEKANE LAZKANO | ARGAZKILARIA

## "Duten naturaltasunak erraztu egiten du argazkilariaren lana"

Irekitzekoa zen erakusketaren egilea izanik, Nekane Lazkanok ez zuen hutsik egin bariku iluntzean, Aroztegin. Eroso aurkitu genuen garun-paralisia dutenen begiradapean.

**Ze lotura duzu Bergarako Aspacerekin?**

Hamasei urte nituenean han lan egiteko aukera izan nuen eta, hain gaztea izanik, bertako errealitatea gogorra egin zitzaidan. Gerora, jendeari erakutsi nahi izan diot, beste aldera begiratzea delako joera ohikoena gizarte honetan.

**Erraza izan da eurei erretratuak ateratzea?**

Beste edonori egitea baino errazagoa! Oso naturalak dira, diren modukoak, ez dago besterik. Eurenara daude eta ez zuk zer egingo. Horrek asko errazten ditu gauzak. Badugu zer ikasi eurengandik.



Nekane Lazkano. | G.A.

**Gusturageratu zara emaitzarekin?**

Gustura geratu naiz, nahiz eta denboraz justu ibili. Erakusketatik ikus-entzunezko txiki batekin laguntzea zen nire asmoa, baina ez dut astirik izan, azkenean. Momentuz, hauxe da dagoena.

**Euskal Herriko muga gaintzea duzu buruan...**

Asko gustatuko litzaidake erakusketak Madrilera edo Bartzelonara eramatea. Ez dakit nahikoa maila duen, baina pentsatu nahi dut baietz. Ikusiko dugu.

**Bergaran egiten duzun bigarren erakusketa da hau; Pobreza en Roma izan zen lehena. Gustuko dituzu gai sozialak.**

Bai, atsegin dut nolabaiteko konplexutasuna duten gaiak argazkitan jasotzea eta, ahal bada, ahulenei laguntzea.

Garun-paralisia dutenen naturaltasunak erakarri du Lazkano eta benetakotasun hori gizarteari erakusteko helburuarekin atera du aurrera proiektua, "asko dugulako ikasteko eurengandik", bere esanetan. Erakusketak etxean, herri bertan, ikusi du argia lehen aldiz, baina egileak baditu beste geldialdi batzuk buruan; Madril eta Bartzelona horien artean.

Erakusketak zabalik daramatan egunetan izandako harrerak erakusten du interesa piztu due-

la: bariku arratsaldetik zapatu iluntzera bitartean 240 lagunengana bisita jaso zuen.

**Protagonistak ikusle**

Argazkietako protagonistek ez dute oraindik erakusketa ikusi, baina Aspacetik Aroztegira txangoa antolatzekeo ideia Lazkanoren buruan dabil bueltaka. Hilaren 29ra arte dute horretarako aukera. Egun horretatik aurrera, egileak [nekanelazkano.com](http://nekanelazkano.com) webgunean zintzilikatuko du erakusketa.

## Atzo, gaur eta biharko punk oi!-a Menace, CC-627 eta Interprete Desconocidorekin

Azken orduko arazoengatik Achtung!-ek ez zuen jo eta, Menace talde beteranoarekin batera, Debagoieneko bi talde gazte aritu ziren Gaztetxean

ANDER MONEDERO | ARRASATE

1977ko Londreseko punk ez-tandaren taldeetako bat, Menace, Arrasateko Gaztetxean izan zen. Aurretik, baina, ikusleak berotzeko Arrasateko Interprete Desconocido eta Oñati eta Arrasateko kideak dituen CC-627 taldeak izan ziren.

Jaialdian Achtung! talde hernaniarrak ere parte hartu behar zuen, baina abeslariaren bizkarreko lesio baten erruz, ezin izan zuen emanaldia eskaini.

Oholtza gainera igotzen lehenengoak Interprete Desconocido arrasatearrak izan ziren. Talde gazte honek punk eta oi! doinuak lantzen ditu eta kontzertu energikoa eskaini zuen.

Bigarren taldea punk-rocka egiten duen CC-627 taldea izan zen. Nahiz eta kontzertuko pro-



Menace egubakoitzean Arrasateko Gaztetxeko kontzertuan. | JULIO CALLEJA

tagonista Menace izan, ikusle asko talde hau ikustera joan ziren eta hauek bukatzerakoan ez ziren talde britainiarra ikustera gera-

tu. 77ko punk ez-tandaren parte izan zen Menace, baina talde honek ez zuen Sex Pistols, Sham 69 edo The Damned taldeen ospea

lortu. Nahiz eta taldeak bere inguruko hainbat izen handia ez izan, musika estilo hau entzun duten askok ezagutzen dituzte euren abestiak.

Menace etenaldi asko izan dituen taldea izan da, baina Noel Martinek eta Charlie Caseyk hasierako ilusio berdinarekin jotzen jarraitzen dutela esan daiteke. Izan ere, aurreko taldea oholtzatik jaitsi ahala ikusle asko joan ziren gaztetxetik, baina behera etorri beharrean, bertan izan ziren guztiak saltoka jarri zituzten.

Taldeak 2009an kaleratutako *No Escape From Nowhere* disko abestiak jo zituen, baina ez ziren falta izan taldearen kantu mitikoak: *GLC*, *Test of time* edo *The young ones* abestiak. Ezta beraien lehenengo single-a izan zen *Screwed Up* ere.

Nahiz eta oi! musikaren zaleen artean ezaguna izan, Menacek 77ko punk soina du. Kontzertu bizi eta azkarra izan zen, 60 minutu inguru iraun zuen eta, bukatzeko, ikusleei reggaea gustuko duten galdetu eta dantzan jarri zituen The Specialsen *Monkey Man* abestiarekin.

## Bost tailer egingo dituzte Bergarako gaztetxean

G.A. | BERGARA

Urtean zehar tailer ezberdinak egitea erabaki du Bergarako Gazte Asanbladak, gaztetxe bat ondo pasatzeko, eskaintza kulturalaz gozatzeko edo jaiak ospatzeko leku bat baino gehiago delako, euren esanetan.

Jada prest dute urtarrilerako eta otsailerako eskaintza: urtarrilaren 18tik apirilaren 18ra, eguaztenetan, 18:00etan, taila ikastaroa; 21ean hasita, zapatuetan -17:30-19:30- didgeridoo tailerra; otsailetik aurrera, barikutan, bertso eskola; otsailaren 4tik, euskal dantzak; eta otsailaren 11n hasita, salsa. Azken biak izango dira: zapatutan, 10:00etan eta hamabostean behin.

Euskaraz eta dohain izango dira denak. Izen-emate paperak gaztetxean daude.



Ohiturari jarraituz, Blakek ikusleen laguntzarekin egin zuen erakustaldia. | JULIO CALLEJA

# Hiru emanaldi arrakastatsu eskaini ditu Anthony Blakek

'No vengas solo' izeneko ikuskizun berria aurkeztu du asteburuan Elgetako Espaloia kafe antzokian

ANDER MONEDERO | ELGETA

Anthony Blake mentalistak ondo baino hobeto daki Elgetara joateko bidea. Azken urteetan, mago asturiarrak Elgetan egindako emanaldiek arrakasta handia izan dute, eta asteburuan aurkeztu duen *No vengas solo* ikuskizuna ere ez da gutxiago izan. Ikuskizun berrian, Blakek beldurraren inguruko gogoeta egiten du, giza psikologiarekin jokatzeko du; hori bai, umorea alde batera utzi gabe. Emanaldi hasieran, lan berriaren izena sarrerak binaka saltzeko trikimailua zela esan zuen.

Ondoren, lanean hasi zen. Ikusle batzuk aukeratu zituen eta horien eta publikoaren pen-

tsamenduekin jokatzeko hasi zen. Lehenengo jokoan, publikotik pertsona bat hartu eta min-fisikoan psikologiak eta beldurrak eragin handia dutela erakutsi zuen.

Begiradak ere gutaz asko esaten duela azaleratu zuen hiltzailearen jokoan. Bere ustez, denok gara potentzialki hiltzaileak eta lau pertsonen artean hiltzailearen karta nork zuen asmatu zuen.

Ez zen falta izan bere ikuskizunetako klasiko bat: Blakek hildakoen eta bizidunen arteko bitartekari lanak egin zituen. Horrekin, arima desberdinez inguratuta bizi garela frogatu nahi izan zuen. Gero, ikuskizun berriko bigarren protagonistare-

kin, Daniela panpinarekin batera, saioaren bukaeraraino elkarlanean aritu zen. Danielarekin hainbat trikimailu egin zituen. Eta bukatzeko, bi arbelekin, hildako batek bere alabari utzitako mezua irakurri zuen.

## Azkenean, hiru emanaldi

Hasiera batean, egubakoitz eta zapatuan egin behar zituen emanaldiak, baina sarreraren salmenta ikusita, atzo arratsaldean beste saio bat egitea erabaki zuen. Asteburukoarekin, bosgarren aldiz bisitatu du Elgeta mentalista asturiarrak. Publikoak ondo erantzuten dio eta Elgeta ikuskizunak egiteko gustuko plaza duela argi utzi du Blakek.



ARKAITZ MUJIKA  
EIBAR

"Ikuskizun polita izan da. Hasieran urduritasuna sortarazi dit, baina gero aho-zabalik geratu naiz egin dituen trikimailuekin. Pertsonen barruan sartu eta pentsamenduak irakurtzeko gai da".



LEIRE VALLE  
ARETXABALETA

"Gehiago espero nuen, baina hala ere gustatu zait ikuskizuna. Bukaeran bi arbelekin egin duena ikusgarria izan da; eszenatokira igo den pertsonak ezin zuen ikusitakoa sinistu".



IKER IBARRA  
ARRASATE

"Ikuskizuna asko gustatu zait. Trikimailuak nola egin dituen ez dakigu, ezin dugu azaldu, baina egin dituela argi dago. Aho-zabalik irten gara antzokitik".



Iñaki Urbizu. | INSONORO.COM

## Gramones eguenean Arrasateko gaztetxean

GOIATZ ARANA | ARRASATE

1997an Gasteizen sortutako Gramones taldearen txanda izango da eguen honetan Arrasateko gaztetxean, Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan.

Euskal Herriko zenbait punk-rock musika talde beterranoetako kideek osatua, Ramones taldearen tributurik onena da askoren esanetan; Queens-eko (New York) laukoteak 1976an zuzenean grabatutako *It's alive* diskoa oso-osorik eta berdin-berdin interpretatzen dute.

Gramones ikusi eta entzun duten guztiak zur eta lur geratu direla diote antolatzaileek, talde hau ikusteko aukera askorik ez dela izaten eta aprobetxatzeko, beraz, eguen honetan Arrasateko gaztetxera egingo duten bisita.

22:00etan da hitzordua; eta sarrera, bost euro. Eguen honetan oholta gainera igota, lekukoa hartuko diote Giranice taldeari, Kooltur Ostegunak ekimenaren barruan joan den astean emanaldi egin zuen kostaldeko taldeari.



## Gabonen ostan berreskuratu zure silueta!

Etor zaituz, konpromiso barik, azterketa morfologiko bat egingo dizugu eta horren arabera programa nutrietikoa eta gorputz tratamendua gomendatuko dizugu.

20, 30 edo 40 eguneko plana

Gal itzazu kiloak, behar duzun lekuan bakarrik!

**LILURA**  
EDERTZE INSTITUTUA

Guadalupe Garcia  
Mikropigmentazioan espezialista.  
Nº 1793

Etor zaituz eta informa zaituz konpromiso barik!


Bidekurutzeta 7 1 a. 20570 • Bergara • Tel.: 943 76 31 71  
lilura@lilura.com • www.lilura.com

Gorputz tratamenduan

%20ko bonifikazioa!

Eskaintza baliagarria otsailaren 10era arte.

# Debagoieneko GREMIOAK



## ARROZTEGIAK

### AZKARATE ARROZTEGIA

Bergara

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak

- K-21

Telleria 19 B02-B03

T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20

[www.goiena.net/blogak/azkarate](http://www.goiena.net/blogak/azkarate)

## ERAIKUNTZAK

### ARRASATE ERAIKUNTZAK SL

Arrasate

Meatzerreka auzoa

T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59

[e.arrasate@euskalnet.net](mailto:e.arrasate@euskalnet.net)

### FRIXI ERAIKUNTZAK

Eskoriatza

- Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
- Kontratak
- Enpresen mantentze-lanak

Intxartxueta 5

T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22

F: 943 71 55 15

## ITURGINTZA

### EGIA ITURGINTZA

Arrasate

Gipuzkoa etorbidea 39, behea

T: 943 77 01 85

## OYANGUREN ITURGINTZA

Eskoriatza

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15

T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69

[f.oyanguren@ctv.es](mailto:f.oyanguren@ctv.es)

## URKO MANTENIMIENTO SL

Aretxabaleta

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3

T: 943 77 19 88

F: 943 79 59 97

## LEIHOAK

### ARGI-PLASTIK

Arrasate

Zigarrola kalea 1, 8 pab

Tel.: 943 77 11 30

<http://merkatua.net/argiplastik>

### ION LEIHOAK

Arrasate

Debagoiena Industrialdea 11.Pab

Tel.: 943 79 11 35

F: 943 773 120

<http://www.ventaion.com>

## LOREZAINNTZA

### MAKAI KOOP. ELKARTEA

Aretxabaleta

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeko sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonerak

Basabe poligonoa D-2-1

Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98

F: 943 79 78 45

## MARGOAK

### APAIN MARGO ETA APAINKETA

Arrasate

- Pintura orokorrean
- Pareztatzeak
- Errotulazioa

Maitena 3-1.

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

## GURE MUSIKA TALDEAK

M

Manolo Aizbitarte *Maolo*, Aitor Bereziartua *Atxuiya* eta Iñigo Zubeldia, zuzenean. | M TALDEA

# "Berehalakotasuna, freskotasuna bilatu gura dugu diskoa grabatzen dugunean"

- ▶ Doinu eta letra ilunekin osatutako zortzi kantu gordin aurkeztu berri dituzte
- ▶ Hirukoteak dagoeneko bideratu ditu laugarren lana egiteko kantuak

MAIDER ARREGI | BERGARA

Barruak hala eskatuta, Azpeitia-Bergarako taldearen sormenak ez du atsedetik hartzen. *Etxaik lurra oinetara allatzen* hirugarren lana kaleratzearen duten honetan, dagoeneko eginda dituzte kantu berri gehiago.

**Pop-rocka, bluesa, funka eta soula bateratzen dituzue.**

Iturri ezberdinetik edaten dugu. Batzuek funka, jazz fusion entzuten dute; eta besteek, rocka. Maolok, taldeko gitarristak, Jotakie talde azkoitiarreko kide izanik, badauka orduko influentzia.

**Disko iluna, gordina da.**

Letra aldetik nahiko iluna da; baita musika ere. Lehenengo, baina, melodia egiten dugu eta ondoren letra egokitzen diogu melodia horri. Jotzeko era eta *feeling*-a, sentimendua ere letratar egokitzen dugu.

**Biluzik, efektu bako abestiak.**

Grabatzen dugunean gure asmoa da ahalik eta zuzenenak izatea, kantuak erdi gordin joaten dira. Gordintasun hori bilatu nahi dugu. Produktzioa ahalik eta gutxien eta hirurok agertoki gainean kantuak ondo defendatzeko gai izatea da

helburua.

**Hitz jokoak erabiltzen dituzue.**

Autobiografia puntua badute letrek, baina istorioa zuzenean ez dute kontatu nahi. Letren interpretazioa airean geratzen da entzuten duenarendako. Non hasi, non bukatu ez dago argi.

**"Helburua ez da musikari gisa ibilbide profesionala osatzea", diozue.**

Gure helburua ez da presio horrekin bizi izatea. Gustura egiten dugu, bokaziozkoa da. Hutsean geratuko litzateke egindako lana kaleratzen ez badugu eta gure

lagunei, erakutsi. Barrua ateratzeko balio digu, zainetan darabagu.

**Sarean diskoak doan jaisteko aukera eskaintzen duzue.**

Bai, webgunetik jaits daiteke zuzenean: [www.mmusikak.com](http://www.mmusikak.com). Diskoa fisikoki nahi duena gurekin jar daiteke harremanetan eta etxera bidaliko diogu. Orain arte horrela egin dugu; gure asmoa ez da etekina, dirua ateratzea.

**Lobo estudioan grabatu duzue.**

Gustatzen zaigu Josu Zubizarreta teknikariaren lana. Musika grabatzen dugu eta ondoren ahotza. Gu ez gara editatzen sartzen. Berehalakotasuna, freskotasuna ere gorde nahi dugu eta buelta gutxi ematen saiatzen gara.

**Zuzenekoak nolakoak dira?**

Zuzeneko xumeak, umilak. Agian, hotzak. Guk barruan, taula gainean disfrutatu egin gura dugu eta lortzen dugunean ikusleari transmititu egiten diogu ondo pasatzen gabiltzala.

**Zuzenekoetarako prest?**

Nahiko zaila dago, ez gara zirkuituetan askorik mugitu. Gure asmoa da zuzenekoak eskaintzea orain eta taldeak, jendea ezagutu interesa sortzeko. Zuzenekoak emateko ilusioz eta gogoz gaude.

**Eta dagoeneko laugarren lanerako abestiak bideratuta dituzue.**

Kantuak bukatuta ditugu, letra falta zaigu orain. *Egur* handiagoko lana izango da; gero eta doinu gordinagoak egitera jo dugu adinarekin. Gainera, oso-osorik Elosun egindakoa, sortutako lana izango da.

## ZERTZELADA



M

**Estiloa:** Post-rock, noise, pop...

**Egilea:** M.

**Argitaletxea:** Autoekoizpena.

**Iraupena:** 28,41 minutu.

Post-rock jostaria

Ez nuen M taldea aurretik ezagutzen, eta aurkikuntza oso interesgarria izan da. Intentsitatearekin asko jokatzaren duten kantuak lantzen dituzte, giro akustiko eta tempo oso pausatuetatik abiatuta, post-rockaren indarra eta irmotasuna lortzen dutenak. Hala ere, Fugazi, Dut eta halakoen ezaugarriak baditu ere, ukitu jostari eta aldakorragoa du, tarteka M-Ak ere gogora ekarri didana. Abesteko eran ere tonalitate desberdinak daude eta hitzek nortasun berezia dute.

IKER BARANDIARAN

## 1. ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Arrasate.** 65 m<sup>2</sup>ko etxebizitza salgai Eruguin. Bi logela eta egongelaxkia. Eguzkitua. Bizitzera sartzeko moduan. Garajea aukeran. 168.000 euro. 616-84 55 96.

**Atxondo.** 75 m<sup>2</sup>. 3 logela, sukaldia, egongela, komun, balkoia. Oso eguzkitua. Kanpora ematen du etxe guztiak. Berogailua. Berriztatua eta altzairuz hornitua. Deitu konpromiso barik eta ikusi. 180.000 euro. 655-73 74 47.

**Bergara.** Etxebizitza eguzkitua salgai Artzamendi kalean. Hiru logela, bi bainugela, sukaldia eta egongelaxkia. Garajea eta trastelekuarekin. Jantzia. 150.253 euro. Deitu 629-97 37 05 edo 943-76 05 22 zenbakietara.

**Berriz.** Berriz erdian pisu berria salgai. 80 m<sup>2</sup>. Oso kokapen ona. Guztiz jantzita dago. Sukaldia, egongela, komun handia, 2 logela (bat zurezko ganbaratxoagaz, balkoiagaz, despentsa txiki batez). Berogailua, zoru errandiantea da. Oso eguzkitua da. 607-52 24 26.

**Bolibar.** Etxe zaharra salgai Bolibarren. 34 m<sup>2</sup> x 3. Teilatua berria eta proiektuagaz. 3 gela eta 40 m<sup>2</sup>ko terraza. 150.000 euro. 660-35 80 67.

**Durango.** Pisu salgai Muruetarren. 90 m<sup>2</sup>. Sukaldia eskegitokiarekin, egongela, balkoia, 3 logela, 2 komun (bat logela barruan). Guztiz berriztua (ateak, leihoak, horma-armairuak...) eta jantzia. Eguzkitua, bista etakokapen ederra. Ganbara eta garajea. Deitu: 686-13 89 09.

**Elorrio.** Zentrikoa den 90 m<sup>2</sup>-ko pisu salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldia, egongela, garaje partzela eta trasteleku. 657-79 39 38.

**Elorrio.** 76 m<sup>2</sup>-ko etxebizitza. Erdigunean. Sukalde ekipatua, 2 logela, 2 komun eta 10 m<sup>2</sup>-ko trasteleku. Garajea aukera erosteko aukera. Prezioa: 38 milioi. 634-45 72 01.

**Etzarri-aranatz.** 135 m<sup>2</sup> 4 gela eta 2 komun. Aralar, berriain eta andia aldeko bistak. Deitu: 677-26 54 38.

**Gasteiz.** 57 m<sup>2</sup>. Egoera onean. kalefakzioa eta ura elektrikoak dira. Hegoaldera begira. 1. Solairua, igogailua. Eraikinak 20 eta 30 urte bitartean ditu. 2 logela. 2 komun (biak bainerekin). Sukalde hornitua. Balkoia. Moketa logeletan, parketa egongelatan eta baldosak gainontzekoan. Banakako garajea, itxia. Piztina eta belar-ditaurbanizazioaren barnean. Altxariekin. Deitu 665-75 78 07 edo idatzimarian.fornigal@gmail.com helbidera.

**Ormaiztegi.** Etxebizitza salgai. Berritua, bizitzera sartzeko moduan. Etxebizitza eta argitua. Bi logela. 160.000 negoziagarriak. 659-75 40 83.

**Otxandio.** Apartamentu jantzia salgai trastelekuarekin. Igogailua. 675-71 72 83

## 102. EROSI

**Durango.** Baserri bifamiliar oso berritua nuzuke, baserri erdiaren truke Durangaldean. Beste proposamen ezberdinak kontutan hartzen dira. 618-93 62 14.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Bi logelako eta terraza handia duen etxebizitza ematen da errentan. Deitu: 665 72 18 59

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Eruguin. Bi logela. 663-57 57 03.

**Atxondo.** Atxondon pisua alokatzen da. 3 logela, 2 komun eta sukalde egongela. Deitu: 680-42 77 02.

**Bergara.** Alde zaharrean etxebizitza ematen da errentan. Bi logelakoa. Berokuntzarekin. Guztiz berritua, altzariekin eta atsegina. 629 38 29 96

**Donostia.** Lokal moduko etxebizitza bat alokatzen det Donostian, Antigua auzoan bertan. Persona batentzako egokitua, bi planta dauka eta kotxea sartzeko aukera dago. Eguzkitua da etalasaia. 500 €. 609-48 11 24.

**Elorrio.** Pisu alokagaitzerri gunean. 3 logela, 2 bainugela. Trasteleku. Amueblatua. 600 euro hilan. 634-45 72 01.

**Elorrio.** Etxe banakoa alokagai Elorrion. 125 m<sup>2</sup>-ko etxea, 100 m<sup>2</sup>-ko sotoa eta 100 m<sup>2</sup>-ko aterpea. 2500 m<sup>2</sup>-ko lursaila. : 616-93 63 51. Manu

## 105. ETXEA OSATU

**Arrasate.** Neska arduratsua behar da etxebizitza osatzeko. Erdigunean dago, etxe berria da eta egoera oso onean dago. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606 88 94 14

**Arrasate.** Pertsona bat behar da etxea osatzeko, Eruguin aldean. 670 59 73 62

**Arrasate.** Pisukide bila nabil. Erdigunean dago etxea. Lone. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 636 05 36 18

**Arrasate.** Pixua osatzeko jende bila gabiltza. Guztiz hornitua: garbigailua, ontzi-garbigailua, berokuntza zentrala. 250 euro hilabetero, gastuak barne. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 620 52 94 98. Lorea.

**Arrasaten.** Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 630 71 35 83.

**Berriz.** Logela alokagaitzerri batean. Estreinatze eta leku-paregabean. Nahigoemakumea. Interesatuok deitu telefono honetara: 619-66 58 57.

**Iurreta.** Gelak alokatzen dira Maspe kalean, abendutik aurrera. 687-58 66 37.

**Logela Arrasaten.** Arrasaten pisukide bila gabiltza-neska zein mutil-urtarriletik aurrera gela bat betetzeko. Pisu alde zaharrean dago, handia eta argitsua da, lau logela, bi komun, sukaldia eta egongela ditu. Alokairua gehi wifia eta telefonoa gehi gastuak, 220 euro pertsonako dira hilabeteko. 665 71 69 10 edo 943 77 07 00.

**Logela bila nabil.** Bergaran edo Arrasaten logela edo konpartitza pisu baten bila nabil, nahi eta nahi ez kontratuekin. 648 01 32 39

**Logelak Arrasaten.** Erasmus etorriko diren ikasleentzako logelak behar dira otsailaren 1etik ekainaren 30era. Ingelesa praktikatzeko aukera ona da. 656 77 66 32

**Oñati.** Etxebizitza partekatuta alokatuko nuke. Deitu 689 75 05 98. zenbakira.

## 2. GARAJEAK

## 201. SALGAI

**Berriz.** 42 m<sup>2</sup>-ko garaje itxia salgai. Ate automatikoa. Ur eta argi instalazioak ia zingindak. Komun eta bodega txiki bat. Txoko txiki sukaldagaz. 2 edo 3 kotxe. 615-75 21 36.

## ZURE IRAGARKIAK

## IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Egueneko 16:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## ORDAINTZEKO ATALAK DIRA: PREZIO BEREZIAK GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan.

Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.

Egubakoitzean + Astelehenean: 21 € (BEZ barne).

Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.

- Profesionalen moduluak.

Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).

Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

## 1. ETXEBIZITZAK

101. Saldu  
102. Erosi  
103. Errentan eman  
104. Errentan hartu  
105. Etxeak osatu  
106. Bestelakoak

## 2. GARAJEAK

201. Saldu  
202. Erosi  
203. Errentan eman  
204. Errentan hartu  
205. Bestelakoak

## 3. LOKALAK

301. Saldu  
302. Erosi  
303. Errentan eman  
304. Errentan hartu  
305. Bestelakoak

## 4. LANA

401. Eskaintzak  
402. Eskerak  
403. Bestelakoak

## 5. IRAKASKUNTZA

501. Jaso  
502. Eman  
503. Bestelakoak

## 6. MOTORRA

601. Saldu  
602. Erosi  
603. Alokatu  
604. Bestelakoak

## 7. ANIMALIAK

701. Saldu  
702. Erosi  
703. Eman  
704. Bestelakoak

## 8. DENETARIK

801. Saldu  
802. Erosi  
803. Eman  
804. Hartu  
805. Trukatu  
806. Galduta  
807. Aurkitu  
808. Bestelakoak

## 9. HARREMANAK

901. Agurrak  
902. Harremanak  
903. Deiak  
904. Bestelakoak

## 10. RELAX

Debagoienetik kanpoko iragarkiak, web gune honi esker eman dizkizugu: [iragarkilaburrak.com](http://iragarkilaburrak.com)

## Durango. Garajea salgai. Mon-

torretan, Simply-ren ondoan. 2 lerro, autokarabanasartzeko toki aproposa. 652 76 81 31.

## Otxandio. Garaje itxialdai

Otxandion, pertsiarekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 675-71 72 83.

## 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia, 17 m<sup>2</sup>koa, ematen da errentan Burdinaten. 943-76 06 60.

**Berriz.** Gabiola kaleko 5. Behean. Garaje itxia. 2 kotxe. Kaleko sarrera oinezsartzeko eta atzeko parteretik kotxearekin. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 660-12 50 70.

**Durango.** Zabali dagoen garajea alokatzen da Muruetarren. Ona eta merkea. Deitu 660-38 59 95 edo 660-38 60 43 telefono zenbakira.

**Durango.** Kotxe partzela alokagai Askatasunetorbidea 11 n.: 94-681 39 32.

## 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garaje baten bila nabil, Bergarako edozein zonatan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618 90 23 66

## 3. LOKALAK

## 303. ERRENTAN EMAN

**Elorrio.** Etorrion 170 m<sup>2</sup>-ko lokala alokagai edo salgai. Oso toki onean, erdialdean. Eskaparrate handiekin. Edozein negozio ipintzeko aproposa. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 94-658 21 01 (dendako ordutegian).

**Gasteiz.** Azken erabilera: tailer mekanikoa garbitzeko, engrasatzeko eta ibi lizentzia ditu. Bulegoko altzariek eta garajeko atea. Portero automatikoa eta alarma. 2 komun ditu, bat mugikortasun urrikopertsonei moldatua. Hiridigunetik komunikazio onak ditu. Autobus geltokiak hurbil daude. Alokatzea ere posible da: 800 euro/hil. 665-75 78 07 (Ana).

## 4. LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Durangaldea.** Etxeko lanak egiteko andra bat behar da. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 94-655 09 37.

## ARRASATE

Pintxotan esperientzia duen sukaldaria behar da. 943 77 18 40

## 402. ESKAERAK

**Abadiño.** Persona nagusien zainzarako, garbitzarako edo umeen zainzarako lan bila. Orduka, gauze edota estaburuetan. Sukaldatu, plantxa egin, ... Hospitaletan, garbiketari eta nagusien zainzan esperientzia. 696-75 35 30.

**Aramaio.** Aramaioko neska gaztea, haur hezkuntzandiplotatua, goizetan haurrak zaindu eta eskolara eramateko prest. 645-73 22 72.

**Arrasate.** Emakume eskalduna gertu plantxa egin edo bestelako etxekolanerako, orduka. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 699-54 17 27.

**Arrasate.** Orduka edo etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 682-31 97 37 / 610-99 70 46.

**Arrasate.** Emakume arduratsua etxeko lanekodota pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656-77 53 37.

**Arrasate.** Emakume arduratsua garbiketari lanekodota pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617-30 02 49.

**Arrasate.** Neska gazte eskalduna etxe garbitzeko edota umeak zaintzeko prest, esperientzia handikoa. 618-41 24 79.

**Arrasate.** Neska gertu etxe zein atariak garbitzeko. Erreferentzia onak ditut. 610-82 02 17.

**Arrasate.** Arrasateko esperientzadun 28 urteko mutila gertu barrakozerbitzari, furgonetako gidari banatzailea, motozikleta gidaribanatzailea, banatzaile arkorrean, pintore eta arrotza laguntzailea, komertzio dependientemoduan lan egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 677-61 95 92.

**Azpeitia.** Arte ederretan lizentziatua, umeen etxeko gelak pintatzen ditut, baita gurasoen egongelak ere. Etxe zuen gustoko diseinuz apaintzen dut. Interesatuok bidali bezu bat: [ibardan@yahoo.es](mailto:ibardan@yahoo.es)

**Azpeitia.** Arte ederretan lizentziatua, klase partikularrak emateko eskaintzen da; Lehen Hezkuntza, DBH1, DBH2 eta batxilergo ikasleei. Marraketa tekniko eta marrazketa artistikoa baita pintura teknologia berrikin eta guzti. Interesatuok deitu telefono honetara: 636-87 91 81.

**Bergara.** Eskarmentu handiko emakumea, geriatria ikasketaduna, orduka, etxean bertan bizi izaten zein asteburuetan lanerako gertu. Urte asko daramatzat hemen etalegezko paperak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 617-12 61 44.

**Bergara.** Goizetangarbitzari lanak egin edonagusiak zainduko nituzke. 680-77 06 46.

**Bergara.** Nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketari lanak egingo nituzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 620-43 85 40.

**Debagoiena.** Etxeko lanak eta garbitasunak egingo nituzke. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 646-10 21 66.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu garbiketari lanak egiteko eta pertsona nagusiak eta haurrak zaintzeko. 627-21 08 93.

**Debagoiena.** Emakume eskalduna lanerako prest. Emakume heldua, pertsona nagusiak edota umeak zaintzeko prest. 666-26 07 62.

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka, egun oso zein etxean bertan bizi izanda lan egiteko: nagusiak zaindu, garbiketari eta abar. 638-59 04 71.

**Debagoiena.** Mutil arduratsua gertu nagusiak zaindu, atari zein

elkarrekin garbitu edo bestelakolanerako. 685-42 72 80.

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo taberna, bulego eta abarrak garbitzen lan egingo nuke. Deitu 943-10 96 89 edo 671-18 50 83 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen lan egingo nuke etxean bertan bizi izanda. Erizain laguntzailea naiz. Etxeko lanak ondo egiten ditut. Baserrietan ere lan egingo nuke. Erreferentziak ditut. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 618-93 59 29.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu garbiketari lanak egiteko eta pertsona nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 672-88 01 01.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusi zein umeak zaintzeko orduka edo asteburuetan ere bai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 606-54 89 90.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusiak zaindu edo garbiketari lanak egiteko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 690-71 94 45.

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu umeak zaindu, orduka garbitasun lanak egin edo nagusiak zaindu zein laguntzeko. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 943-71 53 74 / 695-73 87 95.

**Debagoiena.** Neska eskalduna gertu umeak eta nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko. Informa ditut. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 671-35 22 60.

**Debagoiena.** Denetariko garbiketari egingo nituzke. Maite. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696-88 93 73.

**Debagoiena.** Edozein motatako lana egingo nuke, bailara osoan. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 671-18 50 83.

**Debagoiena.** Emakumea gertu lanerako: nagusi edo umeak zaindu, garbiketari eta abar. Etxean bertan bizi izaten, egun osoz, orduka, gauze zein asteburuetan. Berehala asteke moduan. 638-93 11 48.

**Debagoiena.** Nikaraguako neska goizez lan egiteko gertu. 07:00etatik 13:00etara. Umeak edonagusiak zaintzen edo etxeak garbitzen. 606-62 37 82.

**Debagoiena.** Orduka edo egun osoz lan egingo nuke nagusi eta umeak zaintzen edo garbitasun lanetan. Legezko paperak egunean ditut. 635-20 58 39.

**Debagoiena.** Sukaldelaguntzaile, garbiketari eta abarrak egingo nituzke. Gogozintzan aditua naiz. Orduka zein egun osoz. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 686-66 80 63.

## ERAIKITZEKO LURSAILA salgai

6.500 metroko eraikitzeko lur saila salgai, Bermeon, portura eta itsasora bista ikusgarriekin. Kontakturako: 616-936 343. [erroxape.mundaka@gmail.com](mailto:erroxape.mundaka@gmail.com)

## INDUSTRIA-NABEAK salgai

Bermeoko portu komertzialetik 300 metrora dauden industria-nabeak salgai, Mundakan. Bulegoetarako baliagarriak. Hainbat tamaina eta prezio. Negozia daiteke. Kontakturako: 616-936 413. [lamiaran.mundaka@gmail.com](mailto:lamiaran.mundaka@gmail.com)

**Debagoiena.** Zerbitzarilanak egingo nituzke. Eskarmentua etaerreferentzia onak ditut. Legezko paperak ditut. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 603-14 59 17.

**Durungaldea.** Etxekolanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu edotagarbiketa lanetarako. Interna edo externa. Jardunaldi osoa. Erreferentzia etaesperientzia. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 636-85 20 59.

**Durungaldea.** Ordubatueta garbitasun lanak egiteko edota umeak zaintzeko prest. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 94-681 19 98.

**Durungaldea.** Asteburuetan edo gauetan nagusiak edo umeak zaintzen edota etxeko garbiketarako egiten lan egingo nuke. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 603-07 16 26.

**Durungaldea.** Ume edonagusien zaintzarako edota garbiketalarako prest. Interna edo externa. Gauzez edoasteburuetan ere. Esperientzia etaerreferentzia. 628-00 22 17.

**Durungaldea.** Emakume arduratsua nagusien edo umeen zaintzan, etxekogarbiketarako, portaletan, tabernetan, ... Lan egiteko prest. Orduko edo jardunaldi osoan. Erreferentzietan. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 620-82 85 79.

**Durungaldea.** Bertako emakumea ume edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Goizez, arratsalde edo gauzez. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 94-658 33 32.

**Durungaldea.** Etxekolaguntzaleak gara. Pertsona nagusiak zaintzeko prest gaude: exeko lana, zainketak, errezetakkudeatzea, gauak ospitaleetan, aseok, ... Durungaldean eta Bilbao. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 690-28 60 71.

**Durungaldea.** Interna edo externa modura lan bila. Ume edo nagusien zaintzan edota garbiketalarako. Orduka, asteburuetan edota gauzez ere. Erreferentzia eta esperientziarekin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 679-71 64 42.

**Durungaldea.** Neskauskalduna asteburuetan umeak zaintzeko prest, bai egunez zein gabez. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 628-24 36 02.

**Durungaldea.** Emakume arduratsua lanerako prest, pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko edotagarbiketa lanetarako. Erreferentziaduna. Mugitzeko arazorik ez. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 660-64 20 98.

**Durungaldea.** Umeak edo nagusiak zaintzeko prest, externa edo interna. Esperientzia etaerreferentziak. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 638-20 34 50.

**Durungaldea.** Umeak edo nagusiak zaintzeko prest, externa edo interna. Esperientzia etaerreferentziak. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 689-30 85 82.

**Durungaldea.** Emakume arduratsua umeen edonagusien zaintzan edotagarbiketalarako prest. Interna, externa edo orduka. Erreferentziak etaesperientzia. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 659-73 92 65.

**Durungaldea.** Goizez, arratsaldez zein gauzez lan egiteko prest. Garbiketalarako edota gauzez pertsona nagusiak zaintzeko. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 690-68 73 95.

**Durungaldea.** Interna edo orduka umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edotxeak garbitzeko lan bila. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 646-20 72 71.

**Durungaldea.** Nagusien zaintzarako edotagarbiketarako lan bila. Esperientzia etaerreferentzietan. Goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:30 arte. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 633-03 86 09.

**Durungaldea.** Ipuinkontaketa eta monologohumoretsuak eskaintzen dira. Tabernetan, ezkontzetan, juergetan, ... Interesatuok deitu zerbaki honetara: 651-36 97 69. Roman

**Durungaldea.** Umeen edo nagusien zaintzarako edota garbiketarako lan bila. 14:00etatik 20:00etara. Esperientzia etaerreferentziak. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 638-43 79 01

**Durango.** Goizetan umeak zaintzeko zein etxeko lanak egiteko prest nago. Haur hezkuntza eta hezkuntzaberezian diplomatua; neure kotxea daukat. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 695-75 23 25.

**Durango.** Emakume arduratsua umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko edota garbiketalarako prest. Interna edo externa. Esperientzia etaerreferentziak. 660-64 20 89.

**Durango.** Psikologian lizentziatua. Durangkoneska euskalduna naiz eta prest nago irailaren 20tik aurrera umeak ordu zaintzeko, goizetan zein arratsaldetan. Klasepartikularrak emateko prest ere. Interesatuok deitu telefono honetara: 646-53 83 90.

**Donostia.** Papiroflexia ikastaroa, urt 30, ots 1: 10:00-12:00, urt 30/31, 6:30-8:30, ots 2/3, 4:30-6:30; 4 ordu. 20 euro-4 lagun. Antiguan (634-60 82 08) edo zure ikastaro proposamena egidazu. Idatziz: luma@euskalnet.net www.euskalnet.net/maxweb

**Elorrio.** Neska gazteuskalduna goizetan umeak eskolara eraman zein umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest. Orduetegiago zein goizetik hasita 12:00 arte, gutxi gorabehera. Haur hezkuntza teknikaria naiz. Durangalde osoan lan egiteko prest nago. Kotxe propioa daukat.

**Iurreta.** 51 urteko emakume euskalduna lan bila, batez ere, arratsalde. Umezaintzan esperientzia. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 663-32 84 25.

**Villabona.** Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan. Taldeko edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna. Telefonoa 664-16 02 68 eta posta elektronikoa continental56@hotmail.com

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Durango.** Erizaintzako ikasle euskalduna LH eta DBHko ikasleei klasepartikularrak emateko prest. Esperientziaduna. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 685-73 70 15 (Ane).

### 502. EMAN

**Gitarra eskolapartikularrak Durango.** Gitarra eskola partikularrak Durango. Elektrikoa, akustikoa, rocka, bluesa, jazz, funka eta abar. Eskalak, akordeak, eriritmoa, teknikak, inprobisazioa, irakurketa... Interesatuok deitu zerbaki honetara: 650-17 22 85.

**Trikitixa klaseak.** Trikitixa klaseak ematen ditut. Informatzeko deitu 661-12 56 47 telefonora.

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana salgai.** Autokarabana salgai. 2009 urtekoa. 6 plaza. Egoera onean. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 652-76 81 31.

**Autokarabana salgai.** Autokarabana benimar sport 310 salgai. 50.000 km. Hiru urtekoa eta 6 pertsonentzako lekua. Ekipamendu osoa eta oso ondo zaindua. 31.000 euro. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 676-61 71 54 edo 676-98 33 06.

**125eko motorra salgai.** Yamaha ybr 125 salgai. Kotxeko karnetaz eraman ahal da, 10.000 km era ezin hobean dago. Interesatuok deitu zerbaki honetara probatzeko: 676-90 01 05.

**Traktorea.** New Holland TN65F traktorea palarekin salgai. Informazio gehiagorako deitu telefono zerbaki honetara: 607 76 54 91

**Smart kotxea salgai.** Smart fortwo Coupe passion salgai. 62cv. 48.000 km. la berria eta oso egoera onean. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 676-61 71 54 edo 676-98 33 06

**Suzuki sj 410 salgai.** Suzuki sj 410 hard top (Samurai) salgai. Gasolina. 1000 cc. 45 zaldi. IAT-aurtero. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 667-48 51 66 edo 667-48 54 36.

## 7. ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Artzai txakurra salgai.** 3-4 urteko Euskal artzaitxakur mantsoa salgai. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 692-81 90 35. Amaia

**Asto salgai.** Urtebiko asto arna, etxean jaio eta hazitako. Txipa jarrita. 650-17 22 85.

**Moxala salgai.** Moxala salgai. Okeleroa. 9 hilabete. 270 euro. Deiak 15:00etatik 18:00etara. 679-23 47 46.

**Txakurra salgai.** Gold Terrier bat saltzen dut. 4-5 urte ditu. Zuria. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 653-72 70 18.

ki honetara: 653-72 70 18.

### 703. EMAN

**Arratoi txakur arra opari.** Arratoi txakur arra oparitzen dut. Urte bat inguru du. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 94-681 96 10.

**Arratoi txakurra opari.** Arratoi txakur emea oparitzen dut 2 hilabete. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 656-74 34 57.

**Arratoi txakurra opari.** 7 hilabeteko arratoi txakur emea opari. Beltza eta bizia da eta oso polita da. 655-71 39 27.

**Artzai txakurra opari.** Bi hileko artzai txakurra oparitzen dugu. Nahi duenak deitu 94-681 43 24 telefonora.

**Txakurkumeak ematen dira opari.** Ama Settingles arrazakoa. Hiruhilabete dituzte. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 685-72 46 86/943-79 96 55.

**Txakurra opari.** American Stafford Terrier arra oparitzen dut. 2 urte egingo ditu. Bakunen kartilla eguneratuta. Marroia eta zuria. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 661-30 41 72.

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Abadiño.** Lursaila salgai Matienan (Abadiño), Arzubiakalean, 2.000 m<sup>2</sup>, erreka ondoan eta bideertzean. Aproposa ortua hartzeko. Hainbat fruitu arbolaz hornitua. Matienatik hiru minututara oinez. 658-75 65 12.

**Altzariak salgai.** 1,50m-ko haritzeko ohea saltzen da, bi ohe-mahairekin batera: 400 euro. Koltxo berria: 100 euro. 6 kajoidun sinfoniera: 150 euro. Banak markako apal rustikoak: 400 euro. Mahai rustikoa: 100 euro. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 610-41 55 11

**Baxua eta amplifikagailua.** Olpmusicman baxua (4 soka) eta peavey tko 115s (80 watt) anplia. 350 euro dena. Aitor 656-41 00 35.

**Behoko sua, kristalduna salgai.** Behoko sua, kristalduna salgai. Erdiberria. Haize beroa botatzeko zuloekin. 66 x 80 x 50 cm. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 619-48 50 58.

**Bernedo.** Lursailera ikargaria Urturin salgai dago. Bernedon. Gasteizetik 40 km-tara dago, eta izkiko golfetik 3 minututara

baino ez. 308m<sup>2</sup> eraikitzea posible da. 7ml-ko eta bi solairuko altuera maximoarekin. Inguruan beste lursail eta etxebizitza batzuk ditu; baita golfeko hotela ere. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 665-75 78 07 (Ana)

**Bikiendako firstwheels karro urdina.** Bikiendako firstwheels karro urdina. Oso gutxi erabilia. Bi jesarleku, bi kapazo, plastikoa, bizakutxo zuri (pikezkoak) eta moskitoendako sareak. la berria. Begiratu web-eko argazkiak. 450 euro. Deitu konpromiso barik. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 659-34 72 81 (Inaki).

**Bizikleta.** Neskentzako bizikleta 20 hazbetekoa. la berria. 647-58 40 73.

**Esakiak salgai.** Eski alpinoko eskiak saltzen ditut. Dynastar markakoak, look fjazioekin. Kantoak zorrotu berri eta zentralak daude. 1.90 neurrikoak dira (pertsona altuamarraren tzako). Eskiatzen hasteko aproposak. 50 euro. Harremanetarako: aitz2gain@yahoo.es

**Eskiatzeko materiala.** 10-12 urteko umearendako praktika, 36 neurrikoa, eta snow taula salgai, 1,25 neurrikoa, lokailuekin. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 656 78 64 64

**Esnea ateratzeko gailua salgai.** Esnea ateratzeko gailua salgai. Medela Dwing markakoa, merkatuko onena. Egoera onean. Automatikoa. Honekin batera aunit markako esnea ateratzeko gailu manuala oparitzen da. 60 euro. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 607-86 32 24

**Estufa katalitiko.** Estufa katalitiko ia berria, apenas erabili gabe dago. Bonbona barne. 80 euro. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 656-41 00 35. Aitor.

**Furgonetako jarlekuak salgai.** Traffic furgonetako atzeko jarlekuak salgai. Hiru plaza da. Erabili gabea. 400 euro. Argazkiak ditut. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 650-73 51 56.

**Gitarra klasikoa.** Berria. Funda barne. Salneurri onean. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 617-21 89 74.

**Hozkailu konbinatu salgai.** Hozkailu konbinatu salgai. Hile baten bakarrik erabilia. Martxoan errosia. Ecron markakoa. No frost eta 2 urteko garantiarekin. Sal-

tzeko premia. 300 euro, negoziagarriak. 691-35 40 31.

**Kanpin denda.** Quechua t4.2. Ez erabiliteagatik saltzen dut. Laupertsonendako. Urtera ez da heltzen erosi nuenetik, behin erabilia dago. Tiketa daukat eta berez garatua du. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 690-19 82 79.

**Piano elektrikoa salgai.** Yamaha clavino clp 150 piano elektrikoa salgai. Kontakua: 650-17 22 85 edo stratokaster@gmail.com

**PlayStation 2.** 10 joku, kamara bat eta hiru mando barne. 50 euro. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 618-03 35 47.

**Solariuma.** Gorputz guztiko Philips hb solarium tolesgarria salgai. Egoera onean. 3 lanpara Philips cleo hpa flex-power ditu, azalerako filtroa, bitenporizadore. 1.200 eurotan baloratua. 500 euroan salgai. Negoziagarria. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 685-72 46 86, 943-79 96 55.

**Trabesiak botak.** Trabesiak botak salgai. Nordica tr10. 42-43oinarentzako. Hiru fiziojolotua. 90 euro. Harremanetarako: aitz2gain@yahoo.es.

**Trikitixa salgai.** Interesaturik bazauz hots egin 610-81 28 88 telefonora.

**Zure egongelarako zarrariak diren 5 auklik saltzen dira.** Oso egoera onean eta prezio ezin hobean: 60 euro bostak. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 615-72 62 52.

### 802. EROSI

**Bizikleta.** Esekidura bikotzakako bizikleta erosiko nuke. Egoera onean dagoen bizikleta baldin badaukazu eta saldu nahi baduzu, email bat bidali mesedez. laguntzen@gmail.com

**Lursaila.** Lursaila erosiko nuke Bergara inguruan (Bergara, Arrasate, Oñati, Elgeta, Angiozar, Antzuola, Osintxu.). Beharrezkoa kotxez bertara heldu ahal izatea. Interesatuok deitu hurrengo zerbaki-ara: 669 17 09 51

### 806. GALDU

**Telefono mugikor berria galdu dut.** Errege bezperan, urtarrilaren 5ean, telefono mugikor berria galdu nuen 01:00etatik 02:30era bitartean, Bergaran. Sony Ericsson markakoa da, berri-berria. Norbaitek aurki-

tu badu eskertuko nuke deitzea. 656 79 60 93 edo 943 76 05 47 telefono zerbaki-ara eta Txetxurengatik galdetzeko.

### 807. AURKITU

**Ezkontza eratzuna.** topatu dute Aretxabaletako Durana kalean. Galdu duenak dei egin dezala. Interesatuok deitu zerbaki honetara: 630 65 43 63

### 808. BESTELAKOAK

**Sagardotegia.** Urtarrilaren 28an sagardotegira joateko autobusa betetzeko jende bila gabiltza. Gurekin etorri nahi baldin baduzu deitu telefono zerbaki honetara: 686 28 76 80

## 9. HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Azpeitia-arrasate autoz.** Astegunetan, astelehenetik ostiralera, kotxea partekatuko nuke azpeitia eta arrasate arteko joanetorian. Interesa duenak deitu dezala 688 66 32 27 telefono zerbaki-ara.

**Donostia Alde Zaharreko Joaldunak.** Zuk ere joaldun izan nahi duzu? Etorri gure entsaioetara eta proba egin! Edo zure herriko jai edo ikuskizunetan gu han egotea nahi baduzu ere bai. Idatzi mezu bat alde zaharreko joaldunak@gmail.com helbidera.

**Jazz konbo bila.** Estandarrak jo edota jazz-a fusionatzeko jende bila nabil. Nik kitarrajotzen dut. Aitor 656 41 00 35

**Lizarrak-Gasteiz.** Asteazkenean gaueko 9etatik aurrera Lizarratik Gasteizera bidea autoa konpartitzeko prest dagoen norbaiten bila nago. gastuak partekatuko genituzke. 945 56 43 83.

**Mutil atsegin bat neska atsegin baten bila.** Mutil atsegin bat naiz eta neska atsegin baten bila nabil, 44 urte ditut. altua eta morenoa naiz, ez ditut kargarik. Harreman iraunkor baten bila nabil. Alai naiz eta bidaia zehazki gustatzen zait. Harremanetan jartzeko deitu telefono zerbaki honetara: 609 48 11 24.

# GORAKADA

## GOIENA.NET

Goiena.net %50 hazi da 2011n.\*

## GOIENA PAPERREKO EDIZIOA

33.000 irakurle astero Gipuzkoan.\*\*

## GOIENA TELEBISTA

10.000 ikus-entzule egunero Gipuzkoan.\*\*

## ESKERRIK ASKO!

\* GOOGLE ANALYTICS-ETIK ATERATAKO DATUAK. \*\* CIES-EK EGINDAKO NEURKETAN.

# Telebisten, keinu bidezko kontrolaren eta eramangarri ultra-arinen urtea izango da

Las Vegasen CES azoka amaitu berri da, kontsumorako teknologian feriarik garrantzitsuena



FNAC.ES

## LG Magic Control

Telebista ikusteko bai, baina nabigatzeko, erostekak egiteko ala sare sozialetan ibiltzeko gune nagusia bihurtzeko bidean da. Urrutiko kontrol garatuak ibili dira aurkezten marka nagusiak eta denetatik LG etxearen honek eman du zeresana. Botoi gutxi dauzka eta gauza da ahotsa eta aurpegiak errekonozitzeko eta keinuak ulertzeko.

## Samsung ES 9000 OLED

Pantailarik onena eta finena nork aterako da lehia eta badirudi momentuz aurrea Samsungek daukala hartua pantaila honekin. 4 milimetroko lodiera besterik ez dauka pantailak eta, OLED teknologiarekin, kolore naturak eta kontraste ezin hobekak eskaintzen ditu. Pantailaren ertza ere ia begiarentzako ikusezina da milimetro bateko da-eta.



BLOGCDN.COM



CARBORIAN.COM

## Fujifilm X-Pro1 argazki kamera

Kamera digitaletan puntako joera espilurik gabek eta objektu aldagarriak dira. Fujiren azken modeloak hori lortu du baina tamaina ezin txikiagorekin, pisu gutxirekin eta muturreko kalitatea eskainita. Erabilera askodun kalitatezko kameratan dabil Fuji espezializatzen, argazkilaritza zaleak erakartzeko nahiarekin.

## Sony Xperia S sakelakoa

2012ko Android sistemadun lehen mugikorra aurkeztu du Sony etxeak, Ericsson konpainia erosi eta gero. NXT gama berria aterako dute aurten. Diseinu soil eta sendoarekin, Sonyk ondo baino hobeto kontrolatzen duen teknologia gehitu dio gailuari: 12 megapixeletako kamera eta Bravia telebista pantailen teknologia.



MOVILARENA.COM



XATAKA.COM

## HP Envy 14 Spectre

HP etxeak eramangarri ultra-arin eta ultra-azkarrak aurkeztu ditu eta modelo hau da uneko izarra. HP Spectre honek ultrabooken zaugarri guztiak bete eta gaintzeaz gain, azaleraren kristalean diseinu berezia dauka eta itxura aldetik ikusgarri eta bereizgarria, Gorilla Glass kristal mota berriarekin.

## Auñamendi Entziklopedia CC lizentziarekin argitaratu dute

J.B. | ARRASATE  
Lizentzia berriarekin, 2012ko urtarrilean indarrean sartu dena, 6.465 eduki berrargitaratu dituzte, 583 argazki eta 151 bideo berriekin batera. CC erakundearen lizentzia batekin argitaratzeak, baina, ez du zertan esan gura eduki hori librea denik.

Aitortu-EzKomertziala-PartekatatuBerdin lizentziarekin argitaratu dituzte eduki eta artikulak. Lizentzia horren arabera, artikulak partekatu eta jendaurrean hedatu daitezke eta baita lan eratorriak sortu, betiere, egilea ala iturria aipatu eta lanaren erabilpen komertzialik egin barik. Lan eratorriaren banaketa lizentzia berdinarekin egin beharko da, gainera, hain zuzen ere.

## Zaintza zorrotza ezarri zaie jada gunerik ezagunenei Sinde legearekin

J.B. | ARRASATE  
*Sinde legea* bezala ezagutza eman dena indarrean da dagoeneko. Kontrol batzordea artean ez da osatu baina honezkero CooperRight aholkularitza frantziarrak kaleratu du zaintza berezi baten pean izango dituzten enpresen zerrenda, orain dela bi urte-

tik dagoeneko prest egon dena, legearen zain.

122 gune daude zerrendan baina goiaren goian daudenak aski ezagunak diren guneak dira: *Taringa.net* (Argentina), *Seriesyonkis.com* (Espainia), *Cinetube* (Estatu Batuak), *Vagos* (Espainia), *PorDescargaDirecta* (Espainia),

*Bajandopelis.com*, *Gratismusica.org* eta *Gasmestorrents.com*.

### Jazarpena

Zerrenda horretatik %75 Espainiatik kanpo daude, gehienak Estatu Batuetan baina hori ez da izango eragozpena, lege berriarekin agindu baitaiteke gune horiek blokeatzea Espainiako erabilzaileentzat. Estatu barruko guneak dagokienez, Publico egunkariak argitaratu duenez, jabe asko herrialdea uztekoan

dira, jazarpenaren beldurrez. Legeak zehazten du irabazi asmodun ekimenak zigortuko dituela eta webgune gehienak bisitatuen artean egoteaz gain, publizitatea daukate. Bestalde, zenbait adituk ohartarazten dute, behin webgune horiek blokeatzen dituztenean, aurrekari moduan erabili eta, egile eskubideak erreklamatu, edozein guneren aurka egiteko aukera egongo dela, David Bravo abokatu eza-gunak adierazi moduan.

## Myspace-k Google Plus-ek baino trafiko handiagoa dauka oraindik

Hildakotzat jota badago ere, Myspace-ek oraindik kontuan hartzeko moduko bisita kopurua dauka. 2011an 24 milioi bisitari bakarretik gora izan zituen ComScore agentziaren datuen arabera eta zerrendan Tumblr eta Google+ moduko sareen aurretik kokatzen du Myspace, garai baten aitzindari eta sare sozialetan nagusi izan zena, hain justu.

## Itzalaldia egingo dute etzi Wikipediak eta Reddit-ek

Estatu Batuetan pirateriaren aurka egiteko onartu gura duten SOPA legearen kontrako itzalaldia deitu du Reddit guneak. Ekimenari babesa eman dioten gune nagusien artean dago Wikipedia. Legea onartuz gero eskubidedun edukien erabilpen ez egokia delitutzat hartu daiteke aurrerantzean Estatu Batuetan.

## Euskaltel, Symio eta Pepephone konpainiak, emaitza onekin

Konpainia handiak gero eta irabazi gutxiago izaten dabilzan heinean *low cost* telefono konpainiek emaitza onekin itxi dute urtea. MÀSmovil, Euskaltel, Simyo eta Pepephone operadoreek gero eta linea gehiago dauzkate eta Euskaltelek, esate baterako, iaz 38,4 milioi euroko irabaziak izan zituen.

## Software librea indartzeko dekalogoia kaleratu dute

Software librearen nazioarteko konferentzia amaitu berri dute Granadan (Espainia) eta bertan aztertutakoa batzen duen dekalogoia atera dute, *opensourceworldconference.com/node/912* helbidean aurki daitekeena. Erabilerari, filosofiari eta eman beharreko erabilpenari buruzko ideiak jasotzen dira zerrendan.

## TELE-BEGI

AMAIA  
PAVON'El Conquis'  
saioa

Gabonen amaierarekin batera hasi zen *El Conquistador del fin del Mundo*-ren hamargarren denboraldia (adi *Goenkale!*). Audientzia share oso handia lortu zuen lehenengo saioak; ikusle fidelez gain, edizioaren berritasunak eta partaideak ezagutzeko kuxkuxeroak gehitu zitzaizkion ikusleriari. Berritasunak ez ziren falta izan: pasa den urtean ez bezala, aurrean talde bakarrean lehiari hasi ziren partaideak, Jose Luis Kortaren agindupean denak. Lehiakideak, denetari-koak.

Urteak aurrera egin ahala *reality*-etan fitxatu dituzten pertsonaia berezien (zelanbait deitzez) barometroak gora egin duen lez, *El Conquis*-en ere kirolzale izaera nahikoa ez, eta pertsonaien grazia beste nonbait aurkitu beharra sentitu dute, antza (kirolzaleei oso deitza ez da nire helburua). Are gehiago, kirolzalea izatea ez omen da, itxuraz, baldintza garrantzitsua saioan parte hartzeko. Pasa den domekan kaleratzeko proposatu zituzten bi lehiakideen adibidea dugu, erakutsi zuten indar bakarria ahotik botatakoa izan zen. Zortez edo tamalez, taldeak segituan gaitzetsi zituen Andoniren eta Yerayen handikeriak.

## ASTEA GOIENAN

## GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA, 16

Aloña-Behobia  
partidua

20:44

Azkoagainen Aloña Mendik Behobiaren aurka jokaturako futbol partidua ikusgai izango dizue *Harmailatik* saioan.

12:25 Magazinea

13:25 Onein

13:50 Kantari

14:20 Altxor Txokoa

14:46 Berriak

15:16 Ikusmira

15:44 Ur eta lur

16:11 Hamaika.bit

16:41 Berriak

17:11 Bizitegia

17:41 28.Klip

18:11 Berbetan

18:44 Berriak

19:14 Kantari

19:44 Magazinea

20:44 Harmailatik

21:29 Magazinea

22:29 Harmailatik

23:14 Gipuzkoa kultura

MARTITZENA, 17

Markel Olanori  
elkarrizketa

19:48

Markel Olano EAJren bozeramailea Gipuzkoako Batzar Nagusietan eta Ahalduen Nagusi ohia elkarrizketatuko dugu.

12:30 Magazinea

13:30 Harmailatik

14:15 Kantari

14:42 Berriak

15:12 Altxor Txokoa

15:38 Harmailatik

16:21 Onein

16:44 Berriak

17:14 Bizitegia

17:44 Harmailatik

18:29 28.Klip

18:56 Berriak

19:23 Kantari

19:48 Magazinea

20:48 Erreportajea:  
Ikurriñaren legezatztea

21:21 Magazinea

22:21 Bizitegia

22:51 Magazinea

23:51 Gipuzkoa kultura

EGUAZTENA, 18

Etxeko langileen  
araudia hizpide

19:47

Bergarako Aierdi aholkularitza enpresako kide bat etorriko da *Magazinea*-ra etxeko langileen araudiari buruz hitz egitera.

12:25 Magazinea

13:25 Erreportajea:  
Ikurriñaren legezatztea

13:58 Erositaikasi

14:15 Kantari

14:45 Berriak

15:15 Gipuzkoa kultura

15:45 Onein

16:13 Erreportajea:  
Ikurriñaren legezatztea

16:46 Berriak

17:16 Bizitegia

17:43 Altxor Txokoa

18:09 Harmailatik

18:52 Berriak

19:22 Kantari

19:47 Magazinea

20:47 Berbetan

21:20 Magazinea

22:20 Erreportajea:  
Ikurriñaren legezatztea

22:53 Magazinea

00:24 Berbetan

EGUENA, 19

Ikurriñaren  
legezatztea

22:51

35 urte bete dira ikurriña legezatu zutenetik eta orduko irudiekin egindako erreportaje zabal bat eskainiko dizuegu.

12:30 Magazinea

13:30 Hamaika.bit

13:55 Kantari

14:20 Bizitegia

14:45 Berriak

15:15 Onein

15:42 Berbaz

16:42 Berriak

17:12 Kantari

17:42 Altxor Txokoa

18:08 Erositaikasi

18:26 Ikusmira

18:24 Berriak

19:24 Kantari

19:51 Magazinea

20:51 Hamaika.bit

21:21 Magazinea

22:21 Gipuzkoa kultura

22:51 Erreportajea:  
Ikurriñaren legezatztea

23:24 Magazinea

EGUBAKOITZA, 20

Ganbara Txiki  
abesbatza

20:47

Oñatiko Ganbara Txiki abesbatza gertututik ezagutzeko aukera izango dugu *Gipuzkoa kultura* saioan.

12:30 Magazinea

13:30 Gipuzkoa kultura

13:55 Kantari

14:22 Onein

14:47 Berriak

15:14 28.Klip

15:44 Bizitegia

16:14 Leku txiki bat

16:44 Berriak

17:17 Esatea libre

18:27 Erositaikasi

18:45 Berriak

19:20 Kantari

19:47 Magazinea

20:47 Gipuzkoa kultura

21:17 Magazinea

22:17 Hamaika.bit

22:44 Magazinea

23:44 28.Klip

## ARRASATE IRRATIA

'Gramones' taldearen  
kontzerturako sarrerak  
ditugu zozketatzeko

*Kooltur ostegunak* egitasmoaren barruan, eguen honetan *Gramones* Gasteizko taldea izango da Arrasateko gazte-txean. Hara joateko sarrerak lortu nahi badituzue, hartu parte zozketan. Deitu 943 25 05 05 telefonora edo idatzi [irratia@goiena.com](mailto:irratia@goiena.com) helbidera. Zorte on!

Gizabide fundazioa  
gertutik ezagutuko  
dugu 107.7an

Inauguratu dute ofizialki, Arrasaten, Gizabide eta Mundukide fundazioen eta Bagara elkartearen egoitza soziala izango den jauregi eraberritua. Zarugalden dago, eta Conchita Azkarate arrasatearrek Gizabiderendako utzi zuen testamentuan. Hori izango dugu berbagai.

San Sebastian eguna  
dela-eta, danborrada  
doinuak entzungai

San Sebastian eguna ospatuko da egubakoitzean, hilaren 20an, eta gure irratian Sarriegiren doinuak entzun ahal izango dituzue. Ikastetxeetan ere prestaketa lanetan ibiliko dira gaztetxoak, eta danbor hotsekin gozaten ibiliko dira. Bada, Arrasate Irratiko 107.7-ko uhinetan ere izango duzue horretaz gozatzeko aukera.

## TELE-ALBISTEAK

'Bi eta bat' telesaila  
atal berriekin itzuliko  
da, 20 urteren ostean

Egunotan aurrekontuak ixten ari dira eta espero dute negu honetan bertan hasia grabazioak

AMAIA TXINTXURRETA | ARRASATE

*Bi eta bat* 90eko hamarkadako ETB1eko telesail arrakastatsuen atal berriak lantzen ari da Orio ekoiztetxea ETBrentzat.

Eneko Olasagasti eta Karlos Zabala telesailaren sortzaileek zuzenduko dute berriro, eta lehenengo aktore batzuk ere izango dituzte; tartean, hiru protagonistak: Jose Ramon Soroz, Elena Irureta eta Ane Gabarain.

Olasagastik berriro batzea berezia izango dela azaldu du: "Ez dakit inoiz nazioartean egin den horrelako zerbait. Oso bere-

zia izango da berriro biltzea".

Joxe Lontxo pertsonaiari bizia ematen zion Jose Ramon Sorozek, Jaione Ane Gabarain zen eta Idoia, oster, Elena Irureta. Hirurak elkarrekin etxe batean bizi ziren eta hamaika istorio eta korapilotan nahasturik zeuden auzoko, etxe-jabe eta lagunak tarteko.

Telesaila 20 urteren ostean berriro itzuliko da pantaila txiki eta itxura eguneratua izango du, gaur egungo giro eta ingurura egokituta.

*Bi eta bat*-ek hiru denboraldi



Bi eta bat telesailaren 90eko hamarkadan parte hartzen zuten aktoreak. | TOOTELE.COM

Jose Ramon Soroz,  
Elena Irureta eta  
Ane Gabarain  
aktoreak itzuliko dira

izan zituen, 1991n, 1992an eta 1993an, eta arrakasta handia izan zuen ETB1en.

## Surioren lehena ETBn

2009. urteko udan Alberto Surio EITBko zuzendari izendatu zute-

netik, ETBrako ez da fikziozko ekoizpen berririk egin. Izan ere, azkeneko bi udetan Miramongo egoitzaren platoak itxita egon dira; aurreko urteetan, ordea, sasoi hartarako ia beti telesailak grabatzen ziren.

## ZORION AGURRAK



**ARETXABALETA**  
**Ekaitz Oskoz Barrena**  
Urtarrilaren 22an, 9 urte.  
Zorionak, txapeldun! Jada 9 urte, ze handi. Orain arte bezala jarraitu, alai eta jatorra. Mila muxu Irati, amatxo eta aitaxoren partetik.



**OÑATI**  
**Ander Iciar Garcia**  
Urtarrilaren 22an, urtebete. Zorionak, majete! Belarriko lehen tirakada! Patxo handi bat familiakoena eta, bereziki, aitaxo eta amatxoren partetik.



**ARRASATE**  
**Malen Artetxe Arregi**  
Urtarrilaren 20an, 8 urte. Zorionak maitia! Donostiako danborren doinuarekin etorri zitzaigun gure Malen orain dela 8 urte. Ederki ospatu ikastolan eta gero gurekin. Aitaxo, amatxo eta Iزارo.



**BERGARA**  
**Ion Elkorbarrutia Lete**  
Urtarrilaren 19an, 33 urte. Zorionak, aitaxo! Espero ondo-ondo pasatzia egun polit honetan. Muxu asko familia guztiarena eta bereziki Hodei eta amatxoren partetik.



**ARRASATE**  
**Kristina Azurmendi Hernandez**  
Urtarrilaren 19an, 10 urte. Zorionak eta ondo pasatu familia guztiarekin. Izeba Maite, osaba Paco eta lehengusu-lehengusina Eider, Zihara eta Egoitzek, mila muxu.



**ARRASATE**  
**Manex Okina Altube**  
Urtarrilaren 18an, 10 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean. Patxo handi-handi bat danon partetik.



**ARRASATE**  
**Eider Kortabarria Aranzabal**  
Urtarrilaren 18an, 4 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoena partetik!



**BERGARA**  
**Eider Garcia Lete**  
Urtarrila 18an, 10 urte betetzen ditu. Muxu eta besarkada asko, familiaren partetik, bereziki Pello eta Katixa.



**ARRASATE**  
**Alazne Canales Losa**  
Urtarrilaren 14an, 4 urte. Zorionak, Marimotos! Pa, pa eta pa!



**BERGARA**  
**Naia Caballero Nuñez**  
Urtarrilaren 13an, 5 urte. Zorionak, printzesa! 5 urte! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna familia guztiarena eta, bereziki, Asier, Andoni eta amatxoren partetik.



**ARRASATE**  
**Oier Bujanda Gabilondo**  
Urtarrilaren 13an, 9 urte. Zorionak eta patxo handi bat familiakoena partetik!



**ARRASATE**  
**Irati Zaitegi Manzanos**  
Urtarrilaren 13an, 5 urte. Zorionak, Irati! Oso ondo pasatu eta belarritik tirakada handi bat Alaitz, aitaxo, amatxo eta familia guztiaren partetik. Muxu handi bat, printzesa!



**BERGARA**  
**Irati Gallastegi Akizu**  
Urtarrilaren 13an, 2 urte. Zorionak, potxola! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Hurrengo urtian gehixau eta hobeto! Muxu potolo bat familakuen partetik!



**ARRASATE**  
**Haizea Duandikoetxea Otsoa**  
Urtarrilaren 13an, 5 urte. Zorionak, printzesa! 5 urte! Ze handia egin zaren! Patxo handi bat, familia guztiaren partetik.



**OÑATI**  
**Xabier Santa Cruz Murua**  
Urtarrilaren 12an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Patxo handi bat bidaltzen dizugu etxeko guztiak, eta bereziki Maddi, Mikel eta Enarak.



**ARETXABALETA**  
**Ander Ribera Montoya**  
Urtarrilaren 12an, 6 urte. Zorionak, Ander, sei urte betetzen dituzu eta zure familiak zoriontzen zaitu. Batez ere zure arreba Amaiak. Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



**ARRASATE**  
**Jakes Sarabia Mendia**  
Urtarrilaren 12an, 6 urte. Zorionak, pelotari! Jarraitu horrela, txapeldun. Zure familia eta batez ere Juleneren partetik.



**ARRASATE**  
**Julen Barandiaran Sánchez**  
Urtarrilaren 10ean, 10 urte. Zorionak, kapitan. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat familia guztiaren partetik.



**OÑATI**  
**Eneko Mugarza Aurre**  
Urtarrilaren 10ean, 5 urte. Zorionak, Eneko, familia guztiaren partetik eta patxo handi bat. Irati, aitaxo eta amatxo.



**ARRASATE**  
**Lander Lopez**  
Urtarrilaren 10ean, 35 urte. Zorionak eta urte askotarako, Lan! Maite zaitugun danon partetik mila kilo zorion!



**ARRASATE**  
**Izaro Artetxe**  
Urtarrilaren 9an, 5 urte. Gure kuxurrak dagoeneko bost urte. Zorionak eta horrelakoa izaten jarraitu. Etxekuen partetik, muxuko.



**ARETXABALETA**  
**Arantza Urzelai**  
Urtarrilaren 9an, urtebetetzea. Zorionak, amama! Muxu eta besarkada handi bat etxekoena, eta bereziki Maddi, Sarah, Yuly, Danel eta Oxelen partetik.



**ARRASATE**  
**Gorka Armendia Zallo**  
Urtarrilaren 9an, 8 urte. Zorionak, Gorka! Astelehena izanda ere ederto pasatuko dugu zure urtebetetzea ospatzen. Muxu handi-handi bat etxeko guztiaren partetik.



**OÑATI**  
**Andoni Santxex**  
Urtarrilaren 9an, 23 urte. Ese Kinto! Zorionak zure kuadrillako danan partetik! Oñatiko erregia haiz! Aupa hi!



**ARETXABALETA**  
**Auritz Llodio Soraluze**  
Urtarrilaren 9an, 2 urte. Zorionak, mutikote! Ondo-ondo zelebrau urtebetetzea! Patxo handi bat zure amapuntakuen partetik.



**ANTZUOLA**  
**Lide Etxezortu Gabilondo**  
Urtarrilaren 8an, 3 urte. Zorionak eta besarkada handi bat bere lehengusu Imanol eta Laida, eta Oier eta Mainerren partetik.



**ESKORIATZA**  
**Matias Vargas Quintas**  
Urtarrilaren 8an, 4 urte. zorionak eta ondo pasatu.



**BERGARA**  
**Gorka Domenech Iñarra**  
Urtarrilaren 8an, 7 urte. Zorionak, pitxin. Heldu da zure zazpigarren urtebetetzea; konturatu barik handitzen zoaz. Oso ondo pasatu eta muxu handi bat. Ia aruten hobetotxua portetan zaren. Zorionak eta belarritik tirakada handi bat Aratz, aitaxo, amatxo eta familia guztiaren partetik.



**BERGARA**  
**Aitziber Plazaola Oregi**  
Urtarrilaren 7an, 26 urte. Zorionak, poxpolin. Aparte, baina ez urrin. Pixa barik, etxoitxen gogoakin ospatzeko bergarar guztiakin. Tiolai.



**OÑATI**  
**Haizea Lopez Lasa**  
Urtarrilaren 7an, 3 urte. Zorionak etxeko guztiaren partetik eta ondo-ondotu pasa zure egunean!



**OÑATI**  
**Ibai Moiu Reinstadler**  
Urtarrilaren 7an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna! Patxo handi bat etxekoena partetik!



**OÑATI**  
**Naroa Moreno Zubia**  
Urtarrilaren 6an, 4 urte. Zorionak, laztana! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze egunean! Jaso lau muxu handi aitaxo, amatxo eta Aiurren partetik.



**ARRASATE**  
**Mikel Aranburuzabala Loiti**  
Urtarrilaren 6an, 8 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxekoena partetik.



**OÑATI**  
**Leire Zelaia Arrese**  
Urtarrilaren 5ean, 14 urte. Zorionak, Leire! Oso ondo pasatu zure urtebetetzean!



**BERGARA**  
**Oihan Zubieta Ilarduia**  
Urtarrilaren 5ean, 4 urte. Zu bai zu mutikotia! Patxo potolo bat etxekoena partetik. Muak!



**ARRASATE**  
**Luna Ferreira Alonso**  
Urtarrilaren 4an, 2 urte. Zorionak, prexioxa! Ondo-ondo pasatu laguntxo eta familiakoekin. Mila muxu amatxo eta aitaxoren partetik. "Maite zaitut..." Muak!

## Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak. Hiru bide dituzu GOIENAREN bidez zoriontzeko:

## Internet

Sar zaitetz [goiena.net](http://goiena.net) atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu. Bete eskatutako datuak eta bertan argitaratuko da zorion agurra. Baita Goiena paperean ere.

## Posta elektronikoa

Mezu bat bidali [zorionagurra@goiena.com](mailto:zorionagurra@goiena.com) helbidera, adieraziz: izen abizenak, herria, urtebetetze data eta nahi duzun testua.

## Ordezkaritzak

Etor zaitetz GOIENAKO ordezkari zure batera.

Egubakoitz 11:00ak arte jasotako zorion agurra bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

## ZORION AGURRAK



**ESKORIATZA**  
**Alin Cabeza Davila**  
Urtarrilaren 17an, 3 urte.  
Familiaren partetik zorionak eta ondo pasatu zure egunean.



**ARETXABALETA**  
**Ane Samaniego Urizarren**  
Urtarrilaren 17an, 2 urte.  
Zorionak, gure potxola! Batez be zure lehengusu Beñatek. Amama, attona, tia eta tiok. Marrubizko pa potolo bat.



**ANTZUOLA**  
**Gaiuri Azkarateaskasua Bakaikoa**  
Urtarrilaren 17an, 17 urte.  
Zorionak, Gaiuri, etxekuen, eta bereziki, aitxa, ama eta Juneren partetik. Segi horrelaxe eta patxo handi bat.



**ARETXABALETA**  
**Josu Antxia Mendo**  
Zorionak, Josu!  
Urtarrilaren 17an bost urte beteko dituzu. Muxu potolo bat etxekoan partetik, bereziki amatxo, aitatxo eta Malen!



**ARETXABALETA**  
**Malen Antxia Mendo**  
Zorionak, Malen!  
Urtarrilaren 17an bost urte beteko dituzu. Muxu potolo bat etxekoan partetik, bereziki amatxo, aitatxo eta Josu!



**ARETXABALETA**  
**Begoña Blázquez**  
Urtarrilaren 16an.  
Zorionak, *guapa!* Aurten zure ondoan egongo ez nazen arren, merezi bezala ospatu eta elkartzen garenerako indarrak gorde! Muxu handi-handi bat Romatik eta beste bat etxekoan partetik!



**ARRASATE**  
**Gaizka Arizabaleta Rodriguez**  
Urtarrilaren 16an, 6 urte.  
Zorionak, txapeldun! Egun oso ona pasa dezazula familia guztiaren partetik. Besarkada handi bat.



**OÑATI**  
**Uxue Igartua Cortabarria**  
Urtarrilaren 14an, 5 urte.  
Zorionak, maitte. Ze handi egin zaran! Oso ondo pasatu zure eguna. Patxo handi bat etxekoan partetik.



**OÑATI**  
**Irati Mugarza Aurre**  
Urtarrilaren 14an, 3 urte.  
Zorionak, Irati. Eneko, aitatxo, amatxo eta familia guztiaren partetik. Muxu handi bat.



**BERGARA**  
**Auritz Arantzabal Arizabaleta**  
Urtarrilaren 12an, 8 urte.  
Zorionak, txapeldun! Ondo pasatu eta patxo handi bat gure etxeko Induraini!



**OÑATI**  
**Adriana Tomas Heras**  
Urtarrilaren 11n, 20 urte.  
Zorionak, Adriana. Ondo-ondo pasatu urtebetetze eguna etxeko guztien partetik. Asko maite zaitugu.



**ARETXABALETA**  
**Arait Lizarrituri Etxenausia**  
Urtarrilaren 11n, 6 urte.  
Zorionak eta urte askotarako, prexioxa! Honezkeru esku bateko hatzamarrekin ezin ditxuzu betetako urte danak kontau eh, neska handi? Ondo-ondo ospatu eguna zure laguntxo danekin. Patxo erraldoi mordo bat familia danan eta batez be zure ahizpa Doltzaren partetik.



**BERGARA**  
**Elene eta Oier Uzin**  
Zorionak, bikote! Elenek urtebetetze bat urtarrilaren 11n eta beste mutil kokkorak, Oierrek, 5 urte urtarrilaren 16an. Ea aurten hobeto portatzen zareten. Ondo-ondo pasatu eguna. Izar, Ekaitz eta beste guztien partetik muxu potolo bana.



**ARRASATE**  
**Julen Ugalde Gorosabel**  
Urtarrilaren 11n, 6 urte.  
Zorionak, potxolo. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna familia eta lagunuen partetik.

## JAIOTAKOAK

**Ekain Fernandez Martin**

Oñati 4,020 kilo. Urtarrilaren 8a. Gurasoak: Ana eta Jose Luis. Argazkian, Ekain sehaskan.

**Markel de Borja Mateo**

Bergara 2,800 kilo. Urtarrilaren 6a. Gurasoak: Virginia eta Jabier. Argazkian, Markel amarekin.

**Pello Gabilondo Olaortua**

Antzuola 3,500 kilo. Urtarrilaren 7a. Gurasoak: Edurne eta Gotzon. Argazkian, Pello amarekin.

**Oier Mendizabal Larrañaga**

Antzuola 3,490 kilo. Urtarrilaren 11. Gurasoak: Nerea eta Gotzon. Argazkian, Oier amarekin.

**Beñat Okariz Buruaga**

Arrasate 2,950 kilo. Urtarrilaren 13a. Gurasoak: Lorea eta Gorka. Argazkian, Beñat sehaskan lo.

**Koldobike Meabe Gantxegi**

Bergara 3 kilo. Urtarrilaren 10a. Gurasoak: Inma eta Juan Ignacio. Argazkian, Koldobike aitaren besoetan.

**Galder Mendez Simon**

Arrasate 3,130 kilo. Urtarrilaren 12a. Gurasoak: Olaia eta Ramon. Argazkian, Galder amarekin

**Elixabete Gabilondo Larrañaga**

Bergara 3,660 kilo. Urtarrilaren 9a. Gurasoak: Maite eta Ibon. Argazkian, Elixabete gurasoekin.

**Lander Luelmo Hututui**

Aretxabaleta 3,200 kilo. Urtarrilaren 8a. Gurasoak: Florica eta Antonio. Argazkian, Lander gurasoekin.

## GOIENAN ESKELA JARTZEKO

DEITU EGUEN EGUERDIA BAINO LEHEN: 943 25 05 05. EDO ZATOK ORDEZKARITZA BATERA.



Eskelaren prezioa: 126 euro. Egubakoitzean eta astelehenean, bietan, argitaratuz gero, 168 euro.  
Goiena: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.

## ESKER ONA

**Clara Gorosabel Etxagibel**

Felix Garroren alarguna



Arrasaten hil zen 2012ko urtarrilaren 9an, 95 urte zituela.

Lerro hauen bidez Clararen sendiak eskerrak eman nahi dizkizuegu bihotz-bihotzez horrenbeste eratan maitasuna eta elkartasuna erakutsi diguzuen guztioi.

Arrasaten, 2012ko urtarrilaren 16an.

## AI, ENE!

### Pizza usaineko ametsak

Originala bada lo-zaku hori, baina ez oso aproposa gauaren erdian gosetuta jaikitzen diren horien-dako.

[www.nopuedocreer.com](http://www.nopuedocreer.com)



## AHOBERO


### "Matxismo zaharretakoa litzateke senarra dela-eta ni epaitzea"

ANA BOTELLA | MADRILGO ALKATEA

Ez, Madrilgo alkate andre berria, kritika gehienak ez dira zure senarrragatik. Madrilgo kutsadurari garrantzia kentzeko esandakoez edo ezkontza homosexualen kontra egiteko erabilitako sagarren eta madarien adibideak izango zuten zerikusirik...

[www.elmundo.es](http://www.elmundo.es)

## EGURALDIA



Max. 9°

Min. 4°

Zaparradak bota ditzake, nahiz eta orokorrean zaparrada txikiak izan.

[euskalmet.net](http://euskalmet.net)

ASTELEHENKOA

# goiena

2012-01-16

HARPIDETZA: ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM

## HAMARREKOA

**Pello Zabala** Amezketan jaio arren, 54 urtez hemen bizi eta gero Arantzazukoa sentitzen da dagoeneko eguraldi-gizona, musika klasikoaren zale amorratua eta blogaria ere baden frantziskotarra. | TXOMIN MADINA

## "Naturak jainkotiartasun handiagoa du elizako isiltasunak baino"

**1. Fernando Amezketarraren odol-lekoa zaitugu. Zertan igartzen da?** Odolekoa bai, baina urruti samar geratzen zait. Umore onean eta buru argi samarra izatean igar daiteke; bertsoak idazterakoan ere egon daiteke zerbait.

**2. 10 urterekin Arantzazura; goiz heldu zitzaizun bokazioa!**

Bai. Urtero bi irteera egiten genituen Arantzazura, eta 7 urterekin geratu nahi nuela esan nuen; etxean baietza eman zidatenean asko poztu nintzen; ikasten segitu eta 10 urterekin joan nintzen.

**3. Gaur egun ez ei dago bokaziorik. Arduratzen zaitu?**

Bai, azkenak garelako; mutilzaharrrak baserrian moduan gaude, ea baserria edo eurak noiz lehenago eroriko; halaxe gaude gu, jakinda Arantzazuk segituko duela eta gu eroriko garela. Munduak daraman martxa hartu ezean, Eliza galdu egingo da. Garaien zinua da.

**4. "Zuk zer duzu, Arantzazu", zioen Salvatore Mitxelenaren olerkiak. Zer erantzungo zenioke?**

Ez nuke jakingo nola esan, baina zer horrek betetzen duen zakua gero eta beteagoa dut: gaur egun gehiago kostako litzaidake hemendik joatea lehen baino.

**5. Barkatzen ez duzuna zure eguneroko paseoa da.**

Astegunetan egunero ibilaldi bat egiten dut, otoitzek betetakoa. Naturak jainkotiartasun handiagoa du elizako isiltasunak baino.



JON POZO

### MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

#### "Umore ona zabalduko nuke"

"Makilatxo magikoa guretzat hurritz makila da, bizia ematen duelako. Horrekin umore ona emango nioke mundu guztiari. Asisko Frantziskok triste zegoenari esaten zion umore ona izan arte bere logelara joateko. Horixe egingo nuke nik ere: umore ona zabaldu eta umore txarra duena erretiratu".

**6. Paseotik pasiora: musika klasiko. Zenbat disko dituzu?**

Milaka batzuk bai... Asko disfrutatu nuen txikitari ametsa zen lanarekin; Euskadi Irratian 6.600 programa egin nituen. Hala ere, saioa utzi eta sei urtez musika klasikoa entzun gabe egon nintzen, ganbarako sonak kentzeko-edo!

**7. Disko bat aukeratzekotan?**

Ezinezkoa; hainbeste eta hain desberdinak dira! Pertsonak aukeratzea bezala da: denek dute balioa, bakoitzak bere momentua. Musikarekin pertsona asko ezagutu ditut: Bach, Beethoven, Mozart...

**8. Zeruaren koloreaz ala satelite bidezko mapaz, zeinekin fido zara gehiago?**

Zeruaz eta zerupeekoz; animaliek euren portaerarekin esaten dizute eguraldia nondik nora joango den. Baita zuhaitzek ere, goroldioak...

**9. Teknologia berriek ez dizute beldurrik ematen; horren adibide da blogari aktiboa zarela.**

Aurrerapenek badituzte abantaila benetan onuragarriak. Txikitatik, ikusten nuen erakusteko joera izan dut; orduan onenak maisulanean emango nituen. Blogean, maisu lana egiten da apur bat.

**10. Mediatikoa zaitugu oso. Nola daroazu fama?**

Gaizki ez, baina alde egiten diot; egun batzuk igarotzeko ez naiz Donostiara joango. Horregatik joaten naiz Ledeara lasai egotera, han ere tarteka ezagutu arren.

## BIHARAMUNA

MARKOS BALENTZIAGA



### Aberatsen tribulazioak

Mundu zabala oraindik Berlusconi ahaztu ezinik dabilenean, Europako Banku Zentralaren presidente Mario Draghi italiarrak hartu du Italiako politikari pikaro eta protagonistaren txanda.

Hara zer gertatu zaion Europako Bankuburuari Erromako kaleetan. Joan den astean Draghi jauna pasieran ikusi zuten kaleetan zehar ezagunek, umeez, ostalariak, txurreroek, gaztaina-saltzailak, kale-garbitzailak, bidekamerekin... eta den-den gainetik begiratzen duen Jainkoaren begi bakar trianguluarra; ez, baina, hantxe pare-parean eta erne-erne egon beharra zeukan soldatapeko udaltzainak!

Draghi Europako Bankuburu jauna, utilitario batean, sakelfonotik berbetan eta uhalotu gabe harrapatu zuen argazkilari batek!

Orain, hedabideei esker, mundu osoak dauka pasiera horren berri. Gertatuak gertatu, trafiko-arauen haustura bikoitzak ez du eraginik izango Draghiaren kontaduriatoko batean ere: ez gidabaimenaren puntuetan, ez kontu korrontean.

Eta italiarrek zer diote auziaz? Askok, hauxe: "Gaixo, Mario! Behin irtengo paseatze-erromako kaleetan zehar, bizkartzainik gabe eta utilitario batean, eta parte txarreko argazkilari bat fortunatu behar pare-parean! Aberatsen tribulazioek ez dute mugarik!"



**Gasolindegiko ordutegi berria**  
Astelehenetik ostiralera  
07:00-21:30  
Larunbat, igande eta jaiegunetan  
09:00-21:30

Hipermerkatuak



zurekin

Musakola 11 ARRASATE  
Tel.: 943 71 10 30

[www.grupoeroski.es](http://www.grupoeroski.es)